# goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-07-15
EGUBAKOITZA
473. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM


## Antzuolako jai nagusiak asteburuan

Alardea bihar izango da, 19:00etan | 25



Iazko alardearen une bat. | GOIENA

Josu Garai arrasatearrak irabazi du Argizaiola argazki lehiaketa | 32



Soul doinuak Arrasaten The Excitements taldearekin | 33



Gatzagako auto igoeran lau txanda egingo dituzte | 28



Deba ibaiaren gune kutsatuena, Debagoienean, Elorregi da.

# ORAINDIK ERE, ZIKINENA

Diputazioak argitara eman berri du Gipuzkoako Ibaien Ur Kalitatearen Ikerketa. Deba ibaiak oso zikin jarraitzen du, eta, araztegiarekin hori konponduko den arren, ibaia bere onera ekartzeko hasiera besterik ez da izango | 2

MONIKA BELASTEGI

## SINADURAK



Krisiak badu irteera duina | 6
RUFINA OLASAGASTI

6 | Eta eskerrak amaitu direla...
JOKIN BEREZIARTUA



Debs-en ametsa | 12
ENEKO BARBERENA

22 | Euskaldunak munduan
OIER ETXEBARRIA



Dantzatu nahi al duzu? | 26
XABIER IGOA

27 | Gure medioak erdaraz
BEATRIZ ZABALONDO



Denak ez du balio | 40
AINTZANE OIARBIDE


## "Egun, injineruek ingelesa eta maleta beharko dituzte mundura zabaltzeko"



**Bixente Atxa** | Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria | 8

## Boluntario bila dabiltza Arrasateko Harreman dendan

Kudeatzeko modua aldatzera behartu ditu krisiak | 4


SEAT IBIZA



9.900 eurotik aurrera

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

SEAT



ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRITARRAK 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | GAZTEAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# "Ibaiak, garbi egoteaz gain, ibai itxura izan eta bizirik egon behar du"

Debak hobera egingo du araztegiekin, baina, bere onera etortzeko, fauna, landareak eta bidea berreskuratu behar dira

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Deba ibaiak kalitate hobea du aurten zenbait zatitan iaz baino. Hala, leku batzuetan, uraren kalitatea "bikaintzat" jotzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Bainua hartu dezakete debagoiendarrek infekziorik harrapatzeko beldur barik Leintz Gatzaga, Urkulu eta Aixola erreketan, eta baita Oñati erreka goialdean, hau da, Debaren iturburuetan.

Bainua ez, baina arrantzan egitera proba egin dezakete aipatutakoetan eta beste hauetan: Aramaio eta Ubera erreketan.

Azkenik, zikinak, kutsadura maila handi edo oso handiarekin eta "arrainen bizitzarekin bateraezina" den egoeran topatzen ditugu beste urte batez Deba ibaiaren emari nagusi osoa eta adar batzuk: Elorregi biribilgune inguruko zati guztiak, Bergaran, Oñatin eta Arrasaten; eta Antzuola eta Eibarko Ego adarrak ere.

Horixe ondorioztatzen du Foru Aldundiaren Garapen Iraunkorrerako Sailak, argitara eman berri duen Gipuzkoako Ibaien Ur-Kalitatearen Ikerketan. Urtero egiten du ikerketa hori, eta aurtengoa bukatu berri du.

Ibaia garbiago joaten hasiko da Epelen dagoeneko bukatzen dabiltzan araztegia lanean hasten denean. Baina horrekin ez da berreskuratze lana bukatuko; uren saneamendu sarea beti hobetu daiteke, eta, bestalde, ibai-bazterrak ahalik eta gehien bere onera ekartzea gomendatzen du Foru Aldundiak. Eta horretan ere, Deba ibarra eta bere ibaia atzeko postuetan daude.

## Denetariko egoerak

Oro har, "Gipuzkoako ibai-sarearen egoera era askotakoa da. Oraindik ere kutsadura-arazo garrantzitsuak daude; ibai-bazterretan egindako obra ugarien ondorioz habitatak tarte askotan izan duen eraldaketa sakona ere gehitu behar zaio horri", esaten du Uren Kalitatearen Azterketak.

Orokorrean, Foru Aldundiak dioenez, "saneamendu eta arazketa planei esker, hobetzen ari da uraren kalitatea" Gipuzkoako ibaietan. Horretan aurreratu da gehien.

Ibaian barrena 16 estaziotatik hartu dituzte laginak, eta egoera larria da, adituen esanetan, gune kritikoa Elorregi inguruan kokatuta: "Goi-ibarrean (Leintz), uraren kalitatea oso kontserbazio -egoera onean dago eta bikaina izaten jarraitzen du. Gainerako estazioetan arazo larriak antzeman dira. Arrasaten hobekuntza nabaritu da 2003tik aurrera, kolektorearen isuriak puntu horretatik behera botatzen direlako; nolanahi ere, kalitate biologikoa kalitate urri-txarraren tarte horretan mantenduko da. San Prudentzion, Debagoieneko kolektorearen isurketek eragiten diotenez, oso kutsadura handia erregistratzen da, eta hori uraren kalitate ezin txarragoan islatzen da".

Beherako bidean, zertxobait hobetzen da: "Bergaratik ibaian behera eta Mendaro bitartean (...) uraren kalitatea eskasa da eta, kasu batzuetan, kalitate ertainekoa da. Elgoibartik behera, nolabaiteko hobekuntza ikusi ahal izan da azken urteetan".

Ibaiadarrak ere aztertu dituzte, eta honela kalifikatzen dituzte: Aramaio "egokia da ziprinidoen bizitzarako", eta kutsadura organiko gutxi dago. Kalitatean, "nolabaiteko hobekuntza igarri da 2007tik aurrera", diote Foru Aldundiko teknikariek.

Oñatin, Zubillagan, salmonidoak bizitzeko moduko baldintzak daude. "Parametro guztiek balio egokiak erakusten dituzte". Baina San Prudentziora ailegatzerakoan asko aldatzen da kontua: "Tavesa zubian emaitzek kalitate txarreko urak direla adierazten dute".

Urkulu errekan, edateko uren araztegitik behera, "urek kalitate fisiko-kimiko ona dute eta, beraz, egokiak dira salmonidoentzat" (amuarrainak). Ura tenperatura egokian dago (13,3ºC) eta ez dago kutsadurarik, baina uda partean "kalitate ertaina" du; udaberrian dago ondoen.




**LAGINAK** Foru Aldundiak 16 gunetan hartu ditu laginak, ibaiaren emari nagusian, buruetan eta adarretan.

**ARAUA** 2000. urtetik indarrean dagoen Uraren Zuzentarau Markoak zehazten duena bete du ikerketak.

**LAU URTE** Arauak dioenez, 2015erako ur-masa guztiek "egoera ona" erdietsi behar dute.

**KUTSADURA** Arazo hori oso larria da oraindik Deba ibaian. Batez ere, Elorregi inguruko urak daude kaltetuta. Bestalde, bi aro desberdintzen dira: udaberria eta agorraldia; ur emaria txikia denean, dauden arazoak modu larrienean azaltzen dira. Ibaiadar batzuek (Aramaio, Oñati, Ubera eta Antzuola) arazoak dituzte behe-ibarrean; goi-ibar eta goi-ibaiadarretan topatu dute kalitate onena.

**EMAITZAK** Uraren kalitate biologikoa "eskasa" da ibai ia osoan. Hala ere, "hobekuntza arin bat izan du Bergaratik behera eta Mendaron". Leku horietan, araztegiak daude.

**DEGRADAZIOA** Ibaietako ekosistema eta habitata "degradatzea" eragiten dute beste faktore batzuek: landaretza eza, ur-emarien murrizketak eta oztopoak (presak...).

### ESANAK

"Ibaia garbi izatea baloratzen zen lehen; orain, gauza gehiago"

"Ibaia ez da errespetatu; oso bideratuta eta estalita dago"

FELIX IZKO | FORU ALDUNDIKO URAREN KONTROL ETA KALITATEAREN UNITATEKO BURUA

## Arraina nahi duenak, ibaia garbi izan beza


Ezkailua.


Amurraina.

Hiru motatako arrainak daude Deba ibaian: ziprinidoak (ezkailuak), salmonidoak (amuarrainak) eta aingirak. Baina ibai-tarte bakoitzaren arabera daude.

Hala, Leintzeko ura "egokia da salmonidoak bizitzeko". Arrasaten, ura beroegi dago salmonidoendako, baina ez ezkailuendako. San Prudentzion, ordea, ura zeharo kutsatuta dago, eta hortik Elgoibartik behera hasi arte, ura zikinegia dago arrainendako.

Elgoibartik behera, ordea, "aurten ezkailuen populazio ugari bat ikusi da, baita amuarrainen eta aingiren ale batzuk ere". Mendaron, berriz, uraren tenperaturarengatik (21,5ºC-tik gora) ez da amuarrainik bizi.

Aramaio "egokia" da ezkailuendako, baina ez amuarrainendako. Zubillagan ere badaude ezkailuak. Tavesa zubi inguruan, ibaia kutsatuagoa dago, baina ezkailu batzuk harrapatu dituzte Aldundikoek.

Urkulun, "arrain-faunak ez du egoera onik erakusten", ale gutxi daude-eta. Antzuolan, ura ez da egokia arrainak bizi izateko. Uberan ezkailu asko eta mazkar dezente aurkitu dute, eta amuarrainik ez.

**DATUA**

**21,5**

GRADU ZENTIGRADU

Amuarrainek 21ºC-tan dute uraren egokitasun-muga; hortik gora, ziprinidoak (ezkailuak) bizi daitezke, baina amuarrainak ez.

Antzuola eta Ubera ibaiek "kalitate urria" dute, nahiz eta Uberakoa hobetu egin den.

Aixolako errekan "kalitate handia" du urak.

Azkenik, Ego ibaian "azken urte hauetan kutsadura mailak behera egin du", baina "oraindik handia da".

**Animalia txikien garrantzia**

Felix Izko da Uraren Kontrol eta Kalitatearen Unitateko burua eta ikerketaren zuzendarietako bat, eta hauxe esaten digu: "Orain 40 urte, bazirudien ibaiaren kalitatea adierazle fisiko-kimikoetara mugatzen zela, hau da, ura garbi egotea, eta, beraz, araztegiak jartzea nahikoa zela. Orain badakigu hori ez dela nahikoa; urak garbi egon behar du, baina ibaia bizirik egon behar da: arrainak, hegaztiak, bestelako animaliak, landaretza... Ibaia ondo egoteaz gain, ibai itxura izan behar du". Orain, gainera, alderdi guztiak kontuan hartzera behartzen du Europako 2000. urteko Uraren Zuzentarau Markoak.

Hori dena kontuan hartzen dute gaur egungo azterketek, eta ez dituzte uraren adierazgarri fisiko-kimikoak bakarrik interpretatzen; baita ibai-bazterretan landaretzarik dagoen edo ez, eta zelan eta non dagoen; arrainak dauden, hegaztiak dauden, eta "oso adierazgarria da ibai-hondoan, harrien artean bizi diren animalia txikien kopurua, aldaketek segituan eragiten dietelako". Hala, "saneamendu-lanak bukatu diren ibai askotan, barreneko animaliak ez dira berreskuratu".

Beste adibide batzuk: "Zuhaitzik ez badago, ez dago gerizperik, eta ura asko berotzen da. Bestalde, azpiegitura asko ibai-bazterretan daude, eta ibaiaren berezko uholde-ibarrak hartu dituzte, bertako landaretza txikituz".

**Saneamendu-sarea hobetu**

Saneamendu sarea garrantzitsua da. Hala, ikerketan esaten da "uraren saneamendu eta arazketa azpiegitura guztiak abian jartzen direnean uraren kalitateak hobera egingo" duela.

Baina arduradunak ezin dira lasaitu: "Gune txikiak eta industrialdeak saneamendu-sarera lotzea falta da, eta herri askotako saneamenduari beste buelta bat eman behar zaio, baina hori udalen ardura da", dio Izkok.


Azpiegiturek ibaiaren bazterrak jan dituzte. | LEIRE KORTABARRIA

"Bestelako arazoak" ere baditu Deba ibaiak, Foru Aldundiko Uraren Kontrol eta Kalitatearen arduradunaren hitzetan: "Deba ibaia oso bideratuta dago; tarte batzuetan, porlanez estalita ere bai. Ez da ibaia batere errespetatu". Ibaia denetara berreskuratzeko, "plan zehatzak" hartzera animatzen du Aldundiak: ibaiari eragiten dioten ekipamenduak (adibidez, zentral hidroelektrikoak) zuzentzeko neurriak; urtegiendako "kudeaketa-eredu zehatzak", horrela "ur-emariak bermatzeko"; bestalde, Gipuzkoan oso ohikoak dira presa txikiak, baina asko ez dira erabiltzen; bada, horiek botatzea gomendatzen du Aldundiak, izan ere, animalien migrazioa oztopatu egiten dute; erabiltzen direnen kasuan, animaliak pasatzeko elementuak egitea aholkatzen du. Hori dena, baina, beste arduradun batzuen lana izango da.

**"Goiena beti doa pauso bat aurretik"**

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaia

GOIENAK IRABAZI DU 2011KO RIKARDO ARREGI SARI NAGUSIA

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

**Zuei esker.**

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

# Arrasateko Harreman dendan boluntario bila

- Krisia dela,eta, denda kudeatzeko modua aldatzera behartuta daude
- Bi astean behin hiru orduz lan egiteko debagoiendarrak bilatzen dabiltza

**MIRIAN BITERI** | ARRASATE

Arrasateko Hiper Eroskin dagoen bidezko merkataritzako Harreman dendan boluntarioak behar dituzte. Harremaneko kide Cristina Etxenausiak jakinarazi du krisi ekonomikoak bidezko merkataritza "kolpatu" duela eta salmenta kopurua jaitsi egin dela. Egoera horrek eraginda, orain dela 14 urte zabaldu zuten denda kudeatzeko modua aldatzera behartuta daudela nabarmendu du Etxenausiak.

Horren harira, honakoa esan du: "Bidezko merkataritzako Euskal Herriko beste hainbat dendak boluntarioekin bakarrik funtzionatzen dutela ikusi dugu, eta gurean ere hori posible delakoan gaude. Ondorioz, guk ere boluntarioak bilatzeari ekin diogu".



Arrasateko Hiper Eroskin dagoen Harreman denda. | LEIRE KORTABARRIA

**20 lagun inguru**

Asmoa da Debagoieneko gobernuz kanpoko erakundeek kudeatutako proiektu horretarako 20 lagun inguru batzea. Etxenausiaren iritziz, dendan bi astean behin lan egiteko ordu kopurua hiru ordu izango litzateke boluntario bakoitzeko.

Ordutegiari dagokionez, ostera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bitartean izango litzateke. Etxenausiak gaineratu du lan-egutegi malgua izango dutela boluntarioek, eta, hortaz, bakoitzak aukeratuko duela noiz egin lan, komeni zaionaren arabera.

Harreman dendako kidearen esanetan, boluntarioak trebatzeko asmoa dute, bidezko merkataritzaren eta bertako produktuen inguruko hitzaldiak eginda. Horretaz gainera, denbora aurrera joan ahala eta beharrak identifikatzen doazen heinean, informazio gehiago emango diete. Bestalde, denda eta boluntariotzaren kontu guztia koordinatuko duen pertsona bat egoteaz gain, gobernuz kanpoko erakundeetako kideak ere gertu egongo dira behar den laguntza eskaintzeko.

**Jende txiroaren alde**

Etxenausiak bidezko merkataritzaren alde laguntza ematera bultzatu nahi ditu debagoiendarrak. Horren harira, honakoa azpimarratu nahi izan du: "Esperientzia interesgarria eta aberasgarria izango dela uste dugu, gure ordu batzuk beharra duen jende txiro eta herrialde txiroei laguntzen ematea".

### HARREMANETAN JARTZEKO

Bidezko merkataritzako Harreman dendan boluntario moduan lan egin nahi dutenek bi bide dituzte Cristina Etxenausiarekin harremanetan jartzeko:

- Harreman.ong@gmail.com
- 605 72 05 31 (Cristina)

# Turismo arloko formazio ikastaroak emango dituzte irailetik abendura

**M.B.** | ARRASATE

Irailetik abendura bitartean turismo arlokoei zuzendutako zortzi formazio ikastaro eskainiko dira. Ikastaro horiek Jaurlaritzako Turismo Sailak antolatutako *Anfitriones* egitarauren barnean daude, eta enpresa eta oporleku turistikoen kalitatea hobetu nahi da turisten nahiak bete daitezen.

Ikastaroak lau ordukoak dira. Irailekoak *Adimen emozionalaz baliatuz zuzentzeko oinarrizko nozioak* eta *Zerbitzu bokazioa duten langileak hautatzeko teknikak* dira; eta urrikoak, *Bezero motak eta hauen jokabidea* eta *Enpresako langileen arteko komunikazio eta zerbitzua hobetzea.*

Informazio gehiago edo izena eman gura dutenek 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakira dei dezakete, edo *turismo@debagoiena.net* helbidera idatzi.

## Jon Altuna lazkaotarra da Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademiko berria

Mondragon Unibertsitateak errektoreorde akademiko berria du; hain justu ere, Jon Altuna. Joan den uztailaren 7an egindako Mondragon Unibertsitateko Errektore Kontseiluaren batzarrean izendatu zuten Altuna.

Jon Altuna lazkaotarra da eta Edinburgon egin zuen doktoretza, Eskozian, 1994 eta 1997. urteen artean, Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoan.

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin
JUAN ZELAIA
XI. Saiakera saria
antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.
Saria: 9.000 €
Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.
Irailaren 30a arte
Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Arauak: www.pamiela.com



# Amaitu dituzte Aramaio eta Arrasate arteko AHTko Etxebarriko zubi-bideko lanak

Gesalibar auzoan dagoen azpiegiturak 307 metro luze eta bost zutarri ditu

**M.B.** | ARAMAIO

Aramaio eta Arrasate artean egiten diharduten Abiadura Handiko Trenaren (AHT) Etxebarriko zubi-bidea amaitu dutela jakinarazi du asteon Adif erakundeak, Espainiako Trenbide Azpiegituren arduradunak. 307 metro luze da eta bost zutarri ditu zubiak. Garaienak, 62 metro; txikienak, 22. Zubi-bideak sei habe ditu.

Esandako tramu osoak 3,3 kilometro ditu. Arrasateko Gesalibar auzoan dagoen Etxebarriko zubi-bideaz gain, A-2620 errepidearen (Arrasate-Aramaio) gainetik doan zubi-bidea, Altxetarriko tunela eta trenak aurrera tu edo geratzeko Aramaioko gunea ere batzen ditu zati horrek. Gipuzkoa eta Araba arteko muga zeharkatzen du.

**54 kilometrotan lanean**

Gasteizetik Bilbora arteko tarte osoak 90,8 kilometro ditu, eta horietatik 54 kilometrotan dihardu lanean gaur egun Adif erakundeak. 90,8 kilometroak hogei tramutan banatu dituzte, eta lanean diharduten 54 kilometroei 13 tramu dagozkie. Horien artean dago amaitu berri duten Arratzu-Ubarrundiatik Legutiora doana; hain justu ere, 5 kilometro luze dena.

**4.539 arbola**

Trenbidearen lanak amaitzean, Aramaio eta Arrasate arteko tramu horretan ingurumen inpaktua murrizteko, 188.615 metro koadrotan birlandatuko dituzte arbustuak, belarra eta bertako 4.539 arbola. Oro har, Gasteiztik Bibora arteko trazatuan 2.433.132 metro koadro birlandatuko direla adierazi du Adifek. Denetara, 118.623 arbola.

Espainiako Trenbide Azpiegituren arduradunak nabarmendu duenez, azpiegitura lan horiek landagune eta gune urbanoetan "ingurumenean eragin dituzten kalteak txikitzen" lagunduko dute ekimen horiek. Besteak beste, errekatxoak errekuperatzeko ahalegina egingo dutela diote.

**5.000 ibilgailu gutxiago**

Bestalde, Eusko Jaurlaritzatik jakinarazi dute egin dituzten aurreikuspenen arabera egunero 5.000 ibilgailu eta 1.100 kamioi kenduko dituztela errepideetatik, eta, ondorioz, 8.100 bidaia-ordu murriztea lortu.

Ikerketa horien arabera, AHTk 425 tona $CO_2$ atmosferara isurtzea saihestuko du, 27.000 litro erregairi dagozkienak. Era berean, sufre oxidoa eta beste osagai kimiko eta organiko batzuk atmosferara isurtzea ere ekidingo du, betiere, Jaurlaritzako iturriek diotenez.

Adifen ardurapekoa da Gasteiz eta Bilbo lotuko dituen trazatua, eta Eusko Jaurlaritzari dagokio Bergara-Irun/Donostia tartea. Azken lan horiek Gipuzkoako Ogasunak Espainiako Estatuari kupo bidez ematen dionetik aurreratuz egiten dihardute. Izan ere, *Euskal Y*-aren lan guztien kostua Madrilgo Gobernuari dagokio.


Gesalibarren dagoen Etxebarriko zubi-bidea. | MIRIAN BITERI



Jasone Mitxeltorena kazetariak auzolanaren inguruko liburua idatzi du. | GOIENA

Jasone Mitxeltorena | Auzolan egitasmoko partaidea

# "Parte-hartzea eta erabakitzeko ahalmena sustatu nahi dugu"

## Auzolan I. topaketa iragarri dute udazkenerako, Usurbilen; 500 lagun inguru batu nahi dituzte

EDU MENDIBIL | BERGARA

Joan den urteko ekainean ekin zioten Usurbil aldean Auzolan egitasmoa sortzeari. Ekonomia krisiari aurre egiteko auzolana bitarteko egokia dela uste dute bultzatzaileek. Debagoieneko zenbait lagun ere badira tartean. Irailaren 30etik urriaren 2ra bitartean Auzolan I. topaketa egingo dute Usurbilen bertan. Jasone Mitxeltorena (Etxalar, Nafarroa) taldeko partaidearekin egin dugu berba.

**Zelan hasi zineten Auzolan egitasmoarekin?**

Auzolanak eta herrigintzak berebiziko garrantzia izan dute herri garapenean, eta, egun, premia are nabariagoa dela uste dugu. Hainbat lagunen ezinegonetik abian jarritako ekimena da gurea, ikusten genuelako gaurko gizarteak gabezia nabariak dituela eta ez dituela pertsonen beharrak asetzen. Elikagaiak gero eta urrunagotik heltzen zaizkigu, elikadura eta energia ereduak ez ditugu geuk aukeratzen... Auzolana horri guztiorri buelta emateko tresna izan daiteke. Herritarren parte-hartzea eta erabakitzeko ahamena sustatu nahi dugu. Buru askitasuna funtsezkoa da; hau da, faktore arrotzekiko menpekotasunik eza.

**Zenbat lagunek diharduzue?**

Hasieratik ari garenak hamar bat lagun izango gara, baina bileretara 30 lagun inguru etortzen dira. Irailaren 10ean izango da hurrengoa, Usurbilgo Artzabal eraikinean, 10:00etan.

**Auzolana berpizteko ekimenak indarra hartzen ari dira berriz leku askotan.**

Euskal Herrian badira ideia horiek batzen dituzten ekimenak, tartean zuzeneko salmenta bultzatzen dutenak. Baina nork bere bide propioa dauka eta, hain zuzen ere, esperientzia horien guztien topagune izan nahi dugu. Aldi berean, esperientzia berriak abian jarri nahi dituztenendako erreferente izan nahi dugu. Herri garapenaren barruan kokatutako egitasmoak erakarri nahi ditugu eta toki bakoitzean halako egitasmoak sustatu, lagundu eta babestu. Edozein modutan, elkarte gisa eratzekotan gabiltza oraindik.

**Debagoieneko elkarterik bada zuekin harremanetan?**

Baliteke. Ehundik gora izen ditugu kontaktuen artean, baina ez dut zuzeneko ezagutzarik. Antxon Mendizabal arrasatearra ere badabil gurekin lanean.

**Auzolan topaketa iragarri duzue.**

Bai, Usurbilen izango da, irailaren 30etik urriaren 2ra. Auzolan egitasmoa ezagutzera emateaz gain, krisi globala, herri garapena edota Kataluniako kooperatiba integralaren esperientzia izango ditugu aztergai. Katalunian bi urtetik hona oso lan interesgarria egin dute eta hor dago, esaterako, tokiko txanpona, hango zenbait eskualdetan ekonomia jardueretarako erabiltzen dutena. Auzolanaren inguruko esperientziak bildu eta hausnarketa bultzatu nahi dugu. Jarduera ezberdinei buruzko batzar irekiak izango dira, tailerrak, tokiko batzarrak landuko dira... *Auzolanaren kultura* liburua orduan aurkeztuko dugu. Hiru egunerako prezioa (otorduak, ostatua eta dutxa barne) 30 euro da. 500 lagun inguru batu nahi ditugu. Argibideak *www.auzolan.info* webgunean dituzue.

> **"Herri garapenaren barruan kokatutako esperientziak erakarri nahi ditugu"**

# Larraitz Ugarte izango da Diputazioko Gobernuaren bozeramailea

## Gobernu Kontseiluak izendatu zuen, martitzeneko bileran

E.M. | ARRASATE

Larraitz Ugarte izendatu dute Gipuzkoako Foru Gobernuko bozeramaile. Martitzenean izan zen izendapena, Gobernu Kontseiluaren bileran, hain zuzen. Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatua ere bada abokatu oñatiarra. Eguaztenean egin zuen Larraitz Ugartek prentsaren aurrean lehen agerraldia, aurrezki kutxen fusioa dela-eta.

Larraitz Ugarte (Oñati, 1976) zuzenbidean doktorea da, kriminologian goi diplomaduna eta soziologia juridikoan masterra dauka. Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle jardun du, Zuzenbide Fakultatean, eta baita Donostiako Enpresa Zientzien Unibertsitate eskolan ere. Goienako ohiko kolaboratzailea izan dugu urtetan, iritzi artikuluak idazten eta Goiena telebistako *Tertulia* saioan solaskide.

**Irisgarritasuna lantzen**

Esan bezala, Martin Garitano bergararrak gidatutako gobernuan Mugikortasun eta Bide Azpiegiturako diputatu izendatu zuten joan den uztailaren 1an. Irisgarritasunaren alorrean lan egingo du Ugartek nagusiki: "Ardura handiz lan egiteko gogoz nago eta ikusirik niregan konfiantza guztia jarri dutela, gogotsu nago erronka berriari aurre egiteko. Irisgarritasun alorrean lan egingo dut eta egingo dudan lehenengo lanetako bat autobidearen egoera hobetzea izango da. Prezioa garestiegia dela uste dut eta hori aztertzen hasiko gara lehenbizi".



Larraitz Ugarte. | GOIENA

Bada, Ander Rodriguez arrasatearra ere Diputazioko Gobernuan dago. Gizarte Politikarako Departamentua zuzenduko du hark.

### Ainhoa Galdos eta Rafaela Romero, batzordeburuak

Bildu, EAJ, PSE-EE eta Aralarren aldeko botoekin eta PPren abstentzioarekin Gipuzkoako Batzar Nagusietako 13 batzordeak osatu zituzten martitzenean. Euskararen Normalizaziorako Politika Ainhoa Galdos oñatiarrak (EAJ) zuzenduko du eta Rafaela Romero arrasatearra (PSE-EE) izango da Berdintasun eta Giza Eskubideen Politikak izeneko batzordea gidatuko duena. Bilduk bost batzordetako lehendakaritza izango du, EAJk hiru izango ditu eta, azkenik, PSE-EEk bi. Barne funtzio- namenduko beste hiru batzordeak ere Bilduren esku geratuko dira. Banaketa horrek akordio bat izan zuen oinarri, eta, horregatik, ez zen aurkako botorik izan, nahiz eta PP abstenitu egin zen. Aralarrek eta PPk dute batzorderik zuzenduko.

Rafaela Romero arrasatearra PSE-EEren ahaldun nagusigaia izan zen ekainean, Miguel Buen zerrendaburuak uko egin ostean. Zuzenbidean lizentziaduna, zinegotzi izana da Arrasaten eta azken agintaldian Batzar Nagusietako presidente jardun du. Ainhoa Galdos bigarren tokian joan zen Oñatiko EAJko zerrendan udal hauteskundeetan eta Batzar Nagusietarako EAJren hautagaia zen Deba-Urola barrutitik.



Ainhoa Galdos. | GOIENA



Rafaela Romero. | GOIENA

Karrozeria azkarra:
Kalte txikietan adituak
SPRAYTEC




Malgutasun osoa!
Ordutegi jarraitua, 8:00-19:00
Larunbatak, 10:00-13:00
Ordezko autoa

Aprobetxatu oporrak autoa txukuntzeko!
Abuztuan, lehenengo astea zabalik eta baita 22tik aurrera ere.

San Lorentzo Ind., Santalaitz 6 ,
20570 Bergara
Tel. 676884310,
spraytec@spraytec.es,
www.spraytec.es

## ZABALIK

**RUFINA OLASAGASTI**
'http://goiena.net/iritzia/'



# Krisiak badu irteera duina

Azken hilabetean langabezian daudenak zerbait gutxitu badira ere, egunero jasotzen dugu lanposturik gabe gelditu direnen eta langileak botatzeko espedienteen berri. Adibidez, Euskaltelerako lan egiten duen *Bai esan*-ek 113 langile botatzeko egin duena edo Bergarako Tavex-ek 64 langileri eragingo dion Elorregiko tailerra ixteko hartutako erabakia.

Agintariak ahulena babestu ordez alderantzizkoa ari dira egiten. Finantza erakundeei izugarrizko dirutza publikoak transferitu dizkiete eta erakunde horiek eskatutako neurriak aplikatzen dituzte, hauek jendearengan dituzten ondorioak mesprezatuz: langabezia igo, laneko baldintzak okertu, osasun sisteman murrizketak egin, pentsioak jaitsi, gizarte laguntzak gutxitu… Murrizketok ezinbesteko balira bezala saltzen dizkigute. Krisia gainditzeko derrigorrezkoak direla sinestarazi nahi digute. Greziari onarrarazi egin dizkiote eta Portugal, Frantzia, Espainia edo Euskal Autonomia Elkarteko gobernuak ere bide beretik doaz hauen aplikazioan.

> **"Indarrak batu eta maila guztietan antolatu behar dugu"**

Neurri horiek gutxi batzuen bidegabeko irabaziak soldatapeko guztien bizkar ziurtatzea bilatzen dute, baina helburuak euskal gizarte duinagoa lortzea behar du izan, eta alternatibak badaude. Batetik, euskal gehiengo sindikalak (ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU) planteatutako Dekalogo Soziala dago, berehala har daitezkeen 10 neurri praktiko. Bestetik, badugu eskarmentua Euskal Herrian egoera zailetan aurrera egiten: ikastolen mugimendua, euskaldunon elkarteak, bertsozale elkartea, erakunde eta alderdietatik independentea den sindikalgintza autonomoa, EHLG-Euskal Herriko Laborantza Ganbera eta eguneroko hainbat proiektu dira horren adibide. Bide honetan aurrera egiteko finantza erakundeen, alderdi politikoen eta hedabideen (espekulatzaileen eta hauen erreminten) engainutik libratu behar dugu, eta gure indarrak batuz maila guztietan antolatu. Honela egingo dugu krisiari irteera duina aurkitzeko modua.

## USTEAK USTE

**JOKIN BEREZIARTUA** | 'jbereziartua@goiena.com'

# Eta eskerrak amaitu direla...

Datorren urtera arte agurtu dira sanferminak. Kaosetik kosmoserako bidaia hasi besterik ez da egin, baina dagoeneko beste hiri bat da Iruñea, hilaren 7tik atzora arte mundu osoko festazaleen topagune izan ostean. Hamaika dira sanferminetako argazkiak; niri bat geratu zitzaidan erretinan: kale garbitzaileak –zorionak! Hori da hori lan egitea!– mamu harraparien paperean eta *gaupaseroak* mamu zitalak balira bezala. 1980ko hamarkadako *Ghostbuster* pelikularen azkena zirudien, baina zientzia fikzioa errealitate bihurtuta. Bada, filmean antzera, harrapariak irten ziren garaile. Galdetu, bestela, edozein izkinatan *hilda* geratu ziren mamuei. Eskerrak amaitu direla...

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | 'http://goiena.net/iritzia/'




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Begi gupidatsuak

**Pello Zabala**
http://berria.info/blogak/pellozabala/

Esateko errezago, esan duguna sakon pentsatzeko, asmoetara makurtzeko eta ekintzetara errenditzeko baino.

Proiektu estrategikoaren atari eta lehenengo mailatarako puntu dotorea, hori bai.

Ez da broma, ez; errazkeriaz solasean abiatu eta jardutea, bai, pase.

Baina pobrezia hitz serioegia iruditzen zaigu.

Bueno, barka: pobrezia bera ez horrenbeste.

Nik uste dut ikasi dugula nolatsu jardun pobrezia gora ta behera, izpiritualitate zoriontasunetakoa ere goraipatuz, "zorionekoak espirituz pobreak"... hainbestetan hotsegin ta entzun dugu eta!

Begirunez eta, puxka bat hurbiltzen saia orduko, pobreziaz ez baino, pobrezietaz, hainbat eta hainbesteko pobrezietaz jarduteak estutzen gaitu eta, begiak umelduz, lotsatzen ere bai…

Gabezietaz, zaurietaz, baztertuetaz… hitzak ez baino begirada leun gupidazkoa behar da, laguntzera garamatzakena.

Horren ondoan, badugu arriskurik pobrezia goraipatzeko eta "zelofan paper-de-platan" tentuz gordetzeko. Halatsu bota zigun Mario Benedettik: "Os presto unas pobrezas limpias, nuevecitas y bien desinfectadas".

Horregatik 'batere arrotzak ez zaizkigun' kostatazio hori ondo kokatua dago hasieratik bertatik, baina segidako 'pobreziari, bazterketari eta langabeziari aurre egitea', eta albotik pasatzeko tentazioan ez jaustea, aldiz, makurtu aldamenean eta konpañia eginez, laguntzea, beharra arintzea, pertsona bera edo familia aidatzea… honek denak askotxo eskatzen digu, bai politikoei, bai eliztarroi ta bai herritar guztioi ere.

Bakoitzak bere tamainan eta bere toki eta kokagunetik, erantzun zindo bat zor diogu askotxoren egoera hain larriari.

Konturatzetik, ohartzetik, jabetzetik hasi eta, ea axolaz hartu eta saiatzera iristen garen...

# Jeloskor

**Anjel Lertxundi Esnal**
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Txikia da, ez du balio artistiko handirik, baina estimutan daukat eta, urteari urte, logela batean gerta eta egin daitezkeen guztien lekuko isila izaten utzi diot.

Orain aste bete, ordea, motibo jakinik gabe –kapritxo hutsez, alegia– logelatik egongelara eraman nuen. Ordutik, beste modu batean islatzen nau, beste modu batean ikusten dut neure burua bertan. Ni nau logelakoa, ni naiz egongelakoa ere. Baina berarentzat, zerbait aldatu da, eta irudipena dut ez dela gelaren dekorazioa bakarrik izan. Deseroso dagoela esango nuke, traizionatua sentitzen dela, konfiantza ukatu banio bezalako sentimendu batekin begiratzen baitit orain.

Irakurtzen hasten naizenean, ezin naiz kontzentratu, ezin dut telebista ikusi edo musika entzun, eta badakit laster iritsiko dela berriro logelan zintzilikatzeko unea. Baina, bitartean, sufri dezala pixka bat. Ispilu batek jakin behar luke jeloskortasuna gainditzen.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

## La Caixako alokairuak direla eta

**Maite Aperribay**
Arrasate

2009ko ekainean La Caixako etxe bat tokatu zitzaidan alokairuan, eta garai hartan berri ona iruditu zitzaidan. 340 euro ordaintzen genituen hilero (260 euro etxebizitza eta aparkalekurako eta 80 euro komunitate-gastuei aurre egiteko). Urteko (urte natural) gastuen likidazioa hurrengo urteko lehen seihilekoan burutzen zuten, eta horrela, 2010eko ekainean, 291,78 euro bueltatu zizkidaten (Jabetza Horizontalaren Legean oinarrituz).

2010eko ekainean alokairu kontratua berritzeari uko egin nion.

Orduan Bartzelonako *Vivienda Asequible*-ko departamentuaz kontaktuan jarri nintzen eta jakinarazi zidaten 2010eko lehen seihilekoaren likidazioa 2011ko ekainean egingo zidatela, eta La Caixako aurrezki-libreta irekita mantendu behar nuela, ez baitzuten beste edozein banketxetako kontu-korronteetan likidazioaren itzulpenik burutuko.

Nire dirua bueltan izateko urtebete itxaron beharra!

Eta kontratua amaitutzat emateko uko-egite dokumentu bat sinatu behar izan nuen.

Sorpresa orain jaso dut, baina, 2011ko ekainean.

Likidazioaren itzulpenaren zain nengoen, eta aurrezki-libretan ezarpenik ez neukala ikusita berriz ere Bartzelonara deitu nuen.

Esan beharra daukat, gainera, telefonoz oso harrera txarra izan dudala: lanpetuta daudela, eurek deituko didatela… baina beti ni atzetik.

Halako batean ematen didaten erantzunak harrituta utzi ninduen: dirudienez, iaz sinatu nuen uko-egite dokumentuak dio dokumentu hori sinatzen den momentuan kontratu-erlazioa bukatutzat ematen dela, eta kontratugileek ezin diotela batak besteari ezer exijitu.

Beraz, uko-egite dokumentua sinatu ezean kontratuak indarrean jarraitzen du, eta uko-egitea sinatuz, agur dagozkidan likidazioei!

Ba, iazko datuak kontuan izanda, La Caixak 300 bat euro sor dizkidala iruditzen zait niri.

La Caixako etxeetan bizi edo biziko den edonork berdina pairatuko duela jakiteko eskubidea du.

Ederra Gizarte-Ekintza!

## Geltokiko bolumena

**Mikel Errasti**
Aretxabaleta

Uztailaren 12an, 06:30ean, lanera joan aurretik etxeko balkoira irten eta sorpresa handia hartu nuen.

Lausitta kalean berriki jarritako geltoki ultramodernoa geltokien ordutegia bolumen ikaragarrian ari zen esaka jo eta su.

Eta geltoki barruan inor ere ez zegoen.

Zorionez, nire logelak beste aldera ematen du eta, beraz, ez nau larregi arduratzen.

Baina seguru nago inguruko etxeetako jabeen artean norbaitek antzemango duela zarata hau bere logelatik.

Abantailak sor ditzakeen aurrerapen teknologikoen aurka ez nago, baina zentzu apur bat edukitzea ere beharrezkoa dela uste dut.

Ea hau idatzi eta hemendik gutxira konpondu eta garrantzi gabeko anekdota bihurtzen den.

Oharra: norbaitek esan dezake, "hau tontakeria!".

Baina seguru nago halako orduetan gaztetxo batzuek geltokiko bolumenaren pareko musika jarriz gero, norbaitek ertzainei deituko liekeela.

## Jangelak

**Juan Carlos Gomez**
(Pausoka guraso elkartearen izenean)
Antzuola

Haurtzaroa bizitzaren oinarriak finkatzeko garaia dugu eta elikadurak, beste hainbat jarrerarekin batera, garrantzi handia dauka.

Gure iritziz, kalitate hobeko elikagaiak janez, etorkizuneko osasuna bermatzen da.

Gero eta entzunago ditugu jangela ekologikoak, bertako ekoizpenak… eta horixe da, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen dioguna.

Apustu serioa egin dezala eskoletako haurren elikaduraren kalitatearen alde eta, gutxienez, bertako produktuak, herrian edo inguruan ekoizten direnak (fruta, berdura, arraina, okela…) erabiltzen has daitezela beraiek kontratatuta dauzkaten enpresek.

Antzuolan gai honen gainean bai Pausokak (Guraso Elkartea), gurasoek, irakasleek… bat egiten dugu.

Antzuolako eskolan gurasoen 40 sinadura jaso ditugu azaldutako proposamenari babesa emanez.

Guraso elkarte moduan pentsatzen dugu gai oso interesgarria eta mamitsua dela eta atsegingo litzaiguke oihartzuna izan dezan.

Horretarako, iruditzen zaigu inguruko eskola, guraso, guraso elkarteek… hausnarketa sakona egin beharko luketela eta ados dauden guztiek babesa eman.

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

TWITTER
kontu bana, herri eta gai bakoitzeko
Egin zaitez jarraitzaile!

Goiena Komunikazio Taldea: @goiena.
Kontu horretan Goienaren inguruko berriak, telebistako programazioa, azken ordukoak… jasoko dituzu.

HERRIAK
Antzuola: @antzuolagoiena
Aramaio: @aramaiogoiena
Aretxabaleta: @aretxagoiena
Arrasate: @arrasategoiena
Bergara: @bergaragoiena
Elgeta: @elgetagoiena
Eskoriatza: @eskogoiena
Oñati: @oinatigoiena

GAIAK
Ekonomia: @ekonomiagoiena
Hezkuntza: @hezkuntzagoiena
Kirolak: @kirolakgoiena
Kultura: @kulturagoiena
Osasuna: @osasunagoiena
Teknologia berriak: @teknonetgoiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
goiena

**Bixente Atxa** | Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria

# "Gaur egungo injineruek ingelesa eta maleta bat beharko dituzte beti mundura zabaltzeko"

- Bai orain eta hemendik 20 urtera injineruak beharko direla dio Bixente Atxak
- Hala ere, dio injineru izateko bokazioa galdu egin dela, medikuntzaren alde, esaterako

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Injineruak aldarrikatzen ditu Bixente Atxa (Oñati, 1966) Goi Eskola Politeknikoko zuzendariak, etorkizunean jendarteak "injineruak beharko dituelako".

**Hainbat berrikuntza dituzue datorren ikasturterako; besteak beste, master berriak, ezta?**

Bai, Goi Eskola Politeknikoan lau dira. Batetik, Energia eta Potentzia Elektronikoa, oso bideratuta energia arazoei aurre egingo dieten teknikari espezialistak heztera. Beste master bat da Sistema Txertatuak, informatika, telekomunikazioa eta elektronika nahasten dituena. Gaur egungo produktu edo gailu ia gehienek integratzen dituzte osagai horiek. Hirugarren masterra da Enpresa Berrikuntza eta Proiektuen Zuzendaria. Ekonomia berrian, mundu globalizatu honetan, geroago eta garrantzitsuagoa da azkar garatzea norberaren produktuak. Laugarren masterra da Injinerutza Industriala. Hauek guztiak berriak dira. Eta bada bosgarren master bat, iaz abiatu genuena: Diseinu Estrategikoa. Injinerutzaren ikuspuntutik, sormena, eko-berrikuntza, eko-diseinua e.a. lantzen ditu honek.

**Europako unibertsitate eredura egokitzen lehenengoetako unibertsitatea izan zen MU. Zelan joan da hiru urteotako prozesua?**

Guretako ez da horren zaila izan, Mendeberri proiektuarekin hasi ginelako duela 10 urte. Eta hezkuntza proiektu hura egokitzen zen Europako unibertsitate eredu berrira.

**Ikasleak eta irakasleak zelan egokitu dira?**

Ikasleak ondo, gazteak malguagoak direlako. Zailagoa izan da irakasleondako. Lehengo hezkuntza sistemarekin ohituagoak gaudenez, beti da zailagoa aldaketara egokitzea. Baina, oro har, ondo.

**Ze onura dakartza unibertsitate eredu berriak?**

Garrantzitsuena da ikaslea dela erdigunea. Orain arte, unibertsitateetan ikaslea zegoen gela handi baten, entzuten, irakasleak botatako diskurtsoa, ikasgaiak, entzuten; modu pasiboan. Orain, ostera, ikaslea subjektu aktiboa da eta ez du egon behar bost ordu entzuten, baizik eta bost ordu ekimenetan. Motibazioa sortu eta ikasteko grina bultzatu behar zaio ikasleari.

**Zelan egin hori?**

Eguneroko lana sustatuz. Itxoin barik azkeneko ebaluaziora jakiteko ikasleak zenbat dakien edo zenbat ikasi duen. Eguneroko jarduna ebaluatu behar da, unean unekoa, praktika bidez. Proiektuak garatuz.

**Goi Eskola Politeknikoak esku artean duen erronka nagusia zein da?**

Duela 70 urte geneukan berdina: jendartearen eraldaketa. Eta jendarteari zelan lagundu eraldaketa egin dezan. Ahaleginak egiten ditugu hurrengo urteetan jendarteak beharko dituen pertsona edo lanbide profila topatzen eta hezten. Gure kasuan, injineruak. Gure ekonomiaren oinarria industria da eta hurrengo urteotan ere enpresek eta jendarteak, oro har, injineruak beharko dituzte.

**Gaur egungo euskal unibertsitateek, euskal hezkuntzak, erantzuten diete jendarteak dituen erronkei?**

Uste dut baietz. Baina egia da unibertsitatea urte askotan jendartetik urrun egon dela edo bi mundu ezberdin izan direla unibertsitatea eta jendarte zabala. Uste dut unibertsitateak jendartearekin, hau da, enpresarekin edota erakundeekin, lotura handiagoa izan behar duela. Asko daukagu hobetzeko. Unibertsitatea ez da izan oso malgua. Jendartea eta gazteak asko aldatu dira. Ikasteko moduak aldatu dira.... eta, oro har, unibertsitatea geratu da lehengo irakasteko moduarekin. Hori aldatu egin behar da derrigorrez. Gazteak, hauen motibazioak eta teknologiak asko aldatu direlako azkeneko 30 urteotan.

**Ze aurreikuspenekin irteten dira injineruak Goi Eskola Politeknikotik?**

Enpresa gehienak hasi dira krisitik ateratzen eta uste dut guretik ateratzen diren ikasle injineruek lortuko dutela lana. Hala ere, ingelesa eta maleta bat beharko dituzte beti. Mundura zabaltzeko prest egon beharko dute; hemen eta han lan egiteko prest. Gure enpresek kanpora joan behar dute eta beste herrialde batzuetan ere enpresak sortu, baina, betiere, hemen sortzen jarraitzeko. Oreka behar dugu.

**Zenbat ikasle dituzue Goi Eskola Politeknikoan?**

1.500, gutxi gorabehera. Eta horien artean, 100 bat doktore ikasketak egiten eta beste 300 ikasle, goi mailako heziketa zikloan.

**Ze espezialitate da gehien eskatzen dena?**

Mekanika da adarrik arrakastatsuena oraindik ere. Gure inguruko enpresak ikusita, hori normala da. Baina diseinuan, elektronikan, telekomunikazioan… gero eta gehiago dira.

**Injineru izateko bokazioa txikitu egin da azkeneko urteotan?**

Bai, zalantzarik barik. Gaur egun, Medikuntza edo irakasle izateko ikasketak dira eskatuenak. Europan eta Ameriketako Estatu Batuetan gertatu da hori. Injinerutzari buruz berba egiten dugunean, akaso, industriarekin eta industria kutsadurarekin lotzen dute gazteek. Hortik etor daiteke gero eta injinerutza ikasketa gutxiago egotearen arrazoia. Zaila izatearen ospea ere badu, baina ez da guztiz egia, Medikuntza, esaterako, zailagoa delako.

**Zelan egin erakargarri Injinerutza?**

Injinerutzaren alde positiboak nabarmenduz. Datozen urteotako erronkei eutsiz. Esaterako, energiaren, erregaien edo argindarraren arazoa konpontzeko, injineruak behar ditugu. Energia berriak sortzeko injineruak behar ditugu; Medikuntzako gailu guztiak injineruek diseinatu edo sortzen dituzte… Injinerutza beharrezkoa da gure bizitza hobetzeko, ekoproduktuak sortzeko, energiaren arazoak konpontzeko…

**Alemanian ez ezik gurean ere injineruak falta dira, ezta?**

Bai. Egia da krisi handia jasan dugula eta horrek eskaria txikitu egin duela. Baina krisitik irteten hasi diren enpresak hasi dira esaten injineruak behar dituztela. Hortaz, etorkizunean, hemendik 20 urtera, jendartearen arazoa izango da injinerurik eza.

**Goi Eskola Poliketnikoak zentro berria inauguratu zuen iaz, orain dela urtebete inguru. Zer moduz?**

Ondo. Informatikako ikasketekin eta ikertzaileekin hasi ginen irailean. Eta aurten telekomunikazioko karrerak hasiko ditugu bertan. Datorren urtean, Telekomunikazioak, Informatika eta haien ikerketa taldeak ariko dira.

**Ze mailatan dago gure eskualdea eta Euskal Herria, oro har, ikerkuntza alorrari dagokionez?**

Ondo. MU, bereziki, bere ikerketa ereduan, elkarlanekoan, erreferente da. MUren ikerketaren emaitzak jendartera itzultzea da gure helburua. Eta, hori, kanpoan azaltzen dugunean, eredu moduan jartzen gaituzte. Arrakasta kasu moduan aurkezten gaituzte.

**MUko Informatika Ingeniaritzako 3. graduko hiru ikasle New Yorken dira oraingo egunotan, Imagine Cup lehiaketan...**

Ustekabe atsegina izan da. Lehen aldiz aurkeztu eta aurrera egin dute. Energia gutxiago kontsumitzeko proiektu batean lanean jardun dute. Ingelesa behar dute eta badute; maleta ere bai, kanpora joateko, baina lana eta ikerketa hemen dabiltza egiten.



Bixente Atxa, Goienaren egoitzan, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

> "Samur egokitu gara Europako unibertsitate eredura"

> "Gaur helburua eta duela 70 urte bera da: jendartearen eraldaketa"

> "Ikaslea da erdigunea eta hura da subjektu aktiboa"

> "Unibertsitatea, urte askotan, jendartetik urrun egon da"

# Eko kanpina: ohikotik haratago doan ametsa

**Arbizu kanpinak aurten zabaldu ditu ateak eta denetariko eskaintzak ditu, baita formazio ikastaroak ere**



**Kanpinak taberna, supermerkatua eta parkea ditu eta, oraingoz, 552 pertsonarendako lekua du.** | ARBIZU EKO KANPINA

Kanpin-denda eta autokarabanendako 72 partzela, hamazortzi etxetxo bioklimatiko, igerileku naturalizatua, produktu ekologikoz osatutako supermerkatua, taberna... Hori guztia eta gehiago biltzen ditu Arbizu eko kanpinak. Oraingoz 552 pertsonarendako lekua badu ere, lanak guztiz amaitzen dituztenean mila pertsona hartzeko moduan izango da kanpina. Bioeraikuntza irizpideekin eraikitako kanpina da eta energia berriztagarriak baliatzen ditu. Inguruotan existitzen diren kanpinen artean bakarra da irizpide horiekin egin dena, baina kanpina hori baino gehiago da. Lau lagunen ametsa da.

**PROZESU OSOA**

Lukas Petriati, Jesus Mari Reparaz, Imanol Erauskin eta Aitor Karasatorre dira kanpinaren gurasoak, nolabait esateko. "Bazkideetako bik kanpin bat eraiki nahi zuten eta beste bik bioeraikuntzaren eta energia berriztagarrien inguruan zerbait egin nahi genuen. Bi egitasmoak elkartu eta Arzibu eko kanpina sortu genuen", azaldu du Karasatorrek. Urte askoko lana izan dela diote. "2007an hasi ginen proiektua gorpuzten eta baimenak eskatzen. Prozesua administratiboa eta korapilatsua izan da". Dena esku artean zutela, 2009an eraikitzen hasi ziren eta orain, 2011n, lehenengo fasea amaitu dute eta ateak zabaldu dituzte.

Kanpinak dituen eraikin guztiak bioklimatikoak dira eta hegoaldera begira daude. Isolamendua kotoi birziklatuz eginda dago. Portxea dute eta eguzki plakak jartzeko aukera ere badute. Horretaz gain, partzela guztietan argindarra, ura eta hustubideak dituzte. Bide beretik, zerbitzu eraikin guztiak ahotzez edo lastoz eginak daude eta biomasa erabiltzen duen galdara baten bidez berotzen dira eta galdarak erregai gisa oliba-hezurrak erabiltzen ditu gaur egun.

Erronka berri horri ekiteko dagoeneko jende fidela dutela dio Karasatorrek. "Alokairu eskaintza ugari jaso ditugu".

**Kanpineko eraikin guztiak bioklimatikoak dira**

**Kanpinean formazio ikastaroak ere eskaintzen dira**



**Etxebizitza modulu bioklimatikoak kotoi birziklatuz isolatuta daude.** |

**FORMAZIOA ERE BAI**

Horrekin guztiarekin, eko kanpina kanpin soil bat baino gehiago dela dio Karasatorrek. Izan ere, kanpin baten zerbitzua eskaintzeaz gain, prestakuntza, hots, formazioa ere eskaintzen dute. "Orain arte bi ikastaro eman ditugu: labe finlandiarren gainekoa bata eta baratze ekologikoei buruzkoa bestea".

Bide horretatik, irailerako beste ikastaro bat prestatzen dabiltzala dio eta horretan, oraingoz, Europa osoko hamazortzi lagunek eman dute izena. Hala eta guztiz ere, ikastaro gehienak neguan eskainiko dituzte.



## DUELA 10 URTE

2001-07-15

### Arantzazuren milurte erdia

1468ko ekainaren 11n, San Bernabe egunean, artzain batek sasi artean Ama Birjinaren irudia topatu zuen, eta santutegia eraikitzeko erabakia hartu zuten Arantzazuko bizilagunek. 1501ean, Alejandro VI.a aita santuak baimena eman zien frantziskotarrei han bizi izateko. Data hura kontuan hartuta bosgarren mendeurreneko ospakizunak egin zituzten Arantzazun 2001ean. Askotariko ekitaldiak antolatu zituzten.



Bosgarren mendeurreneko aurkezpena. | ARTXIBOA

2001-07-15

### Elgetako EH, Gobernutik kanpo

Elgetako EAJk Gobernu batzordetik kanpo utzi zuen EH urte hartan. Baserritarren batzordearekin eta Kultura, Euskara eta Turismo batzordearekin jarraitzeko aukera eman zion EAJk ezker abertzaleari. Aurrekontuak onartzeko orduan sortu ziren liskarrak bi alderdien artean. EAJk zioen EHk "oposizioko lana" egiten ziharduela, gobernukide lanak baino gehiago. EHk ez zituen urte hartako aurrekontuak onartu.

## DUELA 5 URTE

2006-07-14

### Saharako umeak gurean

Bubisher, Nubi, eta Iesbaa elkarteen bidez 22 neska-mutiko etorri ziren 2006ko udan gurera. Antzuolan, Arrasaten eta Oñatin egon ziren umeak.

Bestalde, Banoia Txernobilekin elkarteak Ukrainako sei ume ekarri zituen Debagoienera: bost Oñatiko familiatan egon ziren eta seigarrena, Bergaran.

## HERRITARRAK

OÑATI

**Txaro Junco** Zubikoako harreran egon da kiroldegiak dituen 27 urteotan. Osasunak aholkatuta erretiro aurreratua hartuko du abuztuaren 31n; negar "asko" egingo duela dio | MIREIA BIKUÑA

# "Lankide bikainak izan ditut; eskerrik asko, eurei, emandako guztiagatik"

Abuztuaren 31n erretiro aurreratua hartuko du Txaro Junco (Oñati, 1947). Zubikoa kiroldegiko aurpegietako bat izan da. Kirolari askorendako, "bigarren ama" bat. Askok haren hutsunea igarriko dute. "Beste askok ez", dio. Txarok, baina, gehienbat, lankideen hutsunea igarriko du. Harekin egin dugu berba, erretiro aurreratua hartzen duenean egingo dituen gauzen gainean; besteak beste, amama papera beteko du.

**27 urte kiroldegiko harreran egon ondoren, erretiroa hartzeko unea dela erabaki duzu. Zergatik?**

Irailaren 5ean 64 urte beteko ditut, eta erretiro aurreratua hartuko dut. Arrazoia bakarra da: osasuna. Negu gogorra pasa dut, eta hausnartzeko denbora hartu dut. Seme-alabei galdetu barik, erabaki nuen bizitzaz gozatu behar nuela. "Bizitza laburregia da" esatea topikoa da, baina egia borobila da. Orain, disfrutatzeko denbora hartuko dut.

**Zer esan dizute seme-alabek?**

Ez bakarrik seme-alabek, guztiek esan didate erabaki egokia dela. Abuztuaren 31 izango da azken eguna, eta irailaren 1etik aurrera beste plan batzuk egiteko unea izango da: ordutegi barik, lasai bizi izango naiz.

**Eta plan horien artean, amama izateko asmotan zabiltza.**

Bai, hala da. %100 amama izango naiz. Bi biloba txiki ditut, eta, osasunarekin arazoak izan ditudanean, eurek eman didate indarra aurrera egiteko. Ez daukat inongo arazorik amama papera egiteko.

**Aurpegi ezaguna zara kiroldegiko erabiltzaileendako. 27 urte, urte asko dira.**

Uf, asko. Kiroldegira datozen asko eta asko nirekin batera hazi dira. Txiki-txikitatik hasi ziren, eta orain guraso dira.

Ikastetxeetako irakasleak, Aloña Mendiko ordezkariak, kirola egitera etorri diren herritarrak... Guztiak zenbatzea ezinezkoa da. Horietako askoren hutsunea igarriko dut.

**Publikoaren aurrean lan egiteak gauza onak eta txarrak ditu?**

Bai. Onak asko. Lehen aipatu ditudanak: pertsona askorekin hartu-emana, adiskidetasuna... Baina txarrak ere bai. Badakit ez naizela guztion gustukoa izan, eta batzuk poztu egingo direla erretiro aurreratua hartzen dudala jakiten dutenean. Azken finean, harreragilea naiz, baina zaindari papera ere egin izan dut, eta horrek errieta bat baino gehiago egitea ekarri dit.


Txaro Junco, kiroldegi sarrerako tornuetan. | MIREIA BIKUÑA

> **"Osasun arazoen ondorioz hartu dut erabakia: bizitza laburregia da"**

> **"65 urte bete ondoren, Italiara, Erromara egingo dut bidaia"**

**Abuztuaren 31n negar egingo duzu?**

Bai, asko. Gogoa badaukat, baina lankideak agurtzen ditudanean pena handia izango dut. Lankide bikainak izan ditut. Oso ondo portatu dira nirekin. Lerro hauen bidez, nire eskerrik beroenak eurendako.

**Kiroldegiak bilakaera izugarria izan du 27 urteotan. Zuk ere bai?**

Egia esan, bai. Zubikoan garbitzaile moduan hasi nintzen. Ondoren, harrerara pasa ninduten. Bilakaera itzela izan da. Gogoan daukat hasierako urteetan igerilekura etortzen zirenen arropak eskuz gordetzen genituela arropategian. Beste bitxikeria bat: orain, tornuak ditugu kantxara edo igerilekura sartzeko. Hasieran, eskuz zabaltzen genuen atea.

Eta zer esango dizut teknologia berrian gainean? Gogorra izan zen ordenagailura moldatzea.

**Euskaraz ondo moldatzen zara.**

Saiatu naiz euskara ikasten eta euskara erabiltzen. Erabiltzaileekin elkarrizketan egiteko ondo moldatzen naiz. Zailena, niretako, zenbakiak ondo esatea da.

**Zubikoan harreran eta Argentinako Elkartasun taldean herritarren ekarpenak antolatzen.**

Hala da. Eguaztenetan eta eguenetan egoten naiz Bidebarrietako lokalean Argentinako materiala kaxatan antolatzen. Bestalde, Misio Taldeko kide naiz, eta Bidaurretako elizkizunetako irakurleetako bat naiz. Ez daukat aspertzeko aukerarik.

**Behin erretiro aurreratua hartuta, zein da bete gura duzun ametsa?**

Bidaia bat daukat buruan, baina erretiroa hartzen dudanean, 65 urte bete ondoren egingo dut. Nire ametsa da Erromara bidaia egitea. Osasuntsu banago, behintzat, 2012ko irailean-edo joango naiz Italiara.

### NIRE HERRIAN

**:) ASKO ALDATU DEN HERRIA**

Kiroldegia eta biok elkarrekin hazi gara, eta Oñatik ere bilakaera izugarria izan du. Herri dotorea da, erosoa. Gainera, Zapateroren Gobernuak emandako diruarekin beharrezko lanak egin dituzte: kanposantuko bidea, Bidaurretako bidegorria, Errekaldeko eta postetxe aurreko lanak...

**:( KOMUN PUBLIKO GUTXIEGI DAUDE**

Komun publiko gutxiegi daude. Bakar-bakarrik Udaltzaingoaren ondokoak eta postetxeko geltokikoak. Herritar asko etorri dira kiroldegiko komunak erabiltzera. Guk daukagun agindauk dio bazkide ez direnek ezin dituztela kiroldegiko komunak erabili. Askotan, baina, adindunak datoz, eta haiei ezetz esatea zaila da.

HERRIAK

ANTZUOLA

# Sanjuanetan egindako elizkizunaren ondoren, Uzarraga hesitu egin dute

▸ Barandak jarri dituzte, behin-behingoz, eraikin multzoko leihoak eta ateak hormatu arte

▸ Hasi dira eliza husten; sagrarioa eta gurutzea Antzuolako elizara eroan dituzte

MIRIAN BITERI | ANTZUOLA

Antzuolan Uzarragako elizate barik geratu dira. Sanjuanetan egin zuten hango elizan azken meza. Erortzeko arriskua dela -eta, Gipuzkoako elizate zaharrenetarikoko eraikin guztiak ixtea erabaki du Donostiako Elizbarrutiak, eta dagoeneko debekatuta dago hara sartzea. Sarreretan jarritako baranda horiek agerian uzten dute Elizbarrutiaren debekua.

Uzarragako Andoni Azkaratek azaldu digu barandak behin-behinekoak direla, eta asmoa dela eraikinak hormatzea, inor sar ez dadin. Horrekin batera, jakinarazi digu dagoeneko hasi direla eliza barruan dauden gauzak ateratzen. Gehiena herriko elizara eroateko asmoa dute. Balioa duten sagrarioa, abadeen lehengo eta oraingo arropak eta marfilezko Kristoa, esaterako, Errukizko Amaren elizara jaitsi dira. Azken hori XVII. mendekoa da, eta Mexikotik ekarria da.

Gehiena kalera eroango bada ere, inguruko auzoetako elizateetara ere iritsiko da zerbait; hain justu ere, San Martzial eta Santa Agedara. Azken horrek, esaterako, Uzarragako egurrezko bankuak hartuko ditu laster.

**Erretaula baliotsua**

Bankuez gain, erretaulak ere Uzarragan dihardu oraindik. Azkaratek horren balioa nabarmendu du. Honakoa esan digu: "XVII. mendekoa da, Antxietaren eskolakoa. Kaleko elizara eroateko proiektua dago, alboko aldarean jartzeko". Horretaz gainera, San Sebastianen eta Errosarioko Ama Birjinaren irudien balioa ere aztertuko dute elizbarrutiko teknikariek eta jarraian, Uzarragatik aterako dituzte.

**Hilerrirako bide berria**

Dena dela, lanak ez dira eraikinak husterakoan amaituko. Hilerria eraikin multzoaren barruan dago, eta hori bisitatu gura duenak barrutik sartu behar du egun. Azkaratek azaldu du kanpotik, plazatxotik, bide berria egin beharko dela. Honakoa aipatu du: "Kanposantua han geratuko da, eta bidetxo hori egiteari lehentasuna emango diogu, han daudenak bisitatu ahal izateko".


Barandak jarri dituzte eraikin multzoaren sarreran. | MIRIAN BITERI

Uzarragak garrantzi handia izan zuen garai baten, eta, esaten denez, bertako hilerrian lurperatzen zituzten Debagoieneko ospetsuak. Liburu batzuetan agertzen denez, Bergarako Ozaeta jauregiko jaunak Uzarragako hilerrian lurperatzea eskatu zuen 1484an.

Antzuolarrek penaz hartu dute itxiera. Horren harrira, honakoa esan du Azkaratek: "Pena handia hartu dugu, baina zer egingo diogu... Ingurune horretako lurretan mugimendu handia dago, eta eraikinak mugitzen dira". Urte hasieran Uzarragako auzotarrei elizbarrutiko arkitektoak egindako txostentxo bat iritsi zitzaien. Eraikuntza multzoaren egoera "negargarria" dela aipatu zuen horretan, eta eraikinek dituzten arazo larrienak zehaztu: "Hego-ekialdeko aterpeko hiru zutabeek bertikaltasuna galdu dute; apaizetxea guztiz hondatuta dago; kanpandorrea ekitalderantz okertuta dago; eliza barruan pitzadurak daude; hilerrira ematen duten leihoak eta apaizetxekoak erronboideak dira. Ezbehar larria gertatu aurretik, ixtea erabaki du Elizbarrutiak.

ESANAK

**"Erretaula XVII. mendekoa da; kaleko elizara eroateko proiektua dago, alboko aldarean jartzeko"**

ANDONI AZKARATE | AUZOTARRA

DATUA

**20**

BANKU

Uzarragako elizan dauden egurrezko bankuak inguruko elizatera eroango dituzte. Besteak beste, Santa Ageda auzoko elizan jartzeko asmoa dutela jakinarazi digu Azkaratek.


Kristoa eta sagrarioa eroan dituzte; laster, baita bankuak eta erretaula ere. | M.B.


Plazatxotik irtengo den bide berria egingo dute hilerriraino. | M.B.

# Baserritarren azoka egingo da bihar, irailera arte agurtu aurretik

11 postu egongo dira, eta baita pintxo eta sukalderako egurrezko tresneria postu bana ere

**J.B.** | ARRASATE

Dagoeneko hileko hirugarren zapatuan ohitura bihurtu denez, baserritarren azoka egingo da bihar Seber Altube plazan. Aurreko hileetako azokarekin alderatuta, uztaileko azokan ez da nobedade handirik izango. Izan ere, Arrasate eta inguruetako baserritarrek jarriko dituzten 11 saltokiez gain, denboraldiko produktuekin egindako pintxoak dastatzeko postuak ez du hutsik egingo –pintxo horiek egiteko errezetak eskuragarri egongo dira–.

Aurreko azoketan bezala, edozein postutan egindako erosketa bakoitzarekin bezeroei pintxoak dastatzeko txartelak banatuko zaizkie eta baita baserriko produktu sorta baten zozketan parte hartzeko txartelak ere. Gainera, sukalderako egurreko tresnak salgai izango dituen postua ere egongo da.

**Kontsumorako beste era bat**

Marga Garmendia Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomiko zerbitzuko teknikariak adierazi duenez, azoka "apurka-apurka" dabil errotzen bezeroen artean.

Hala, bezeroei baserriko produktuak kontsumitzeak dakartzan ondorioak gogorarazi ditu Garmendiak: "Kontsumo jasangarriago baten partaide bilakatzen gara, kalitate goreneko produktuak kontsumituz, denboraldikoak eta freskoak". Honakoa ere gaineratu du: "Ekoizlea eta kontsumitzailearen arteko zuzeneko salmenta gauzatzen da, prezioak garestitzen dituzten bitartekariak saihestuz".



Biharkoaren ostean irailera arte agurtuko da baserritarren azoka. | ARTXIBOA

## NIRE USTEZ



**ENEKO BARBERENA**

# Debs-en ametsa

Jack Londonen *Debs sozialistaren ametsa* ipuin ederra irakurri berritan, ezin dut saihestu Naomi Klainen shockaren dotrinaren hitzek nire burua kolpatzea. "Merkatuak" omen dira estatuen zorra estutzen dutenak. "Espekulatzaileak" bestela. Espektroak balira lez, hezur-haragizkoak ez diren mamuak.

Eta ezin ekidin algara, ezin saihestu irribarrea, horrelako baieztapenak aditzean. Krisi hau sortu badute, Naomi Kleinen tesiei jarraituz, zerbait lortzeko izan da. Akaso osasun eta hezkuntzaren pribatizazioa, erretiro adina luzatzea edota ondasun publikoen salmenta. Krisi gabe herritarrok nekez onartuko genituzkeen neurriak. Eta azken 20 urteotan behargino alternatiba zapuztu denean, 11 gol sartu dizkigute. Eta txarrena da ez garela gai izan, salbuespenak salbuespen, horri aurre egiteko. Iritsiko da eguna non onartuko den azpiegitura handiak ez zirela soluzio, lan erregulazio askea langileontzat ez ezik ekonomiarentzat kaltegarria dela, erretiroa atzeratzea astakeria dela, soldatak produktibitateari lotze horrek ez duela ez hanka ez buru...

Debs sozialistaren ametsa berriro noiz beteko zain, aterkia atera eta irakurtzeko garaia da. Hartu munizioa, ideien gerra luzea izango baita. Ez baita neutralitaterik, ez dago guztiekin ondo geratzerik, gure eskubideekin jokatzen ari direnean.



Udalbatzako hainbat ordezkari izan ziren Lezetxiki bertatik bertara ezagutzen. | JOKIN BEREZIARTUA

# Udalak Lezetxiki babesten jarraitzeko asmoa du

▶ Indusketa kanpaina amaitu aurretik zinegotziek aztarnategia bisitatu zuten

▶ Alvaro Arrizabalaga: "Eskerrak Udalari, ezinbesteko laguntza eman duelako"

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Eguaztenean, uztailak 13, amaitu zen Arazanzadi elkartearen Lezetxikiko indusketa kanpaina. Bada, udalbatza berriko hainbat ordezkarik –Bildu, EAJ eta PSE-EEko ordezkariak izan ziren– bertatik bertara ezagutu zuten aztarnategia. Gehienendako lehen aldia izan zen Lezetxiki bisitatzen zutena eta oso leku interesgarria iruditu zitzaien.

Bisita gidatua izan zen eta azalpenak, nola ez, Alvaro Arrizabalaga arkeologo arduradunak eman zituen. Ez zuten egunik aproposena aukeratu; izan ere, azalpenen erdi-erdian euria hasi zuen barra-barra.

**Udalari eskerrak ematen**

Arrizabalagak adierazi zuen, indusketetako emaitzez haratago, Jaurlaritzak eta Aldundiak ez dutela ezer egin Lezetxikiko aztarnategia mantentzeko: "Zapaltzen ari zareten lurra publikoa da, Udalarena da. Niri ez dit inporta lurrok nork erosten dituen, baina aztarnategia babesteko asmoa erakutsi duen bakarra Arrasateko Udala izan da. Jaurlaritzak eta Diputazioak ez dute hatz bat ere mugitu Lezetxikiko aztarnategiak merezi duen garrantzia izan dezan. Eskerrak zuei [udal ordezkariei zuzenduz], Arrasateko Udalari, ezinbesteko laguntza eman duelako".

Arrizabalagak gaineratu zuen Lezetxikira lehen aldiz heldu zenean aztarnategia erabat utzita zegoela: "Hona etorri nintzenean oihan bihurtuta zegoen eta ezkutuan hezurren bat eramateko asmoz etorri izan zirela argi dago; aitzur-markak zeuden profiletan".

> **ESANAK**
>
> **"Azalpenak bertan entzutea oso interesgarria izan da niretako"**
>
> **"Mantendu beharreko lekua da, halako leku bat ezin da utzi"**
>
> INAZIO AZKARRAGA-URIZAR | ALKATEA

Horrez gain, udal ordezkariei zuzendu zitzaien esanez Lezetxikin aprobetxa daitekeen izugarrizko baliabide bat dutela museo edo bestelako zentro bat zabaltzeko: "Hemen egiten dena erakusten ez bada, lan guztia alferrikakoa izango da", adierazi zuen.

**"Ezin da lagata utzi"**

Inazio Azkarraga-Urizar alkatearendako ere lehen aldia izan zen Lezetxiki bisitatu duena: "Askotan nuen entzunda baina egonda sekula ez. Azalpenak lekuan bertan entzutea oso interesgarria izan da niretako".

Gainera, aztarnategia babestu eta mantentzen jarraitzeko asmoa erakutsi zuen Azkarraga-Urizarrek: "Argi dago mantendu beharreko lekua dela. Gure asmoa da Lezetxikiri merezi duen garrantzia ematen jarraitzea. Orain arte Arrasateko Udalak egin duen moduan, babes osoa eman dio -eta. Halako leku bat ezin da albo batean lagata utzi". Indusketetan aritu diren boluntarioak ere goraipatu ditu: "Badirudi ohituta daudela horrela lan egitera, baina sekulako meritua daukate".



Zinegotziek adi-adi jarraitu zituzten Alvaro Arrizabalagaren azalpenak. | J.B.

# Arizmendiko 45 ikasle Lurra amaitzen zen lekura joango dira bizikletan

## Uztailaren 13an irten ziren eta 21ean bueltatuko dira; 445 kilometro egingo dituzte bederatzi egunetan

T.MADINA/J.BEREZIARTUA | ARRASATE

Zamoratik Fisterrarako ibilbidea bizikletaz egingo dute 45 ikaslek. Bigarren hezkuntzako azken zikloan eta batxilergoan dihardúten ikasleak dira eta horiekin irteera bereziak antolatu ohi ditu Arizmendi ikastolak. Eguaztenean, uztailak 13, atera ziren autobusean Garibaiko geltokitik Zamoraraino, bezperan bizikletak eta bestelako materiala Musakolako kiroldegi kanpoko aparkalekuan kargatu ostean. Uztailaren 21ean itzuliko dira Arrasatera; bederatzi etapa osatu ostean asmoa da hilaren 19an Santiagora heltzea eta datorren egunean Lurraren amaiera izan zen lurmuturrera heltzea. Hau da, Fisterrera.


Martitzenean euripean kargatu zituzten bizikletak, Musakolan. | TXOMIN MADINA

**445 kilometro bizikletan**

445 kilometro egingo dituzte bederatzi egunetan. Gauak kiroldegietan igaroko dituzte batez ere. Urtzi Amiano da neska-mutiko taldearen arduraduna, eta halaxe dio: "Kiroldegiak oso egokiak dira guretako, lekuagatik eta dutxak ditugulako".

Horrez gain, bideraren gainean ere egin digu berba: "Biderik zaharrena egingo dugu, oso jende gutxik erabiltzen duena, Sanabres bidea. Biderik primitiboena da eta orografia aldetik atseginena". Amianok aurreratu du Fisterran "sorpresa gogoangarria" izango dutela ikasleek.

ESANAK

**"Ikasleendako oso esperientzia polita izango da"**

URTZI AMIANO | ARDURADUNA

**Ibilaldi bat baino askoz gehiago**

Amianok gaineratu duenez, bizikleta ibilaldi bat baino "askoz gehiago" da ikasleekin Donejakue bidea osatzea: "Bizikletari baino esperientziari emango nioke garrantzia. Ikasleendako oso esperientzia polita eta aberasgarria dela esango nuke".

Bestalde, bizikleta gainera igo aurretik ondo jatea oso garrantzitsua denez, sukaldaririk duten galdetu diogu: "Hamar begirale goaz eta begiraleok egingo ditugu sukaldari lanak; hori bai, ikasleek ere lagunduko digute".

# Santa Marina auzoan jaiak izango dira aste bukaeran

## Banderaren igoerarekin hasiko dira jaiak gaur (18:30); domekara arte, hamaika ekitaldi

J.B. | ARRASATE

Uztailean ere festa giroak ez du etenik izango Arrasaten; hori bai, jaiek auzoetan hartzen dute protagonismoa. Gaur hasiko dira Santa Marinan, baina baita Zerrajeran ere. Gero, Maalako eta Ferreriasko jaiek hartuko diete lekukoa.

Santa Marinan 18:30ean hasiko dira jaiak, banderaren igoerarekin. Gaur haurrendako bolo-boloa (19:00) eta txokolate-jana (19:30), pintxo-poteoa –19:00etatik aurrera– eta kabaret ikuskizuna egongo da (23:00). Zapatuko ekitaldien artean zenbait nobedade daude aurten: auzo alkatetzak bazkaria berreskuratu du; San Esteban del Puerton egingo da, 14:00etan. Gainera, lehen aldiz auzoko Eko D Bul rock taldeak kontzertua emango du, Oñatiko Ez! taldearekin batera; Donostia plazatxoan izango da, 20:00etan. Horrez gain, horren arrakastatsua den Kojonudoak taldearen ikuskizunak ez du kalerik egingo –18:00etan, Agerre plazan–. Domekan, amaitzeko, auzoko nagusiendako meza eta bazkaria egingo dute Mesedeetan.

Eta noski, ezin aipatu barik utzi jaietako gatza eta berakatza den auzoko Flash txaranga. Jaiek iraungo duten egun guztietan kalejiran irtengo dira, eguerdian.

**Zerrajerako jaiak gaur**

Bestalde, Zerrajerako jaiak ere izango dira gaur. Auzotarrek froga moduan festa inprobisatua antolatu zuten iaz eta arrakasta ikusita, egun bateko egitaraua antolatu dute: margotzeko txokoa, mozorro festa, 100 lagunendako auzo afaria eta dantzaldia egingo dute.


Jatekorik eta edatekorik ez da faltako Santamainako jaietan. | GOIENA


TOKI ARGI

## Toki Argikoak ederto ibili dira Turkian

Uztailaren 3tik 9ra Turkian egon dira Toki Argi erretiratu taldekoak. Santiago Larreak adierazi duenez, ederto ibili dira: "Dena oso ondo joan da, oso leku politak bisitatu ditugu. Aholkatzeko moduko bidaia da, zalantza barik". 34 lagun irten ziren eta Turkiako Istanbul, Ankara eta Capadocia hiriak bisitatu zituzten. Hamaika txoko bisitatzeaz gain, globo aerostatikoan bidaiatzeko aukera ere izan zuten, besteak beste.

### 1965ean jaiotako ikasle ohien bazkaria uztailaren 23an

San Frantzisko Xabier ikastolan aritutako eta 1965ean jaiotako ikasle ohiek bazkaria egingo dute uztailaren 23an, Txondorra erretegian –13:00etan geratu dira Portaloian–. Izena emateko, hilaren 18a baino lehen 3035 0001 57 0011152343 kontu korrontea 40 euro sartu behar dira.

### Ferreriasko jaietako afarirako txartelak hilaren 22ra arte salgai

Urtero moduan, uztailaren 26an ospatuko dira Ferrerias kaleko jaiak. Egun osoan zehar hainbat ekitaldi izango dira baina auzotarrendako ekitaldi kuttunena afaria izaten da (21:00). Txartelak salgai daude dagoeneko Tamaio dendan, 22 eurotan. Txartela erosteko azken eguna da uztailaren 22a.

### Astelehenetik aurrera urbanoak bi geltoki berri izango ditu

Uztailaren 18tik aurrera autobus urbanoak bi geltoki berri izango ditu: Erguin auzoko Maitena kalean eta Jose Luis Iñarra kalean –hilerrira bideko azken etxeetan–. Zerbitzu berriarekin orduro lau autobus helduko dira geltoki berrietara, linea bakoitzeko bi autobus.





MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

**Iban Velasco** | Euskaltel-Euskadiko txirrindularia

# "Mendira iristen direnean, orduan sufrituko dut gehien"

Ospitalera bidean zela jaso zuen kirol zuzendariaren deia: "Ahaztu Tourra, eta hasi Espainiako Vueltan pentsatzen", adierazi zion Galdeanok


Iban Velasco, martitzenean, Monterronen. | X.U.

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Tourra iritsi da Pirinioetara, Iban Velasco ondoen moldatzen den Tourreko tartera. Baina Arrasatekoak etxeko sofatik jarraituko zuen atzoko Luz Ardidengo etapa eta Aubisquekoa, gaur. Sofan eserita, edo bizikleta estatiko gainean, dagoeneko pedalei eragiten, sei aste ditu-eta Espainiako Itzulia ondo prestatzeko. Martitzenean izan ginen Velascorekin.

**Zer moduz zaude?**

Bueno, nahiko ondo. Ebakuntza oso ondo joan zen, hainbat zatitan apurtu nuen lepauztaia eta torlojuak jarri dizkidate. Arratsaldean [martitzena] medikuarengana noa, ea bihar bizikleta gainean has naitekeen.

**Egubakoitzean ebakuntza-gelan, martitzenean bizikleta gainean.**

Bai, halaxe da, lehenbailehen errekuperatu nahi izaten garelako. Gaur bertan fisioterapeutarengana joan naiz, eta hasi naiz sorbalda apur bat mugitzen. Jendeak hilabete egon behar izaten du geldi.

**Tourrera joan aurretik, lehenengo astean egoten den tentsioaz egin genuen berba. Baina inork ez zuen horrelakorik imajinatzen.**

Sekulakoa izan da, eroriko batzuk ikusi ostean nirea gutxienekoa izan da, Vinokourovena, Hoogerland hesien kontra joan zenean... Aurten, tarteko helmugak lehiatu behar horretan talde guztiak oso urduri ibili dira, eta errepide oso estuetan ere ibili gara. Jende garrantzitsua galdu du Tourrak lehen astean.

**Samuel Sanchezek adierazi du taldearendako gogorra izan dela zu eta Amets Txurruka galdu izana.**

Herenegun deitu zidan Samuk, ebakuntza zelan joan zen galdetzeko. Indartsu dagoela esan zidan, podiumean egotea zail ikusten du, baina etapa bat irabazteko ahalegina egingo du, eta gauza da horretarako.

Ametsekin ere egon naiz, eta hura ez dago hobeto. Urtebetean hirutan apurtu du lepauztaia...

**Tourra halako mimoz prestatu, eta etxetik jarraitu behar izatea ere.**

Orain sufrituko dut gehien, mendiko etapak iristen direnean. Nire buruari galdetuko diot etapa bakoitzean non egongo nintzatekeen, aurrean edo atzean.

**Odriozola, Irizar... lagunarteek Pirinioetara egingo duten irteeran egingo dizute lekuren bat, joan nahi izanez gero.**

[Barre] Aurrekoan emaztea egon zen Mikelen [Lizarralde] dendan, eta jaso genuen gonbidapena. Tamalez, buru-belarri hasi behar dut Espainiako Itzulia prestatzen, goiz eta arratsalde.

**Mendian eroriko gutxiago izango dira?**

Bai, seguru. Errodadore on asko dago Tourrean, eta mendian atzean geratuko dira horiek, ez bada lehenengo mendatean, bigarrenean. Mendiko etapetan nork bere lekua hartuko du.

**Jausi eta berehala Vueltan pentsatzen hasteko adierazi zizun Galdeanok. Horrek erakusten du taldean daukaten konfiantza.**

Bai, poztekoa da. Gainera, iaz Igor Antonek erakutsi zuen Vueltarako faboritoetako bat dela, eta horrek esan nahi du taldeak tira egin beharko duela haren alde. Gainera, aurten etxe ondotik igaroko da Vuelta.

**Egunotan zelan ikusi duzu Irizar?**

Oso ondo. Egunero egiten genuen berba, eta oso kontzentratuta ikusi dut. Errepidean lan galanta egin behar izan du, ura atzetik aurrera eraman, liderrei aurrean lagundu... Indartsu dago.

**Eta orokorrean?**

Cadel Evans oso indartsu dago, baina beti izaten du egun txarren bat. Eta Schleck anaiak ere oso kontzentratuta ikusi ditut, erne.

> "Tarteko helmugak lehiatu behar horretan urduri ibili da tropela"

> "Mendian erorketa gutxiago izango dira, jendeak bere lekua hartuko du"

## Espainiakoan Maialen Axpek urrea jantzi du

Xativan (Valentzia) jokatu zuten joan den asteburuan junior mailako Espainiako atletismo txapelketa eta Maialen Axpe mondragoetarra, lan ederra eginda, podiumaren gorenera iritsi zen, txapelketa irabazita. Bedoñakoak urrezko domina eskuratu zuen 3,75 metroko marka eginda. Asteburuan Euskadikoan izango da.



JONATHAN PEREZ

## Arrasateko 24 orduko areto futbol txapelketa aste bukaeran

Zapatuan hasita jokatuko dute Arrasateko 24 orduko txapelketa, Zaldibarren. Bada, aste barrurako 11 taldek zuten izena emanda (Semen Up, Txus United, Doble Cero, Gary Cooper, La Kantera, Poli conection, Bixigutarrak, Abokajarro, McAwen Dauen, Lasagabaster eta Lahamakun). Berez eguaztenean emaitzen zen izena emateko eguna, baina antolatzaileek adierazi dute jendea, urtero, azken orduan ibiltzen dela, eta talde kopuru handiagoa izango dela txapelketan. Ikusteko dago partidu batetik bestera nor errekuperatzen den ondoen.

## Debagoieneko squash txapelketa bihar Musakolan

Bihar, zapatua, egingo du AKE squash taldeak Debagoieneko txapelketa Musakolako kiroldegian. Hala, bihar bi kategoriatan banatuko dituzte jokalariak: 15 urtez azpikoak talde batean eta 15 urtez gorakoak bestean. Eta txapelketa gizonezkoendako eta emakumezkoendako antolatu dute. Txapelketaren helburua squasha ibarrean zabaltzea da; hala, lagunartean egingo duten txapelketan jokatzeko ez da beharrezkoa federatuta egotea.

Goizean kanporaketak egingo dituzte eta finalak arratsaldean izango dira.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta
arrasate
beinke

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

# Askotariko ekitaldiak St. Pauli jaia ospatzeko

Bihar, zapatua, 11:30ean hasiko dute festa, Iturripen, areto-futbol partiduarekin

M.B. | ARRASATE

Beste Bat! elkarlanak St. Pauli festa egingo du aste bukaeran; hain justu ere, bihar, zapatua. Askotariko ekitaldiak antolatu dituzte, adin eta gustu guztiak asebetetzeko proposamenak hartu dituzte aintzat. St. Pauli festa Iturripe futbol zelaian hasiko dute, 11:30ean: Iluntz eta Beste Bat! taldeek areto-futbol partidua jokatuko dute.

**Argazki erraldoia**

Egitarauko ekitaldi potoloenak arratsaldean egingo dituzte. 18:00etatik 21:00etara umeak izango dira protagonista: eurendako jolasak egingo dituzte; besteak beste, puzgarriak, tailerrak, atera baloi jaurtiketak eta giza futbolina egingo dituzte. Gainera, opariak eta sariak egongo dira.

Musikak ere lekua izango du Beste Bat! elkarlanaren festan. Alde batetik, 18:30ean kontzertua egingo dute Biteri plazan Azkaiter Pelox bergararrek eta Los Galerna arrasatearrek. Beste alde batetik, 22:30ean gaztetxean Oñatiko Ez! eta Aramaioko Exterminio de la Raza del Mono taldeak igoko dira oholtzara. Talde sorpresa ere egongo da.19:30ean argazki erraldoia egingo dute Biteri plazan.

**Bundesligako taldea**

Beste Bat! lagunartea iaz sortu zuten. St. Pauli Alemaniako Bundesligan jokatzen duen taldea da. Taldeko zaleek, underground kulturak eta klubaren filosofiak mundu osoan dituzte jarraitzaileak. Egun, ia 300 lagunarte daude munduan.

## 'Trainspotting' filmean oinarritutako bakarrizketa

M.B. | ARRASATE

Danny Boylek 1996an zuzendutako *Trainspotting* filmean oinarritutako bakarrizketa izango da protagonista gaur gaztetxean, 22:30ean. Juanlu Escudero aktoreak heroinaren eragin latzak bizi izan zituzten gazte haiei eskainitako lana da. Escuderok orain dela hamar urte sortu zuen bakarrizketa eta dagoeneko 200 bat emanaldi egin ditu.

**Hitzaldia gaztetxean**

Bestalde, AGAKOk antolatuta *Zer da kartzela?* hitzaldia egingo dute gaur gaztetxean, 18:00etan. Hitzaldi irekia da. Kartzelan 22 eta 30 urte egin dituzten bi preso politiko ohiek euren esperientziak eta bizipenak kontatuko dituzte.

## Ipuin pre-erotikoen kontaketa AEDrekin

M.B. | ARRASATE

AEDko gazte taldeak eta gaztetxeak elkarrekin antolatuta, *Maitasunaren arbola-ipuin pre-erotikoak* delako emanaldia egingo du Joxemari Carrerek hilaren 20an, Ferrerias kaleko plazatxoan (Basati tabernaren ondoan), 22:00etan.

Carrerek ibilbide bat proposatzen du munduko kultura ezberdinen mitoen eta ipuinen barrena, sexu kontuak ahoan. "Geroago, askoz ere geroago, erotismoaz hitz egiten hasi zen. Zaila zaigu, ordea, erotismoa zer den definitzea. Horregatik, hitz egin dezagun sexuaz; erotismo aurreko ipuinak entzun ditzagun, ipuin pre-erotikoak", dio Carrerek.



Cor Albadako gazteak, zuzeneko emanaldi batean. Domekan Kulturaten abestuko dute. | RAKEL MURGIONDO

# Elkartrukearen bigarren saioa: Cor Albada katalanak Arrasaten

Emanaldia domekan egingo dute Kulturateko areto nagusian, 13:00etan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Bartzelonako Cor Albada abesbatzak kontzertua egingo du domekan Kulturateko areto nagusian, 13:00etan. Kontzertua elkartruke baten bigarren saioa da: Goikobalu Gazte abesbatzako kideak ekainean egon ziren Katalunian emanaldia egiten, hango Euskal Etxeak eta Cor Albadak gonbidatuta. Orain, katalanak datoz Arrasatera emanaldia egitera. "Bartzelonako Euskal Etxean Goikobalu Gazte abesbatzako kide izandako bi arrasatear daude, eta haien bidez egin genuen bidaia. Cor Albada abesbatzarekin hartu-emanetan jarri ginen Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren bidez", esan digu Goikobalu Gazte abesbatzako zuzendari Rakel Murgiondok.

Elkatrukearen joaneko bisitan Goikobalu Gaztek egindako moduan, oraingoan Cor Albadak bakarrik abestuko du. 11 kantuz osatutako errepertorioa prestatu dute (ikus ondoko taula).

**Pablo Larraz zuzendari**

Cor Albada gazte abesbatza Agrupacio Cor Madrigal barnean sortu zuten 1967an. Egun, 16-25 urte bitarteko 50 gaztek osatzen dute taldea. Arrasateko kontzertura 35 abeslari etorriko dira. Sorreratik hona hainbat zuzendari izan ditu. 2007-2008 ikasturtea ezkero Pablo Larraz da talderaren arduraduna.

Cor Albada abesbatzak hainbat orkestra ezagunekin kolaboratu eta kontzertu garrantzitsuak egin ditu. Besteak beste, Gustav Mahler-en *Berpizkundea* delako bigarren sinfonia Coral Cantiga eta Jove Orquestra Nacionalarekin 2005ean; Mozarten *Requiema* L'Orquestra Terrassarekin 2007an; eta Henry Purcell-en *Dido & Aeneas* opera Coral Sinera eta L'Orquestra Barroca Catalanarekin 2009an.

**COR ALBADAREN ERREPERTORIOA**

- Somebody is knocking
- Rossinyol
- Ton pare no te nas
- Canço de faroner
- Canço de la sabatera
- Nocturnos de la ventana
- Aduke Ellington Suite
- That Lone some road
- Blue moon
- Java Jive
- In the mood

**DATUA**

**35**

ABESLARI

Horiek dira Arrasaten egongo diren Cor Albada gazte abesbatzako kideak. Taldean, guztira, 50 neska-mutiko dira.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

islada
ile-apaindegia
Izan zaitez gure tendentzia berrien islada.
Uribarri etorbidea 6 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 08 17 06 e-posta: *isladaileap@hotmail.com*

# Datorren astean hasiko dira Aranzadi ikastola egokitzeko lanak

## 2012ko Gabonak bitartean lan sakonak egingo dituzte eraikinean

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

Datorren astean hasiko dira Aranzadi ikastolak Errege Seminarioan duen egoitza erabat egokitzeko lanak. Ikastetxearen eskailera nagusietako batean –erdikoan– hasiko dituzte lanak eta Goitu enpresak egingo ditu, UNEDeko idazkaritzako lanak ere egingo dituela aprobetxatuta, Ane Barruso Aranzadiko zuzendariak azaldutakoaren arabera.

Esandako eskailera erabat bota eta berria egingo dute; baita igogailua jarri ere. Lanok irail erdirako bukatuko dira, ikasturtea hasten denerako, eta horiek bukatu eta gero hasiko dira eraikinean egin beharreko gainerako lanak. Lanok ze enpresak egingo dituen zehazteke dago, baina hil honetan esleituko dira.



Ane Barruso zuzendaria, botako duten lehenengo eskaileraren ondoan; igogailua ere jarriko dute hor. | MONIKA BELASTEGI

### Lan sakonak

Eskailera berria egiten bukatu –hori erabiliko dute solairuen artean komunikatzeko gainerako lanek iraun bitartean– eta berehala hasiko dira bigarren fasearekin. Fase horretan hauek egingo dituzte: zutabe patioa birgaitu eta haurtzaindegia han jarri; behe solairua Gureak tailerra izandako– eta lehen solairuaren erdia egokitu; eraikinaren erdiko eskailera berria egin; eta oraindik ere txukuntzeko geratzen den fatxada zatia konpondu. Lanok Aste Santurako bukatuko dituztela aurreratu du Ane Barrusok.

Horren ondoren, bigarren eta hirugarren solairuak berritu eta egokitzen jarraituko dute askotariko gelak jartzeko.

Ikastolarako sarrerei dagokienez, nagusia jolaslekukoa izango da. Herri Lagunak kalekoa mantendu egingo du eta segurtasunezko beste bat ere izango du, Haurtxoa alderantz.

### Eskaintza osoa

Lanak bukatu eta gero, 0 urtetik hasi eta Batxilergora arteko eskaintza izango du Aranzadik Seminarioan. Behe solairuan Haur Hezkuntza egongo da: 0 eta 2 urte artekoak zutabe patioan egingo duten haurtzaindegian; eta 3 eta 6 urte artekoak Gureak tailerra zegoen gunean irabaziko dituzten geletan. Horrekin batera, jangela, sukalde berria eta psikomotrizitate gela ere hor egingo dituzte.

Lehen solairuan Lehen Hezkuntzako gelak egokituko dituzte eta baita idazkaritza ere. Beste bi solairuetan, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko gelak egongo dira eta baita laborategiak, informatika gelak…

Aranzadik guztira, eraikitako 7.528 metro ditu –5.876 metro erabilgarri–. Horietatik, 3.631 metrori eragiten diete obrek –2.596 metro erabilgarriri.

> **DATUA**
>
> **2,3**
>
> MILIOI EURO
>
> Horixe da lanen aurrekontua. Aurre egiteko, kreditua eskatuko dute eta eraikina hipotekatu, Aldundiaren baimenarekin.

### Martinez de Irala hustu

Ane Barrusok azaldu duenez, Aste Santuan laga beharko dute Martinez de Irala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailarekin Hezkuntza Sailarekin izandako azken bileraren arabera. Han bederatzi gela dituzte eta horiek Seminarioko eraikinean birkokatu beharko dituzte. Baina Barrusok azaldu duenez, oraingoz bederatzi horietako bost gela kokatu ahal izango dituzte eraikinean, eta gehitu du, "horregatik da garrantzitsua behe solairuko lanak Aste Santurako bukatuta egotea". Lan guztiak bukatu bitartean 2012ko Gabonak–, beste lau gelak Jaurlaritzak lagatako aurrefabrikatutako barrakoietan egon beharko direla ere azpimarratu du.

Martinez de Irala laga beharrak bestelako endredoak ere ekarriko dizkio Aranzadiri : "Gimnasio barik eta informatika gela bi gutxiagorekin moldatu beharko gara; Baita teknologia tailerrik gabe eta ingeles eta musika gelarik gabe ere", esan du Barrusok. Hala ere, gimnasioarenari irtenbidea emateko lanean dihardutela ere gehitu du.

### Finantzazio bideak

Ikastola goitik behera egokitzeko lanen aurrekontua 2.301.000 eurokoa da eta horri aurre egiteko kreditua eskatuko dutela azaldu du ikastolako zuzendariak. Horretarako eraikina hipotekatu egingo dela ere esan du, eta hori egiteko badutela Foru Aldundiaren baimena.

# Osintxu-Elosua antzinako bidea eskuorrian jaso dute

## Bi auzoak lotzen dituen lehengo bidea ezagutzera eman nahi dute ekimen horrekin

**M.B.** | BERGARA

Osintxu eta Elosua lotzen dituen antzinako ibilbidea ezagutzera emateko beste ekimen bat abiarazi dute osintxuarrek. Hain justu, bi auzoen arteko ibilbidea ezagutzera emateko, planoak eta liburuxkak kaleratu dituzte. Planoak bi dira: bata, Osintxu-Elosua deitzen da eta hori Osintxuko hainbat gunetan jarriko dute: auzoko tabernetan, elkartean, ibilbidearen hasieran… Ibilbidea jasotzearekin batera, Elosuko hainbat lekuren argazkiak ere jasotzen ditu. Bestea, Elosua-Osintxu deitzen da eta Elosuko hainbat gunetan jarriko dute: auzoko tabernan, elkartean, kalean… Ibilbidea eta Osintxuko hainbat tokiren argazkiak batzen ditu.

Ibilbidearen liburuxka ere egin dute: alde batetik ibilbidea eta beste aldetik bi auzoen gaineko informazioa jasotzen ditu: jaiak noiz diren, dauden zerbitzuak eta hainbat lekuren argazkiak. Liburuxka hori ibilbideko planoak kokatzen diren puntuan ipiniko dira eta ibilbidea egiteko asmoa dutenek eskuratu ahal izango dute.

Iazko ekainetik aurtengo ekainera, azterketa bat egin dute Osintxun. Azterketa horretan ekintza plan bat landu dute eta ekintzok aurrera eramateko hainbat lan talde osatu. Horietako bat Osintxuko mendi irteeren lan taldea da eta talde horrek bultzatu nahi dituen ibilbideen artean, Osintxu-Elosua dago.

**FITXA**

**Luzeera:** 11.500 m (joan-etorria).

**Denbora:** 3 h eta 30 m (joan-etorria).

**Osintxuko kota:** 119 metro.

**Elosuako kota:** 556 metro.

**Malda:** %3,8.

**Zailtasuna:** ★★★★★

# Angiozarren alkatea aukeratuko dute domekan

**M.B.** | BERGARA

Angiozarren alkatea aukeratzeko hauteskundeak egingo dituzte etzi. Angiozar Bailarako Batzarrak egiten du deia eta alkatea eta batzarkideak aukeratuko dituzte. 18 urteak beteta eduki eta Angiozarren erroldatuta egotea edo bizi izatea dira baldintzak domekan bozkatzeko. Angiozar bailara zortzi auzok osatzen dute eta 298 lagun bizi dira 151 etxe edo baserritan. Hauek dira auzoak: Asentzio, Azkuneta, Errekaldea, Goimendi, kalea, Mainddao, Parteitti eta Zabaletamendi. Hautestontzia Angiozarko saloian jarriko dute, 10:00etatik 14:00etara. Goimendin eta Zabaletamendin, bertan bozkatzeko aukera izango dute, hautestontzi ibiltariaren bidez.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

# Ibargarain aldaketak izango dira irailetik aurrera, trafikoa arintzeko

## Lanak astelehenean hasiko dira; Zurradero eta Ibargaraiko tarteak biribilgune funtzionamendua izango du



Matxiategitik datozenek Zurraderora egin beharko dute irailetik aurrera. | E.M.

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Irailetik aurrera zirkulazio aldaketak izango dira Ibargarai kalean, Miguel Altunatik Zurradero kaleko irteeraraino. Biribilgune funtzionamendua izango du tarte horrek: frontoitik datozen autoek eskumara jo beharko dute Miguel Altunako semaforoen parera eta handik Matxiategira edo Zurradero kalera jo. Zurraderoko irteeran, Multiopticas Larrañagaren parean, ezkerrera ala eskumara egin ahal izango dute gidariek eta hantxe biribilguneetan gertatzen den moduan, bidea utzi beharko diete Ibargaraiko zuzenetik datozenei. Miguel Altunako semaforoak kenduko dituzte eta Matxiategitik datozenek derrigorrean Zurraderora egin beharko dute. Zirkulazioa arintzea da helburua.

**Arbolak eta aparkalekuak**

Bestelako aldaketak ere ekarriko ditu proiektuak: batetik, Seminarioko patioaren parean dauden arbolak kendu egingo dituzte; eta, bestetik, Ibargaraiko tarte horretan baterian aparkatu ahal izango da, Pazkoetan bezala. Tarte horretan 23 aparkaleku daude gaur eta banaketa berriarekin 30 aurreikusi dituzte. OTAko makina Ibargaraiko bi etxebizitza blokeen artean jarriko dute. Era berean, abiadura murrizteko badenak jarriko dituzte, hiru Ibargarain (Larrañaga, Bilintx eta Alga komertzioen parean) eta bestea Zurraderon. Karga eta deskargarako guneak ere bereiziko dituzte. Oraingoz lanek ez dute zirkulazioan eraginik izango; Miguel Altunako zubi azpian, atzealdean eta ikastetxea eta Santander banketxe artean zorua aldatuko dute, oinezkoendako gunea ere izango baita, Gaspar ondoan bezala. Lan potoloenak abuzturako utziko dira. Astelehenean hasiko dira lanak; Sasoi Eraikuntzak SL enpresari adjudikatu dizkiote, 85.984 eurotan.

# Banda eta Aritzeta Santa Marinako jaietan

## Oporren aurreko azken kontzertua herrian egingo du Bandak domeka eguerdian Udal Pilotalekuan


Udal Musika Banda 72 lagunek osatzen dute gaur. | GOIENA

**E.M.** | BERGARA

Santa Marinako jaien barruan ohikoa denez, Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domeka eguerdian Udal Pilotalekuan, 12:30ean hasita. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren batutapean, ondoko programa eskainiko dut: *El meu iaio* pasodoblea (Ferrer Ferrának konposatutako pieza): *The Spirit of St. Louis* obertura, Daizuke Shimizurena; *Procession of the sorceres* (Robert Buckleyrena); *Los euskaros* suitea (Torre-Muzquiz kontearena); Can´t take my eyes off you (Bob Crewe eta Bob Gaudioren konposizioa); eta, azkenik, *Marmalade for clarinets*, Wim Laseroms konpositore garaikidearena. Kontzertuaren aurretik kalejira egingo dute Bandakoek, 11:00etan hasita.

Bezperan, zapatuan, kontzertua egingo dute Antzuolan, 12:30ean, Zurrategin; ordubete beranduago kalejira izango da.

**Aritzeta, Santa Marina egunean**

Aritzeta abesbatzak, bestalde, emanaldia egingo du astelehenean Santa Marina parrokian, 19:30ean. Imanol Urtzelairen zuzendaritzapean, *Panis Angelicus*, *You are the new day*, *Amazing Grace*, *Xarmengarria*, *Neskatx'ederra* eta *Habanera salada* eskainiko dituzte.

# 'Academia Rushmore' eguaztenean gaztetxean

**E.M.** | BERGARA

Eguaztenean, hilaren 20an, *Academia Rushmore* filma ikusteko aukera izango da gaztetxeko patioan, 22:30ean. Zapuztutako ametsen gaineko komedia da, 1998an Wes Andersonek (Life aquatic) zuzendutako lana da eta aktoreen artean, Bill Murray, Jason Schwartzman, Olivia Williams, Seymour Cassel, Brian Cox eta Connie Nielsen daude. Kritika onak jaso zuen filmak bere sasoian eta soinu banda ere nabarmentzekoa da. 93 minutuko iraupena dauka.

Gaztetxeko kideek iragarritako film komikoen zikloarekin bukatzeko datorren uztailaren 27an *Zombies party* filmaren emanaldia izango da. Edgar Wright zuzendariak 2004an filmatutakoa da. Emanaldi guztiak doanekoak dira.

## OHARRAK

**AROZTEGIKO ERAKUSKETA**

Emilia Nogalesen margo erakusketa ikus daiteke Aroztegin domekara arte uztailaren 17ra arte, ohiko ordutegian. Bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era izango da zabalik aretoa eta domekan, goizez bakarrik. Hurrengo egubakoitzean, hilaren 22an, Zaloa Ipiñaren erakusketa zabalduko dute Aroztegin.

**'BIBLIOPISTINA' ZERBITZUA AGORROSINEN**

Aurreko urteotan bezala, Udal Liburutegiak *Bibliopistina* zerbitzua eskaintzen du kanpoko igerilekuan. Uda sasoian irakurketa bultzatzea du helburu egitasmoak eta igerilekuko erabiltzaileek aukera daukate Udal Liburutegiko katalogoan murgildu eta gustuko liburuen batekin gozatzeko. Irailaren 2ra bitartean aste barruan izango dira Udal Liburutegikoak Agorrosinen, 15:00etatik 18:00etara.

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Kayak Taberna

Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11


Badulake eta La Juve taldeen arteko lehia parekatua izan zen. | MIRIAN BITERI

# La Juvek eta Langostak jokatuko dute gaur Ipintzako finala

Indar Gorrirendako izan da futbol txapelketako kopa, Mongitxarraki 7–1 irabazita

MIRIAN BITERI | BERGARA

Gaur 19:00etan jokatuko dute Ipintzako futbol txapelketako finala Langostak eta La Juvek, Agorrosinen. Asteon erabaki dira finalistak. Martitzenean jokatu zen txapelketako lehen finalerdia; hain justu ere, Langosta eta Santana River taldeen artekoa. Gogorra izan zen lehia, eta penalti jaurtiketetan erabaki zen. Lehen zatia Santana River aurretik zela amaitu zen: 2-1. Baina, bigarrenean, Kruzek sartutako golari esker berdinketa lortu zuen Langostak. Penalti jaurtiketetan Langostakoak ibili ziren finago. Hemen ere berdintasuna izan zen nagusi eta, azkenean, 9-8 nagusitu zen Langosta.

Arauzko denboran, hauek izan ziren golegileak: Langosta taldean: Iban eta Elkoro. Santana Riverren: Marauri eta Kruz.

**Penalti jaurtiketetan**

Bestalde, eguaztenean, Badulake eta La Juve taldeek jokatu zuten bigarren finalerdia eta, aurrekoa bezala, hura ere parekatua izan zen. Arauzko denbora amaitu zenean, bana bukatu zuten, Urrutia (Badulake) eta Urko (La Juve) jokalarien golekin.

Penalti jaurtiketetan erabaki zen partidua eta, hemen ere, nahiko parekatua joan zen. Badulakek, penalti bakarra huts egin zuen eta La Juvek bostak sartu zituenez, azken honek lortu zuen finalerako txartela.

**Kopa, astelehenean**

Bestalde, Ipintzako futbol txapelketako kopa Indar Gorrirendako izan da, Mongitxarraki 7-1 irabazita. Joan den astelehen arratsaldean jokatutako norgehiagokan agerian geratu zen Indar Gorriren nagusitasuna; lehenengo zatirako, 3-0 irabazten zihoan. Honako hauek izan ziren golegileak: Crespo, Igartza (2), Gorka, Lenisoro, Iñurrieta eta Oregi. Mongitxarrekoen gola, ostera, Bolinagak sartu zuen.

Gaur Agorrosinen jokatuko den finalaren ostean, sariak banatuko dituzte, ohikoa den moduan, baita kopa txapelketari dagozkionak ere.

# Gaur doa Aristi Italiara, Europako txapelketara

M.B. | BERGARA

Sumofic-Lokatza taldeko Mikel Aristi bergararra Italiara doa gaur, egubakoitza, gazte eta 23 urtez azpikoen errepideko Europako txapelketan parte hartzera.

Txapelketa Italiako Offida herrian egingo dute, Adriatiko itsasotik oso gertu, Ascoli Piceno probintzian. Gazte mailan iraupen proban arituko da Aristi bihar. Gazte mailan izango den euskal ordezkari bakarra da, nahiz eta beste kategoria batzuetan egongo den ziklista euskaldunik. Ibilbideak 124,2 kilometro izango ditu, 13,8 kilometroko zirkuitu gogor bati bederatzi itzuli eman beharko dizkiote.

**Bizkaiko Biran ederto**

Bestalde, Europako txapelketari begira, hilaren 7tik 10era Bizkaiko Biran parte hartu zuen Aristik. Han ere lan ona egin zuen; lasterketako protagonistetako bat izan zen lehen etapatik bukaerara arte. Euskaldun onenaren maillot laranja lortu du eta sailkapen nagusian, 7. postua.




Jar ezazu zure autoa puntu-puntuan eta ondo pasa oporrak

bateria
argiztapena
aire girotua
iragazkiak
balaztak
gurpilak
olio nibelak...



ALMACENES LASCAR
Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11 • Bergara

BERGARA PNEUMATIKOAK
• Olio aldaketak
• Mekanika azkarra
• Garbiketa
Amillaga 6 BERGARA - Tel.: 943 763627
E-posta.: *bergarapneumatikoak@gmail.com*

DESA CRISTAL
Santalaitz 6, 5. pabilioia • 943 76 36 09 • Bergara
Ibaiondo bailara 17, 8. pabilioia • 943 69 16 16 • Irura

Ford
GARAJE BERRIA
Mekanika, elektrizitatea eta karrozeria
Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara

ION AUTOAK
Amillaga 36 • 943 76 47 49 • Bergara
CITROËN

MARKIEGI autoak
FIAT Alfa Romeo
Leizeaga 1 • 943 76 35 09 • Bergara

Murillo Garajea
EuroTaller
Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara

SPRAYTEC
Karrozerian eginiko kalte txikien konponketa azkar eta profesionala
Santalaitz 6 behea BERGARA
Tel.: 676 88 43 10 - *www.spraytec.es*

ad TXOMIN GARAJEA
Lizarraga auzoa 8 • 943 78 70 77 • Antzuola

**Beatriz Igartua, Jesus Irizar eta Idoia Irazabal** | Oñatz taldeko ordezkariak

# "Oñatz sentimendua da, droga-dosi bat bezala"

- Iaz bete zituen Oñatz dantza taldeak 40 urte eta irailean ospatuko dute
- Egun 200 neska-mutikok eta 60 irakaslek dihardute taldean


Beatriz Igartua, Jesus Irizar eta Idoia Irazabal. | MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

2010ean bete zituen 40 urte Oñatz dantza taldeak. Irailean 40. Haur Dantzarien Eguna egin zuten. "Bide oparoa eta zaila" egin du dantza taldeak. Ibilbide horretan dantzari izandakoek eta egun taldeaz arduratzen direnek pentsatu zuten urteurrenak behar bezalako ospakizuna eskatzen zuela. Horren harira, bazkaria egingo dute irailaren 3an. Beatriz Igartua, Jesus Irizar eta Idoia Irazabalek kontatu dizkigute ospakizunaren nondik norakoak.

**Ospakizunak irailean egingo dituzue, baina bazkarirako txartelak erosteko azken eguna gaur da.**

**Idoia Irazabal:** Deialdia egin genuenetik apurka-apurka saldu ditugu txartelak. Lagun talde ederra batuko gara. 100 bat espero ditugu. Hori bai, argi esango dugu gaur dela azken eguna. Bihar ez da txartelik egongo. Kultura etxean eta Anton, Aloña eta Izarraitz tabernetan daude txartelak, 25 eurotan.

**Beatriz Igartua:** Hasierako gure helburua zen 100 bat lagun batzea. Hori, behintzat, bete egin dugu.

**40. urteurreneko deialdia nortzuei zabaldu diezue?**

**I.I.:** Modu batera edo bestera Oñatz barruan daroatenei. Taldeko kide izan direnei, gurasoei, kolaboratzaileei, dantzariei...

**Jesus Irizar:** Zenbakitan laburtuz, Oñatz gaur egun da: 200 neska-mutiko eta 60 irakasle. Bada, 40 urteotan asko egon dira gurekin. Batzuek txikitan hasi eta egun jarraitzen dute; beste batzuek denbora laburra egin zuten. Guztiak dira Oñatzen historiaren lekuko.

**Urteurren borobila izanda, ospatu beharra zegoen.**

**I.I.:** Bai, noski. Iaz ez genuen ospatu, baina aurten bai. Erabaki genuen deialdi irekia egitea, eta, bazkaria baino haratago, egun bateko ospakizuna egitea.

**Antolatzaile lanetan diharduzue Oñatzen ibilitako kideek eta egungo arduradunek.**

**B.I.:** Belaunaldi ezberdinetako kideak gaude antolatzaile taldean. Hamar bat lagun gaude: hasierako dantza taldean egon ginenak, ni tartean, eta egun dantza egiten dutenak.

**I.I.:** Gainera, oso aberasgarria da adin tarte ezberdinetako pertsonak elkartzea. Oñatzek 25 urte egin zituenean ere modu berean antolatu ginen ospakizunak prestatzeko.

Guztiok genuen Oñatz komunean, baina ez genuen elkar ezagutzen.


1979ko Haurren Eguna. | JESUS IRIZAR

**Dantzari asko, urte asko... baina erreferentea beti *Txutxin* izan da.**

**J.I.:** [Barreak] Hala da, bai.

**B.I.:** Duda barik, hark egin duen lanari esker mantendu da dantza taldea.

**1970. urtean sortu zenuten Oñatz dantza taldea.**

**J.I.:** Bai. 1962an Oñatz kultura elkartea sortu zen. 1968an dantza eskolak ematen hasi nintzen Zubillagako neska-mutiko talde batekin. Tartean zegoen Beatriz Igartua. 1969an dantza egin genuen Santurtzin.

Urtebete geroago Oñatz kultura elkarteak pentsatu zuen Haur Dantzarien Eguna Oñatin ospatzea. Dantza talderik ez zegoenez, Zubillagako neska-mutikoek egin zuten dantza. Haren ondotik deialdia egin genuen herrian umeak Oñatzera erakartzeko eta Zubillagakoek bat egin zuten taldearekin.

**Kultura elkartearen barruan beste hainbat talde zeuden.**

**J.I.:** Mendi eta antzerki taldeak, abesbatza... Orduan Aloña Mendik ez zuen mendi sailik, eta elkartean sartu ziren. Abesbatzak bere bidea jarraitu zuen eta guk, gurea.

**Nolako bilakaera izan du dantza taldeak?**

**J.I.:** Bilakaera handia, baina oso zaila izan da. Proiektua bizirik mantentzeko etengabeko dedikazioa eskaini behar izan diogu. Ahoa betetzen zaigu 40 urte bete ditugula esatean, baina bide gogorra izan da.

***Txutxin*-ek badauka erreleburik?**

**J.I.:** Bai. Egun lagun asko daude lanean musu-truk. Egia da guztiok ditugula mila kontu buruan, eta dantzari edo beste ekintza bati dedikatzeko denbora eta gogo txikia. Korrika bizi gara, eta horrek asko mugatzen du boluntarioen lana. Dena den, dantza taldeak etorkizuna baduela esango nuke.

**Dantzari garaiko ze oroitzapen dituzue?**

**I.I.:** Ditudan lagun minenak dantzari izan nintzen garaikoak dira. Gainera, dantza droga-dosi bat bezala da. Oñatz sentimendua da niretako.

**B.I.:** Ni 11 urterekin hasi nintzen Zubillagan. Gero Oñatzen hasi nintzen, eta gure atzetik hasi ziren gaztetxoen irakasle izan nintzen.

**J.I.:** Egun sistema bera erabiltzen dugu taldean: helduen taldean dihardutendantzariak dira txikienen irakasle.

**40 urte pasa ondoren, nola begiratzen diozue etorkizunari?**

**J.I.:** Ondo esan beharko [Barreak]. Lanean jarraitzeko asmoarekin. 2015ean 45 urte beteko ditugu, eta nagusien taldeak 40. Urteurren hori ere ospatu gura dugu.

**I.I.:** Orain arte ondo mantendu da. Oñatin, adibidez, mutil asko daude taldean. Corpus eguneko dantzek mesede handia egin diote taldeari. Egun horretan dantza egitea sari handia da.

**ESANAK**

**"Dedikazio handia behar da taldea mantentzeko"**

JESUS IRIZAR | DANTZA TALDEKO ARDURADUNA

**"Nire lagun minenak dantzari izan nintzen garaikoak dira"**

IDOIA IRABAZAL | OÑATZEKO KIDE OHIA

**"Dantzari eta umeen irakasle izan nintzen aldi berean"**

BEATRIZ IGARTUA | OÑATZEKO KIDE OHIA

## Biain alkateak 2.500 euro poltsikoratuko ditu hilero

**M.B.** | OÑATI

Uztaileko osoko bilkura berezian emandako datuetan alkateak ia 50.000 euro kobratuko zituela aipatu zen, orain arte zuzendari moduan kobratzen zuen bera.

Bada, Oñatiko Bilduk zenbateko horiek zehaztu gura izan ditu: "Alkateak 2.500 euro garbi irabaziko ditu hilero. 50.000 euro dira Udalari ekarriko dion kostu gordina. Bildu koalizioaren akordio barruan zehaztuta dago inor ezin dela politikara sartu dirua irabaztera, eta, 2.600 euroko topearekin, aurreko lanpostuan irabaziko lukeena irabazten jarraituko duela", diote. Eurek emandako datuen arabera, aurreko agintaldian alkatearen kostu gordina (soldata+aseguruak barne) 90.000 euro izan zen, Biainena baino %45 handiagoa.

### Beste liberatua

Uztailaren 7an egindako osokoan, bestalde, Josu Lizarralde irailaren 1etik %100ean udal lanetan egongo dela esan zuten. Hark kobratuko duen soldata ez zuten aipatu. "Dena den, irizpide berberak jarraituz onartuko da: egun kobratzen duena, 2.600 euro garbiko topearekin", diote.

## Jai egitaraua osatzeko lehen bilera irekia

Partaidetza, Barne Antolamendua eta Komunikazioa eta Kultura batzordeek deitutako bileran askotariko eragileak egon ziren. "Jai egitaraua guztiekin eta guztiendako" egiteko batzar irekia egin zuten martitzenean kultura etxean. Udal arduradunek aurrekontu "itxia" dutela esan zuten, eta dagoeneko lotuta dauden ekintzen berri eman. Batzarrean zeuden eragileek euren proposamenak bota zituzten: txosnaguneko ekintzak, umeendako egun propioa, mendi bizikleta irteerarako dirulaguntza...


MIREIA BIKUÑA

# Azkaiter Pelox eta hainbat gonbidatu Antton tabernan

M.B. | OÑATI

Azkaiter Pelox bergararrak zuzenekoa egingo du gaur, egubakoitza, Antton tabernan 20:30ean. Afaldu aurretik bluesa era rock amerikarra oinarri dituen kontzertua egingo du.

Harekin batera beste hainbat musikari egongo dira. Izenik ez digu aurreratu. "Hainbat gonbidatu egongo dira nirekin, baina oraindik ez didate ezer konfirmatu. Sorpresa izango da", esan digu Unai Azkaratek.

**Diskoko kantuak**

Azkaiter Pelox bakarlari moduan hasi zen musikan, baina azkenaldian talde izaera indartzeko asmotan dihardu. "Azkaiter Pelox and The Road Band talde moduan diskoa kaleratu genuen iazko uztailean, sanferminetan, eta Oñatin lehenbizikoz aurkeztuko dugu. Hango kantuak eta esku artean ditugun berriak joko ditugu. Diskoa ezagutzeko aukera bikaina da", esan digu.

Iraupenari dagokionean Azkaiter Peloxek esan digu momentuan erabakiko dutela. "Ikusiko dugu zer nolako giroa sortzen den, musikarion eta ikus-entzuleen artean. Bluesa, rock amerikarra... Herritar guztiak gonbidatu gura ditut", esan digu.



Azkaiter Pelox, kontzertu baten. | GOIENA

# Kiroldegian eta liburutegietan udako ordutegiak uztailean eta abuztuan

M.B. | OÑATI

Ikasturte bukaerarekin batera, hainbat udal zerbitzutan aldatu egin dute ordutegia; besteak beste, liburutegietan eta kiroldegian. Hori horrela, uztailean eta abuztuan udako ordutegia izango dute.

Kiroldegia, adibidez, 07:30etik 21:30era zabaltzen dute uztailean, astelehenetik egubakoitzera. Zapatuan eta domeketan 10:00etatik 20:00etara. Abuztuan, aldiz, astelehenetan itxita egongo da eta gainerako egunetan 10:00etatik 20:00etara zabalduko dute. Abuztuan, gainera, udako kirol kanpainako hirugarren eta laugarren txandak egingo dituzte: hirugarrena abuztuaren 2tik 12ra eta laugarrena 16tik 26ra. Interesatuek kiroldegian eman behar dute izena.

**Liburutegietako ordutegia**

Bestalde, liburutegietan ere ordutegi berezia izango dute datozen asteetan.

Helduen liburutegia uztailean eta abuztuan egongo da zabalik, astelehenetik egubakoitzera: uztailean 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta abuztuan, 09:30etik 13:30era arte.

Haur liburutegiak ateak itxiko ditu abuztuan, baina uztailean zabalik egongo da astelehenetik egubakoitzera, goizez bakarrik: 10:00etatik 13:00etara.

## OHARRAK

**ARGI MOZKETA**

Domekan, hilaren 17an, argia kenduko dute herri osoan, 08:00etatik 12:00etara, azpi-estazioan hainbat berrikuntza lan egiteko. Etxetresna elektrikoak itzalita edukitzea aholkatzen dute.

**ERAKUSKETA**

Fernando Mikelarenaren margolanak eta eskulturak ikusgai daude Enpresagintza Fakultatean hil bukaera arte, 08:30etik 13:00etara eta 14:00etatik 18:00etara. Bihartik aurrera goizez bakarrik ikusi ahal izango da.

**DEIALDIA**

Txantxiku ikastolaren ingelesezko udalekuetan diharduten neska-mutikoek azken jaia egingo dute hilaren 22an Santa Ana antzokian, 18:00etan. Ondoren, luncha egingo dute umeekin eta gurasoekin.

# Garagardo ferian batutako dirua saskibaloi sailarendako izango da

## Atzo zabaldu zuten karpa eta domekara arte egongo dira plazako aparkalekuan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Domekara arte egingo dute Aloña Mendi kirol elkarteak antolatzen duen V. garagardo festa. Atzo zabaldu zuten karpa plazako aparkalekuan, eta etzira arte garagardoa eta jateko hainbat plater izango dira protagonistak. "Gaur eta bihar hainbat ekitaldi daude gaztelekuan eta plazako pilotalekuan. Ea, bada, herritarrak animatzen diren", diote antolatzaileek.

Hainbat berrikuntza izango ditu azokak. Aipagarriena da aste bukaeran jasotzen duten dirua saskibaloi sailekoendako izango dela. "EBAra jauzia egin dute eta euren aurrekontua asko handitu da. Eskubaloi sailekoen proposamena izan zen dirua eurei ematea, eta gainerako sailek proposamena babestu dute. Orain arte dirua sail guztien artean banatu izan dugu", esan digu Aloñako presidente Anton Intzak. Iaz, 5.000 euro inguru batu zituen elkarteak.

Atzo zuzendaritza batzordeko kideek inauguratu zuten feria. Aste bukaeran saskibaloi sailekoak arduratuko dira.



Futbol saileko ordezkariak, garagardo festan. | GOIENA

**Plater berrerabilgarriak**

Bestalde, iazko azokarekin alderatuta dagoen beste aldaketa jatekoen atalean dago: saltxitxa, oilasko eta ukondoez gain, brotxetak jateko aukera izango dute herritarrek. "Ikusi beharko dugu nolako erantzuna duten, baina festako sukaldariek esan digute goxoak daudela", dio Intzak.

Azken berrikuntza plateretan egongo da. Zabor gutxiago sortze aldera, Aloña Mendikoek erabaki dute plater berrerabilgarriak erabiltzea. "Orain arte behin erabiltzeko plateretan zerbitzatu izan dugu janaria. Batzen genuen zabor kopurua izugarria zen. Hori gutxitzeko plater berrerabilgarrien aldeko apustua egin dugu", esan digute.

**Hamar garagardo mota**

Baina, berrikuntza guztien gainetik, gargardoa izango da aste bukaerako protagonista. Hamar garagardo mota dastatzeko aukera egongo da. Guztia girotzeko, zuzeneko musika, haurrendako jolasak, mus txapelketa eta beste hainbat ekintza egingo dituzte karpa barruan eta kanpoan.

# Elkar Heziko ikasle ohien bazkarirako izen-ematea

## Ospakizuna irailaren 17an egingo dute, eta txartelak irailaren 8ra arte eros daitezke

M.B. | OÑATI

Elkar Hezi ikastetxean ibilitako ikasle ohiek bazkaria egingo dute irailaren 17an. Dagoeneko zabalik dago txartelak erosteko epea: irailaren 8ra arte. Kutxako 2101 0057 58 0012848719 zenbakian 15 euro sartu behar dira, eta ezinbestekoa da ikasle ohiaren izen -abizenak ipintzea. "Dagoeneko hainbat lagunek sartu dute dirua, baina ez dituzte izenak eta abizenak ipini. Hori horrela, oso zaila da zerrenda osatzea. Eskatzen duguna da ordainketa izen -abizenekin egitea", esan digute antolatzaile taldekoek. Menua izango da: patatak erroixar erara; txahal biribilkia saltsan eta hostorezko tarta (edariak, kafea eta txupitoa barne). Sagardo kupela ere egongo da.

**Gonbidapena gutun bidez**

Antolatzaileek deialdia egin dute Elkar Heziko ikasle ohien artean, baina bere garaian Beneditarretan eta Santa Eskolastika eta La Milagrosa ikastetxeetan ikasitakoak ere gonbidatuta daude bazkarira. "Etortzera animatzen ditugu. Ongietorriak izango dira", diote antolatzaile taldekoek.

Azken hamar belaunaldietako ikasleei gonbidapena gutun bidez bidali diete, baina "hedabideen bitartez zabaltzeko asmoa geneukan hortik gorako promozio guztiei", diote festa prestatu dutenek.

**Zuzeneko musika ere bai**

Egun osoko festa egingo dute: 12:00etan triki-poteoa kalerik kale; 14:30ean bazkaria; 16:30ean karaokea eta jolasak; eta 18:00etan zuzeneko musika. Alde batetik, La Polla taldearen bertsioak joko dituzte; eta, beste alde batetik, Miren, Agur eta Gorka taldeak erromeria egingo du.

Jaiaren helburua da "ikasle garaiko oroitzapenak gogoratu eta ondo pasatzea".

NIRE USTEZ



OIER ETXEBARRIA

## Euskaldunak munduan

Azken urteotan munduan zehar arrantzan ari diren euskaldunei buruz asko entzuten ari gara; arrain kontserba enpresa handien aginduak beteaz, arraina non, gure ontziak han dabiltza: Indiako ozeanoan, Txile eta Argentina parean…Toki arriskutsuetan dabiltzala ikusi eta irakurri dugu sarri, batez ere Somalia parean dabiltzalako; baina badakigu nazioarteko uretan (inoren uretan) arrantzan ari direna teknologia aurreratuenekin? Arrainak kostaldera hurbildu aurretik, satelite bidezko abisuekin, sareetan nola bildu ikasi dute. Eta horren ondorioak dira inguruko lurraldeetako arrantzaleentzat gero eta arrain gutxiago eta arrain horiek jaten dituzten animaliek (fokak…) gero eta jateko gutxiago.

Bestetik, inguruko enpresa askok, munduko hainbat herrialdetan esperientzia berriak hasi dituzte. Nazioarteratze helburuen atzetik, baina, beste helburu batzuk ere betetzen ari gara. Baina zein da helburu garrantzitsuena? Ez ote da izango, piraten antzera, dagoen lekutik ahal den aberastasun gehien ekarri nahian gabiltzala?

Euskal Herriko egoera berriak, guzti honen gainean esperantza piztuta mantentzen laguntzen dit. Laster, euskaldunok gure eskubideak aldarrikatu eta lortzeko bidea izango dugu, eta horren harira munduan barreiaturik dagoen diru gose eta besteen gainetik egon nahiaren grina alde batera utzi eta herri bezala desberdinak garela aldarrikatu ahal izango dugunaren esperantza daukat. Hori bai litzatekeela benetan independenteak izatea.

**"Ez ote da izango aberastasuna ekarri nahian gabiltzala?"**

# Bilduk eta Aralarrek osatu dute Udal Gobernua

## Hamaika batzorde osatu dituzte, eta buruak izendatu

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Astelehenean, hilak 11, egin zuen udalbatzak agintaldiko lehenengo osoko bilkura, eta batzordeak osatu. Azken agintaldian legez, ohiko osoko bilkurak astelehenetan egingo dituzte (18:00), bi hilabetean behin, eta lehenengoa irailaren 26an izango da.

Alkateordeak izendatuta hasi zuen bilkura Ana Bolinagak. Hona lehenengotik laugarrenera: Lore Martinez, Zigor Kintanilla, Tomas Fernandez eta Inaxio Garro. Hala, bada, Aralarrek Udal Gobernuan sartzea erabaki du eta lau horiek, Bolinagarekin batera, gobernu batzordea osatuko dute.



Agintaldiko lehen osoko bilkura, astelehenean. | M.A.

### Erakundeetako ordezkariak

Hamaika batzorde osatu dituzte, eta buruak izendatu. Hona: Kultura eta Gazteria: Zigor Kintanilla; Euskara eta Hezkuntza: Jose Luis Martin; Emakumea: Olaia Sagredo; Garapen Ekonomikoa: Ana Bolinaga; Hirigintza: Edorta Mendieta; Obrak eta Zerbitzuak: Jose Anjel Antxia; Ogasuna: Ana Bolinaga; Ingurumena, Auzoak, Turismoa eta Merkataritza: Lore Martinez; Kirola eta Aisialdia: Tomas Fernandez; Ongizatea: Maider Aizkorbe; eta Parte-hartzea eta Komunikazioa: Ana Bolinaga.

Era berean, hainbat erakundetan izango diren ordezkariak izendatu zituzten; hona batzuk: Udal Euskaltegia: Jose Luis Martin, Inaxio Garro eta Mikel Uribetxebarria; Debagoieneko Mankomunitatea: Ana Bolinaga, Lore Martinez, Zigor Kintanilla eta Tomas Fernandez; Suradesa: Edorta Mendieta; Leintz Bailarako Osasun Kontseilua: Maider Aizkorbe eta Tomas Fernandez; Eskola Kontseilua: Jose Luis Martin; industrialdea: Ana Bolinaga eta Lore Martinez; eta Eudel: Ana Bolinaga.

Alkatearen soldata zehaztu zuten gero, 1.985 euro, "eskolan orain arte izan dudana". Gehiengo osoz onartu zuten guztia.

# M-15 mugimendua dute berbagai erretiratuek

M.A. | ARETXABALETA

M-15 mugimendua eta halako zeresana eman duten *suminduak* izango dituzte eztabaidagai erretiratuek datorren martitzenean, hilak 19, Basotxon (17:00). Orain hilabete batzuk hasi ziren eztabaida mahaiak antolatzen, eta hainbat gai landu dituzte ordutik hona; tartean, alkatearekin eta hauteskundeetara aurkeztutako zerrendaburuekin izan dira.

### 'Suminduak' ezagutu

Eztabaida mahai horien helburu nagusia da eztabaidatzen ikastea gainerakoen esanak errespetatuta eta izendatutako gaia gehiago ezagutzea gainerakoen iritzia entzunda. Hala, M-15 mugimenduko kideen proposamenak, eskaerak eta leloak aurkeztuko dituzte, lehenengo, gaia kokatzeko, eta aditu batzuen iritziak jarriko dituzte mahai gainean, gero; Jose Arregi eta Jose Ignacio Fernandez Faus adituena, hain zuzen.

Hori jakinik eztabaida bideratuko dute, norberaren iritzia ezagutzera eman eta gainerakoena entzunda.

# Portasolgo jaiak: gaurtik domeka gauera, geratu barik

M.A. | ARETXABALETA

Hamar urte jairik egin barik egon eta gero ate joka ditugu Portasolgo jaiak berriro. Aretxabaletako hegoaldeko merkatari, ostalari eta bizilagunek elkarrekin antolatu dituzte, eta ekitaldi mordoa iragarri gaur hasi eta domeka iluntzera bitartean.

### Ekitaldiak hainbat tokitan

San Lorentzo jaiak ospatzen zituzten sasoi baten Portasol aldean; baina abuztuan (abuztuaren 10ean da San Lorentzo eguna) beharrean uztail erdian egiten zituzten. Ospe handiko jaiak, poliki-poliki behera egin zuten, eta 2002an ez zituzten antolatu. Aurten berreskuratzeko ahalegin handia egin dute, "nahiz eta berandu hasi antolatze lanetan", eta jarraipena izango duten jaiak izango direla iragarri dute.

Toki bakarrean egin beharrean ekitaldi guztiak hainbat kale, plaza eta bazterretan izango dira. Hala, kontzertuak Eguzki Alde elkarte aurrean eta Zaraia taberna atzean izango dira; eta umeendako parkeak, Gipuzkoa plazan, Loramendi kalean eta kiroldegi aurreko zelaian. Gainera, trikitilariak eta txaranga ibiliko dira hiru egunetan jaiak girotu eta bizilagunei lagun egiten.

### EGITARAUA

**UZTAILAK 15, EGUBAKOITZA**
- **18:00** Txupinazoa eta buruhandiak.
- **23:00** Rock jaialdia, Araba ibilbidean: Drop, Fly Shit eta Baltzak.
- **23:00** Mariachiak, Zaraia atzean.
- **17:00** Umeendako parkeak.
- **18:30** Pintxo-poteoa.
- **23:00** Rock jaialdia: Gazte Iraultza, NPJ, NCK eta The Crackers.
- **23:00** Disko dantza, Zaraia atzean.
- **24:00** Suak, Txiki bar tabernan.

**UZTAILAK 16, ZAPATUA**
- **10:30** Diana eta buruhandiak.
- **11:30** Beteranoen arteko futbol partidua: Aretxabaleta–Eibar.
- **11:30** Umeendako parkeak: Gipuzkoa plazan, Loramendi kalean eta Ibarrako zelaian.
- **16:00** Mus txapelketa, Eguzki Alde elkarte aurrean.
- **16:00** Hiruko areto futbol txapelketa, Gipuzkoa plazan.

**UZTAILAK 17, DOMEKA**
- **09:00** Mendi martxa; irteera Gipuzkoa plazan.
- **11:00** Umeendako parkeak.
- **12:00** Tango erakustaldia, Gipuzkoa plazan.
- **16:30** Xake txapelketa, Eguzki Alde elkarte aurrean.
- **17:30** Zekorrak eta poneyak, Ibarrako zelaian.

Garbitasun Zerbitzu Integrala
- Komunitateko garbiketak
- Obra amaierakoa
- Lokalak
- Garajeak
- Bulegoak
- Graffitiak
- Etab...

GRUPO Zoia
Nafarroa Etorbidea 6 ARETXABALETA
Mug: 661 33 83 98 / 661 45 51 47
www.grupozoia.com
g.zoia@euskalnet.net

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Garbittu
Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak
Arropa garbiketak

# Aretxabaleta erdi-erdian

Etxebizitzen 2. fasea – Prezio berriak





2 eta 3 logelako etxebizitzak

•

Sukaldea jantzita
(altzari eta etxetresna elektrikoak barne)

•

Trastelekua beheko solairuan



GRUPO ORTUIBAR

**Etor zaitez informazioa jasotzera, konpromisorik gabe:**
Iturrizar 1, behea – ARETXABALETA – Tel.: 943 79 40 00
Ibargarai 36, behea – BERGARA– Tel.: 943 76 11 18
www.ortuibar.com - ortuibar@telefonica.net



Sokaide: sokaren eta haizearen, biolinaren eta trikitiaren soinuaren nahasketaren emaitza da. | GOIENA




Malatuk Jose Aranako jolastokian joko du. | GOIENA

# Jazza, euskal folka eta perkusioa, Errekan Goran

## Malatuko eskarmentudun musikariek joko dute gaur gauean Jose Aranan; bihar, zapatua, Sokaide taldekoek Apotzagako futbol zelaia girotuko dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Indartsu dator ostera ere asteburua, Errekan Gora jaialdiaren harira. Gaur, egobakoitza, Malatu taldea izango da Jose Arana ikastolako jolastokian, 22:30ean; bihar, ostera, Sokaidek hartuko du lekukoa, ordu berean, Apotzagan.

Malatu Gasteiz eta Leintz Gatzagako kideekin 2005ean sortutako taldea da. Besteak beste, Itoiz, Ruper Ordorikaren Mugalaris, Potato, Gasteiz Big Band eta Mikel Laboarekin ibilitako eskarmentudun musikariek osatzen dute taldea.

Lehen diskoa aurkeztuko du Jose Aranan, inprobisazioz betetako zuzenekoa eskainita. Brasilgo melodiak, Europa ekialdekoak, flamenko ukituko doinuak, jazza… fusioa egiten dute horretan. Konplexurik gabeko diskoa dela diote Malatukoek; denera, 12 kantu ditu. Abesti batetik bestera sorpresak sartu dituzte. Cabo Verde, New Orleans, Cadiz eta Lekeitiora eroango ditu zaleak esandako diskoak.

**Hamar kantu**

Bihar, esan bezala, Apotzagak hartuko du Errekan Goraren lekukoa. Sokaide talde amurriarrak *Ortozik* izeneko lana aurkeztuko du hango futbol zelaian. Hamar abestiz osatuta dago, eta, oinarri nagusia folka bada ere, askotariko tendentzia eta estiloekin bat egindako kantuek dute lekua bertan. Berez, instrumentuak kontuan izanik, talde horren funtsa folk tradizionala edo folk-rocka dela esan daiteke, baina estilo ezberdinak batzen ditu, sustraiei uko egin barik.

Soka eta haize musika-tresnak lotzen dituen taldea 2009an osatu zen, Igor Olaguenagarena trikitilaria eta Urko Izquierdo biolin-jotzailea elkartuta; hain justu ere, haizea eta soka. Jarraian, Alex Lopez baxu-jotzailea, Josu Barrenengoa bateria-jotzailea, Ander Tejerina gitarra-jotzailea eta Naroa Gaintza abeslaria heldu ziren, guztiak ere eskarmentudunak eta beste hainbat taldetan ibilitakoak.

Aitzorrotz kultura elkartetik ikuskizun bietan parte hartzeko dei egin dute. Biharko emanaldira afariarekin igotzea gomendatu dute; horren harira, taberna egongo dela azaldu dute.

# Eskoriatza kirol elkarteak ohiko batzarra egingo du gaur

M.B. | ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, urteroko ohiko batzar orokorra egingo du Eskoriatza kirol elkarteak herriko kultura etxeko areto nagusian. Bi deialdi egin dituzte: lehenengoa 18:30ean eta bigarrena, ordu erdi geroago.

Kirol elkarteko presidente Javi Corbalek azaldu digu, lehenik eta behin, amaitu berri den 2010/2011 denboraldiko kirol balantzea egingo dutela. Elkarteak dituen sailen ordezkariek egingo dute bakoitzaren gaineko laburpen motza. Horretaz gainera, urtea zelan joan den eta datorren denboraldiaren aurreikuspenaz ere jardungo dutela jakinarazi du Corbalek.

Azken horren harira, presidenteak azaldu du aurten Arabako ligan mailaz jaitsi den areto-futbolaren taldea ostera ere igotzen saiatuko direla. Ekainaren 11n, gauez egindako *Gabez Takarraran* izeneko mendi lasterketaz hitz egiteko asmoa ere badute. Corbalek nabarmendu du ekimen hori antolatzea neketsua izan bazen ere, espero duela horri jarraipena ematea.

**70.000 euro**

Arlo ekonomikoaz ere egingo dute berba. Corbalek aurreratu digu datorren denboraldiari begira, denera, 70.000 euro inguruko aurrekontua izango duela elkarteak.

Bestalde, Manolo Muñozen heriotza dela-eta, elkartearen berrantolaketarekin ere aurrera dihardute; asteon, estatutu berriak aurkeztu dituzte Jaurlaritzan. Jakina denez, Javi Corbal hartu du presidente kargua eta Jose Gomez, presidenteordearena.

## OHARRAK

**80 URTETIK GORAKOEN MERIENDA ELIZOSTEN**

Urtero moduan, 80 urtetik gorako eskoriatzarrek merienda egingo dute hilaren 21ean. Elizoste elkartean izango da otordua, 19:00etan. Dagoeneko itxita dago horretarako izen-ematea.

**UDAN GOIZEZ EGINGO DUTE LAN UDALETXEAN**

Uztail, abuztu eta irailean udako ordutegi berezia izango dute udaletxeko herritarrendako arreta zerbitzuan. Udaletik jakinarazi digutenez, astelehenetik egubakoitzera bitartean goizean egongo da zabalik esandako zerbitzua; hain justu ere, 10:00etatik 13:30era.

# 102 urte eta aurrera; zorionak, Carmen!

Bihar, zapatua, Carmen Aranburuzabalak 102 urte egingo ditu; hori dela eta, atzo, eguena, Olazar erretiratuen elkarteko kideak eta udal ordezkariak haren etxera joan ziren eskoriatzarra zoriontzera. Pozik topatu zuten, eta gustura jaso zituen opariak. Hemendik ere zoriondu gura dugu. Zorionak, Carmen!



MIRIAN BITERI

# Alarde berezia egin zuten txikitxoek jaiei hasiera emateko

## Domekara bitartean ekintza ugari izango dira herriko jaiak ospatzeko

**USOA AGIRRE** | ANTZUOLA

Atzo, eguena, hasi ziren jaiak Antzuolan eta aste bukaera guztian ere festa izango da nagusi herrian.

Gaur, egubakoitza, gastronomia lehiaketa egingo da goizean eta umeendako jolas parkea egongo da egun guztian zehar.

**Alardea zapatuan**

Zapatuan, uztailak 16, egingo da alardea. Alejandro Muxika eta Iñaki Arbulu zena omenduko dituzte alardean zehar.

Domekan larrain-dantza, erromeria eta zezensuzkoa izango dira jaiak bukatzeko.



Eskopeta eskuetan, bikain aritu ziren txikienak alarde berezian. | GOIATZ ARANA

### ASTE BUKAERARAKO EGITARAUA

**EGUBAKOITZA 15**

- **10:00** Txistulari taldearekin GOIZERESIA.
- **10:15** 4. GASTRONOMIA LEHIAKETA, gaztetxearen aurrean.
- **11:00** Umeendako JOLAS PARKEA eskolako parioan.
- **12:00** MEZA NAGUSIA.
- **12:45** Balkoi eta leihoetako XV. LORE APAINKETA LEHIAKETA eta gastronomia lehiaketaren sari banaketa.
- **13:00** PATATAK ERRIOXAR ERARA dastatzeko aukera.
- **14:30** HERRI BAZKARIA Kalebarrengo arkupeetan.
- **16:30** JOLAS PARKEA eskolako patioan.
- **18:30** PONEYAK ETA ZEZENTXOAK Zurrategin.
- **19:30** Afizionatuen PILOTA PARTIDUAK pilotalekuan.
- **19:30** Iñaki Mataren *Barreras* KALE ANTZERKIA herriko kaleetan zehar.
- **22:30** ZEZENSUZKOA.
- **23:00-01:00** DANTZALDIA Trovahabana talde kubatarrarekin saioa Herriko Plazan.

**ZAPATUA 16**

- **09:55** KANOIAK SUTZEA.
- **10:00** Txistulari taldearekin GOIZERESIA.
- **11:30** Bergarako bandaren KALEJIRA.
- **11:30** SKATE PARKEA Herriko Plazan.
- **12:30** BANDAREN KONTZERTUA.
- **19:00** MAIRUAREN ALARDEA. Oinarinen dantzak aldardean zehar izango dira.
- **21:30** HERRI AFARIA Zurrategin.
- **22:30** Joselu Anaiak taldearekin ERROMERIA Herriko Plazan.

**DOMEKA 17**

- **11:30** KORTXEA DOKTOREAREN ABENTURAK, Zurrategin.
- **12:30** DUO PLAENTXIREN SAIOA Herriko Plazan. Salda egongo da erretiratuen eskutik.
- **18:00** TATXIN ETA TATXAN PAILAZOAK Herriko Plazan.
- **19:00** HIP-HOP saioa Zurrategin.
- **20:30** LARRAIN-DANTZA, Ondarreko gaiteroen laguntzarekin.
- **20:45** Izer, Alabier eta Lutxurdiorekin ERROMERIA plazan.
- **1:00** ZEZENSUZKOA eta jaien bukaera Herriko Plazan.

## OHARRAK

**JAIETARAKO AUTOBUSAK**

Jaietan Antiguan geratuko dira autobus guztiak. Bestalde, gaueko autobus zerbitzu berezia eskainiko du PESAk uztailaren 15 eta 16an. Bergaratik eta Zumarragatik 22:30ean irtengo da lehenengo autobusa Antzuolara eta 6:10ean izango dira bueltarako azken autobusak. Orduerdiro ibiliko dira autobusak Bergara eta Zumarraga arteko ibilbidea egiten.

**HONDAKINEN BILKETA**

Egubakoitzetik domekara bitartean 12:00etatik 14:00etara atera beharko dira etxeko hondakinak, egun bakoitzean dagokiona.

**APARKATZEKO DEBEKUA**

Uztailaren 19ra, martitzena, bitartean ezingo da ibilgailurik aparkatu Herriko Plazan, Buztinzurin eta Kalebarren 1 aurrean.



ARROLA

## Arrolakoak Pirinioetan

Petit Vignemale igo zuten zapatuan; domekan, berriz, Vignemale batzuk eta Pico de la Sedera beste batzuk. Baysellanceko aterpean egin zuten lo. Kanpoan pasa zuten gaua batzuek, kanpin-dendetan; ekaitza jasan behar izan zuten. Oso giro ona egin zuen aste bukaera osoan, eta, nekatu arren, lagunarte ederrean ibili ziren.

HORTZ KLINIKA
Ana Sainz Malkorra
Mediku estomatologoa
Elkargokide zk.: 20000437
PADI • Odontologia orokorra
Periodontzia eta inplanteak
ZORIONAK, ANTZUOLAR GUZTIOI!
Herriko Plaza 4, behea 20577
Antzuola Tel.: 943 78 71 69

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23




Uztailaren 8a ezkero dabiltza Ondare Babeseko arkeologoak Murugainen industen; aste barruan egunero dihardute, 08:00etatik 16:00ak arte. | ANDER MONEDERO

# Murugaingo indusketak bertatik bertara ezagutzeko aukera egongo da domekan

Proiektu irekia denez, Udalak herritarrei dei egin die indusketak ikus ditzaten

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Udalak Murugaingo indusketa lanen berri eman eta proiektua bertatik bertara ezagutzeko aukera eman nahi die herritarrei. Izan ere, Gasteizko Ondare Babesa arkeologia enpresak gidatutako eta Udalak zein Aramaioko Ondarearen Babeserako Taldeak (AOBT) bultzatutako proiektua irekia da eta herritarren parte-hartzea bultzatu gura du: "Indusketa proiektua herriari zabaltzea nahi dugu eta herritarrendako egitaraua antolatu dugu gaiaz sentsibilizatzeko eta Murugaingo proiektuaz guztiok gozatzeko", jakinarazi dute prentsa ohar baten bidez.

**Lehen hitzordua, domekan**

Aramaio, Aretxabaleta eta Arrasate arteko Murugain tontorreko indusketa lanak uztailaren 8an hasi ziren eta hilaren 10ean egin zuten proiektuaren aurkezpena, Sastiñan. Indusketa lanok aste barruan egiten dituzte, 08:00etatik 16:00ak arte. Burdin aroko herrixka baten aztarnak eta 36ko gerrako lubaki baten aztarnak aurkitu gura dira. Honakoa da herritarrei begira antolatu den egitaraua: hilaren 17an eta 24an 36ko gerrako trintxerak lokalizatu eta lubakion mapa egingo dute, auzolanean. Mendi buelta bat egingo dute, bidean dauden trintxerak lokalizatuz. 09:30ean irtengo dira udaletxetik.

Uztailaren 31n, berriz, Ondare Babesa enpresako Etor Telleria arkeologo arduradunak bisita gidatua egingo du indusketen gunean bertan. Ekintzotan izena emateko udaletxera deitu behar da –945 44 50 16–.

## Uretan gozatu ahal izateko hiru hitzordu gazteendako

**J.B.** | ARAMAIO

Udaleko Kultura Sailak hiru hitzordu antolatu ditu gazte aramaioarrendako uztailerako. Hilaren 22an Gamarrako igerilekuetan pasako dute eguna, 27an kanoan zeharkaldia egingo dute Urdaibain eta, azkenik, 29an surf ikastaroa egingo dute Zarautzen. Ekintza guztiek ura dute oinarri eta, beraz, gazteendako hitzordu erakargarriak dira. Hiru ekintzak egun osorako dira; 10:00 aldera irten eta 18:00etarako bueltatuko dira.

**Azken eguna, uztailak 19**

Ekintzok 13 urtetik gorako gazteei daude zuzenduta eta izena emateko udaletxera jo behar da, uztailaren 19a baino lehen. Ekintza bakoitzean parte hartzeko 10 euro ordaindu beharko dira.

Bestalde, hilaren 19an Zuiako Koadrilako umeen Euskararen Eguna ospatuko da Izarran; goizean denetariko ekintzak izango dira. Udalekuetan parte hartzen ez duten umeek izena eman beharko dute. Parte-hartzea doan izango da.

# Santa Marina jaiak izango dira aste bukaeran Arexola eta Arriola auzoetan

Gaurko bertso afarian Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña egongo dira

**J.B.** | ARAMAIO

Arexola eta Arriola auzoak jaietan izango dira aste bukaeran, Santa Marina jaietan, hain zuzen. Beraz, gaur hasi eta domekara arte egitarau zabala antolatu dute auzotarrek, jaiok auzotarrek auzotarrendako eginak dira-eta. Haur, gazte zein helduendako egitaraua prestatu dute.

20:00etan hasiko dira jaiak etxafuego eta kanpaien errepikaz. 21:00etan auzoko bertso afaria egingo dute goi mailako gonbidatuekin; izan ere, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña etorriko dira.



Bertso afarian giro paregabea izan zen iaz. | OIHANA ARRIZABALAGA

**Bizikleta lasterketa bihar**

Zapatuan, berriz, egun osorako egitaraua prestatu dute: 12:00etan meza, 13:00etan Ibarra auzotik Arexolara bizikleta lasterketa, 17:30ean mus eta briska txapelketa plazan, 18:00etan Arexolatik Arriolara kalejira, 19:30ean kanpai jotzearen erakustaldia eta 22:30ean dantzaldia Laja bigarrena eta Narbaiza trikitilarien eskutik. Parrandarekin behar den moduan amaitzeko, goizaldean txokolatea eta bizkotxoak banatuko dituzte. Biharko ekitaldien artean, bizikleta lasterketa nabarmendu beharra dago, urtero adin guztietako hainbat parte hartzaile batzen ditu-eta. Gaztetxoek primeran pasatzen dute; antolatzaileek espero dute aurten ere hala izatea.

Zapatuko ajeari aurre egiteko hiru ekitaldi izango dira domekan: 12:00etan meza nagusia, mezaren ostean Aramaioko dantza taldearen emanaldia eta 18:00etan umeendako jolasak. Jolasen ostean datorren urtera arte agurtuko dira jaiak.

### Frontenis txapelketa eta bertso merienda bihar, udalekuei asteburuan jarraipena emateko asmoz

Udalekuez gain gaztetxoendako uztaileko asteburuetan ekintza bereziak antolatzeko sortutako ekimenaren barruan, 8 eta 13 urte artekoendako frontenis txapelketa eta edonork parte hartzeko bertso merienda egingo dira bihar. Bertso meriendaren helburua da gaztetxoenei jendaurrean bertsotan egiteko aukera ematea.

**NIRE USTEZ**

**XABIER IGOA**



## Dantzatu nahi al duzu?

Orain bi aste Sanmartinetan geunden, jai giro betean. Asteburu bikaina izan zen eta asko gozatu genuela uste dut. Egubakoitz, zapatu, domeka eta asteleheneko gauetan izandako dantzaldiak horren adierazgarri baino ez dira, herriko edozein tabernara zein txosnetara urreratzea besterik ez zegoen dantza giro horretaz gozatzeko.

Domeka eguerdian, aldiz, dantza giroa erabat desberdina izan zen. Ez zen ajea nabari zelako edo txistu eta danbolinak alaitzen zituelako denon belarriak, ezta dantzarien jantziak bereziak zirelako; neskak mutilak baino gehiago zirelako baizik. Uste dut badakizuela zer esan nahi dudan. Aramaion azkenaldian mutil dantzari gutxi daude, egunean zehar behintzat.

Gogoan daukat azken aldiz nik dantza egin nuenekoa eta gure taldetxoak adinean zuen aldea. Ni nintzen gazteena askogatik; gaur egun lau bat mutiko ari dira euskal dantzetan. Gauetan aldiz gutxi dira *danza kuduro* entzun eta lotsaturik izkinara joaten direnak.

Ez dago dudarik gaueko ordu txikitan beste gauza batzuk ere asko laguntzen dutela, baina ez litzateke polita izango iraganean izan genituen bezalako dantzari taldeak izatea? Agian, domekako dantza saioa zapatu gauetara pasa beharko genuke ea horrela mutilen bat animatzen den banako bat dantzatzera.

ELGETA

# Batzordeen ardurak banatuta, martxan da agintaldi berria

Astelehenean, uztailak 18, egingo dute lehenengo Hirigintza batzordea

**OXEL EROSTARBE**
ARALAR-IND.

### "Ilusio bera, eta esperientzia handiagoa"

"Positiboa da alderdi bakoitzak bere ardurak hartzea; herritarren borondatea islatuta gelditzen da horrela, nire ustez. Gehiengorik ez egotera ere denok behartuta egongo gara adostasunetara iristera, eta, batzuetan zailagoa den arren, herrira begira adostasunak topatzen ditugun heinean positiboa da.

Aralar-Independenteak taldean ilusio berarekin eta esperientzia handiagoarekin helduko diogu agintaldi berriari. Badaude proiektuak eta denon ahalegina beharrezkoa izango da horiek guztiak bideratzeko".

**JANIRE LAZKANO**
BILDU

### "Jende berria lanerako ilusio handiarekin"

"Ezer esan aurretik adierazi nahiko nuke jende berria garela eta bi batzorde betetzera gatozela lanerako indar eta ilusio handiarekin.

Gure asmoa da kultura herrira zabaltzea, eta herritarren parte-hartzea bultzatuz benetan plazara ateratzea.

Herriko euskara indartu gura dugu eta bizkaierako zein hikako ikastaroak egin nahi ditugu. Gaztetxearen eta Udalaren arteko hartu-emanak sendotu egin nahi ditugu, besteak beste, Sagardo Eguna Asentzio Eguna eta halako jaiei bultzada emateko".

**PATXI BASAURI**
EAJ

### "Ideiak badaude, baina diruak aginduko du"

"Elgetan badugu esperientzia batzordeak alderdi politikoen artean banatzen eta funtzionatu egin izan du.

Baserritarren kontuetan aurreko tonika mantenduko dugu. Amaitzeko dauden lanak ikusi, eta agintaldirako dauden baliabideetara egokitutako plangintza aurkezten saiatuko gara.

Turismo kontuetan ere egoera zein den ikusi eta proiektuak finkatzen saiatuko gara. Buruan dut, esaterako, Lagunartea errota martxan jartzea. Ideiak badaude, baina iruditzen zait diruak aginduko duela lau urteotan".

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Zazpi batzorde izango ditu Udalak agintaldi honetan, aurrekoan baino bi gutxiago. Bilkurak, berriz, hileko azken martitzenetan egingo dituzte, 19:00etan. Ordubete aurreratu dute bilkuren hasiera; alkatearen esanetan, bilkura horietan herritarren parte-hartzea errazteko.

Bada beste nobedaderik: osokoan ordezkaritza duten alderdi guztiek hartuko dituzte ardurak; izan ere, adostu egin dute batzordeen banaketa. "Horrela funtzionatu izan dugu urteetan", gogoratu du EAJko Patxi Basaurik. "Aurreko agintaldia izan zen salbuespena".

**Ordainsari berak**

Zinegotzien ordainsariei eta alkatearen soldatari dagokienez, ez dago aldaketarik. Zinegotzien eta talde politikoen ordainsariak, guztira, 12.420 euro izango dira urtean. Alkatearen soldata ia 25.000 euro da eta uko egin dio agintaldi honetan ere Oxel Erostarbek.

Astelehenean, uztailak 18, egingo dute lehenengo batzordea; Hirigintza batzordea, hain zuzen ere. Agintaldirako udal ordezkariek egin dituzten aurreikuspenen artean ilusioa eta lanerako indarra nabarmendu ziren.

## Udal batzordeen banaketa

Hazienda, Pertsonala, Zerbitzuak eta Parte hartzea



Oxel Erostarbe
Aralar-Ind.

Hirigintza eta Etxebizitza



Iban Retolaza
Aralar-Ind.

Hezkuntza



Ana Gillegi
Aralar-Ind.

Kirolak eta Aisialdia



Jose Mari Zubiaurre
Aralar-Ind.

Ongizatea eta Osasuna



Marga Castro
Bildu

Kultura, Euskara, Gazteria eta Jaiak



Janire Lazkano
Bildu

Baserritarrak eta Turismoa



Patxi Basauri
EAJ

### Joseba Muxika elgetarra Elorrioko alkateorde izendatu dute

Azken zortzi urteotan Elgetan EAJko zinegotzi izan den Joseba Muxika elgetarra Elorrioko alkateorde izendatu dute. Ana Otadui jeltzalea da Elorrioko alkate, eta karguari eutsiko dio, baina legebiltzarkide ere bada eta karguan jarraitzea erabaki du. Hala, Muxikak hainbat ardura hartuko ditu Elorrioko Udalean.

### Intxortako ibilbidea markatzeko seinaleak ipintzen hasi dira

Gipuzkoako Mendi Federazioko langileak martitzenean hasi ziren Intxortako ibilbide tematikoan gezi formako seinaleak ipintzen. "Ibilbidea balizatuta dago", adierazi du Urdin Elortza teknikariak. "Seinaleztapenak amaitzeko, geziak eta Herriko Plazako panela ipini behar ditugu".

### Zapatuan kosta aldera Ozkarbi mendi taldearen eskutik

Biharko, zapatua, lau orduko mendi buelta antolatu du Ozkarbi mendi taldeak. Uztaileko irteera egingo dute; Zumaia eta Deba arteko ibilbidea, hain zuzen ere. Taldea 08:00etan abiatuko da Ozkarbi aurretik. Autoan egingo dute Zumaiara arteko bidea.

### Ozkarbiko giltza berrien banaketa astelehenetik aurrera

Aurreikusi gabeko arazo teknikoengatik jai ostera arte atzeratu zuten giltza berrien banaketa Ozkarbi elkartean. Zuzendaritzak giltzak jasotzeko ordutegi berria ipini du eta astelehenetik, uztailak 18, aurrera banatuko dituzte. Kontsumoak apuntatzeko ere erabili beharko da giltza.

NIRE USTEZ



**BEATRIZ ZABALONDO**

## Gure medioak erdaraz

Egunkaria erostera joan kioskora eta ugari aurkituko ditugu erdarazkoak. Euskarazkorik, baldin bada, bakarra. Eta ez da beti bistan topatzen; eskatu egin behar.

Irrati emisorak baditugu apur batzuk gehiago euskaraz. Duela gutxi joan gara dendara irrati-tresna erostera eta saltzailea azalpenak ematen hasi zaigu: hor dabil frekuentziekin atzera-aurrera, ze ondo entzuten den erakusten. Azkenean, esan egin behar: "Zer da, erdaldunendako irratia?".

Telebista bada erosi behar duzuna, etxera eraman eta eurek jarriko dizutela esaten dizute. Hango kanala bilatu beharra! Amaitu duenean teknikariak, hasten zaizu kanal-pasada egiten... Lehenengoa gaztelaniazkoa, bigarrena berdin, hirugarrena igual... eta orduan: "A, eta euskarazkoak hemen dauzkazu". Begiratzen diozu teknikariari, eta harrituta esaten dizu: "Ez duzu ulertu, ala?". Bote prontoan, gogoa ematen dizu esateko: "Nik bai. Eta zuk?". Baina hurkoari errespetua zor zaiola erakutsi ziguten eta horren ordez: "Nik orain arte euskarazkoak izan ditut lehenengo, eta holaxe nahi ditut". Hura ere euskalduna da eta, ezagutzen zaituenez, ezer esan gabe atzekoz aurrera kanalak aldatzen hasten da –auskalo zer pentsatuta!

Udan gaude, mugikorra aldatu behar dut eta... hasi hadi berriz kaka esplikatzen!

**"Euskarazkoak izan ditut lehenengo, eta holaxe nahi dut"**

LEINTZ GATZAGA

# Gureleko kideak oso pozik Umeen Egunak izandako arrakastarekin

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteko kideek antolatuta Umeen Eguna ospatu zuten lehenengoz Gatzagan joan den zapatuan. Eta antolatzaileak oso pozik daude ospakizunak izan zuen harrerarekin. Hori horrela, eskerrak eman gura dizkiete egun hura gertatzen lagundu zieten guztiei.

"Egun horretarako aurrekonturik ez geneukala kontuan izanda, herritarren laguntza eta borondateaz aprobetxatu beharra izan genuen eguna aurrera ateratzeko, eta, oraingoan ere, gatzagarrok erakutsi dugu dirurik ez baina borondatea soberan daukagula", jakinarazi dute antolatzaileek.

**Jarraipena izango duen eguna**

Kanpoko familiak ere gonbidatu zituzten Gureleko kideek Umeen Eguna ospatzeko, eta kanpotik hurbildu ziren familia guzti horiei ere eskerrak eman gura dizkiete: "Gure herrira gerturatu, gure historia pixka bat ezagutu, eta jai giroan egun berezia ospatzen laguntzearren eskerrik asko".

Elkartutako umeen parte hartzea handia izan zela jakinarazi dute, eta herriko gaztetxoek izugarri lagundu zietela ospakizunarekin onartu dute: "10 eta 14 urte bitarteko gazteek antolatu zituzten jolasak eta buruhandiak, eta txikitxoenen zaintzan ere lagundu zuten. Hortaz, guzti horiei ere esker mila".

Eta gaineratu dute egutegian egun berezi moduan markatzeko balio izan dietela aurtengo ospakizunak: "Egunaren balorazioa oso ona izan da, hortaz, hurrengo urtera begira, denbora gehiagorekin eta aurrekontu handiagoarekin, ziur gaude herria bizirik dagoela biziki demostratzeko gai izango garela".

Aperribay, s.l.
Marmoldegi
eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

TELEBISTA



Telebistaren irabazlea uztailaren 18an jakinaraziko dugu.

16"-ko LCD telebista

• TDT integratua.
• PCrako konexioa.
• HDMI.
• USB 2.0.

EROSKI

KAMISETEN IRABAZLEAK

Aitor Belastegi Aranzabal
(Antzuola)
Marijo Erostarbe Garitano
(Oñati)
Floren Arana Barandiaran
(Arrasate)
Jose Ramon Lasaga Arana
(Oñati)
Jon Ezpeleta Calvo
(Arrasate)



euskaltel

Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: *kluba@goiena.com*
*www.goienakluba.com*
Urteko kuota: 48€

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



Mikel Otxoa, iazko edizioan, Gatzagako herriguneko tartean, ikusle gehien batu zen bertan. | JOSETXO ARANTZABAL

AUTOMOBILISMOA

# Gatzagako auto igoera bihar, zapatua; hiru txanda beharrean, laugarrena gehituta

## 14:30ean hasiko dute lasterketa, txanda guztiak egiteko garaiz ibiltzeko

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Gatzagako auto igoerak ibarreko hamasei pilotu batuko ditu bihar, zapatua. Eta guztira, 70 pilotu pasa elkartuko dira irteera puntuan, Marulandan: "Aurten ere irteera lehenagotik egiteko proposamena egin diogu federazioari, baina ezetz esan digute, 500 metro irabazteko ez duela merezi arriskuak hartzen ibiltzeak", adierazi digu antolatzaile lanetan dabilen eta bihar Golf GTI barruan joango den Ander Corcuerak –lider dago Formula Libre kategorian.

Corcuerak debuta egingo du etxean: "Ez naiz zaleen animuekin burua galtzen duen horietakoa, ez nuke nahi, behintzat [Barre]; ea lasterketa arazo barik amaitzen dugun". Iaz etxeko hainbatek ezin izan duten proba amaitu, tartean Mikel Otxoak: "Aurten debekatu egin digute autoa zeharka eramatea, eta kontuan izan beharko dugu hori. Guztira, lau txanda egingo ditugu, baina horietako bat ikuskizun apur bat emateko baliatuko dut, eta besteak denbora ona egiteko".

Izan ere, igoera luzatu beharrean laugarren txanda bat egingo dute: "Pilotuek gehiago gozatzeko aukera izan dezaten".

### DEBAGOIENEKOAK

| IZENA | AUTOA |
|---|---|
| **Aitor Zabaleta** | BMW Lola Diamante |
| **Ruben Nogueiras** | Silver Car 1000 |
| **Aitor Ramirez** | BMW 320 ST |
| **Lertxundi** | BMW M3 e36 |
| **David Ardions** | Mitsubishi Evo II |
| **Ander Corcuera** | VW Golf 1.8 GTI |
| **Asier Mugartza** | Renault Clio Sport |
| **Mikel Otxoa** | BMW Touring |
| **Aitor Arnaiz** | Renault 5GT Turbo |
| **Emilio Huerta** | Peugeot 306 GTI |
| **Igor Orobengoa** | Seat Ibiza Cupra D |
| **Alberto Murillo** | Citroen Saxo VTS |
| **Inhar Amenabar** | Renault 5 GT Turbo |
| **Gorka Idigoras** | Opel Astra GSI |
| **Asier Samaniego** | BMW 325i e36 |
| **Joseba Frutos** | Citroen AX GTI |

### Ikusleendako oharra

Udanako igoeraren ostean federazioko ordezkariak oso serio jarri dira segurtasun neurriekin. Hala, pilotuei *drifting*-a egitea edo autoa zeharka eramatea debekatu diete, eta ikusleek haserre hartu dute erabakia: "Gorlan ikusleak oso ondo portatu ziren, baina Urkiolako lasterketa sekulakoa izan zen, komisarioei denetik bota zieten–eta, oihu egin... Boluntario lanetan, eta halakoak aguantatu behar izatea ere...".

### ESANAK

**"Ikusleei eskatu euren autoak ondo aparkatzeko"**
ANDER CORCUERA | PILOTUA

**"Laugarren txandaz pilotuek gehiago gozatuko dute"**
MIKEL OTXOA | PILOTUA

MENDI LASTERKETAK

# Gaur gauean ibarretik igaroko da Ehun Miliak ultratrail proba

**X.U.** | ARRASATE

Beasainen hasiko dute gaur, egubakoitza, arratsaldean (18:00) Ehun Miliak ultratrail probaren bigarren edizioa (168 kilometro), eta, ibilbidean aldaketarik egin ez dutenez, korrikalari azkarrenak iluntzean iritsiko dira Debagoienera, Antzuola eta Bergara aldera. Iaz bezala, aurten ere Pol-Pol mendi elkarteko ordezkariek hartu dute ibarreko zatia antolatzeko ardura: "Gurean Trekutzetik sartu eta Hirukurutzetatik irtengo dira. Altzasun jan -edanen postua izago da, eta baita txip-kontrola ere. Lehenengo partaideak 20:45 aldera iritsiko dira eta azkenak, gauerdia pasata".



Iaz, irteera puntuan. | BERRIA.INFO

FUTBOLA

# 'Geroa sortuz' futbol campusak ateak itxi ditu gaur, lehen edizio arrakastatsuarekin

## Ibarreko futbol talde guztietako 130 gaztetxo ibili dira uztailean

**XABIER URTZELAI** | ARETXABALETA

*Geroa sortuz* campuseko lehen edizioak eman duenarekin pozik azaldu da Igor Arenaza aretxabaletarra, Debagoieneko 130 gaztetxo giro ezin hobean ibili direlako: "Oso gustura geratu gara. Ibarreko futbol talde guztiak batu ditu ekimen honek, eta futbolaren aitzakiaz gaztetxoei hainbat balore erakutsi nahi izan dizkiegu".

Campusa Realak babestu du, eta 6-7 begiralerekin batera Realeko ordezkari bat egon da eguneroi, teknifikazio saioak antolatzen. Esandako moduan, baina, futbola aitzakia baino ez da izan: "1999 eta 2002 urte arteko gaztetxoak izan ditugu, txanda ezberdinetan, eta adin horretan ez du zentzurik futbolean bakarrik jardutea. Pelikulak ikusi, igerilekura joan, multikirolean eta eta herri kiroletan jardun dugu... Eta, mendi bueltatxoak emanda ingurumena zaintzeak duen garrantziaz ere egin dugu berba". Horrekin batera, hainbat futbol jokalariren bisita ere izan dute, tartean Jose Javier Barkero eta Mikel Gonzalez: "Nahiz eta badakigu lau egunetan gazteek ezin dutela dena barneratu".



Futbol campusean egin duten hiru txandetako batean, gazteak talde argazkian. | ERIK BADILLO

PILOTA

# Domekan egingo du debuta Aitor Mendizabalek

## Zarauzko jaialdiko lehen partiduan jokatuko du

**X.U.** | ANTZUOLA

Domeka arratsaldean (17:00) Zarauzko Aritzbatalde pilotalekuan egingo duten jaialdiko lehen partiduak ohi baino giro hobea izango du, Aitor Mendizabalek Antzuolatik joandako herrikideen babesa izango duelako profesional moduan egingo duen debutean. Antzuolakoak Ceciliorekin osatuko du bikotea, eta Jaunarena eta Arruti izango dituzte aurrean.

Jaialdiko beste bi partiduei dagokienez, Aritz Lasak eta Peñagarikanok Idoateren eta Laskurainen kontra jokatuko dute. Eta Ongayk eta Larrinagak Gorkaren eta Ladis Galartzaren kontra.



Aitor Mendizabal. | JOSETXO ARANTZABAL

### Antzuolan ere partiduak

Gaur, egubakoitza, Antzuolako jaien barruan pilota jaialdia antolatu dute. 19:30ean hasita eskuz binako bi partidu jokatuko dituzte.

TXIRRINDULARITZA

# Mugarri-Jay eta Lizarralde Kirolak taldeetako ziklistak Espainiako MTB txapelketan izango dira

Madrilgo Becerril de la Sierra herrian egingo duten Espainiako MTB txapelketan Euskal Selekzioa ordezkatzen izango dira Mugarri-Jay taldeko Alex Goirizelaia, Iker Eskibel eta Jon Ander Kortabarria. Gaur, egubakoitza, Goirizelaiak Team Relay proban parte hartuko du, eta domekan izango dute XC lasterketa. Kadete mailako txirrindulariek, berriz, Lizarralde Kirolak taldeko Julen Axpek eta Adrian Orunak Aragoiko Caspe herrian izango dute lasterketa, domekan.


Aukerazko IBILGAILUAK salgai



14.500€-tik aurrera

> FORD FOCUS
2011 | Diesela | 0 Km

MUGARRI

Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Galaxy TDCI 21.900 €
  2009 | Diesela | Granatea | 59.000 Km
- Ford Fiesta 70 ZP 10.300 €
  2010 | Diesela | Urdina | 11.000 Km
- Ford Focus TDCI 140 ZP 20.500 €
  2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- Audi A3 TDI 140 Sportbreak-SPORT 18.900 €
  2008 | Diesela | Gorria | 89.000 Km
- Seat Leon TDI 140 ZP 9.700 €
  2006 | Diesela | Zuria | 110.000 Km
- BMW 360 D. Automatic Pack M 187 ZP 17.500 €
  2006 | Diesela | Beltza | 110.000 Km
- Ford Transit Nugget 2.0 TDCI 41.500 €
  KM 0 ( Berria ) | Diesela | Plata edo aukeran
- FORD FOCUS TDCI 110 ZP 10.500 €
  2008 | Diesela | Beltza | 49.000 Km
- FORD KUGA TDCI- 4W 140 ZP 25.500 € €
  2010 | Diesela | Beltza | 27.000 Km
- FORD KUGA TDCI- 4W 140 ZP 24.900 € €
  2010 | Diesela | Urdina | 16.000 Km



28.700 €

> Audi A4 2.0 TDI 143 DPF AVANT
2010 | Diesela | 29.649 Km

Udalaitz

- Audi A3 1.9 TDI E DPF ATTRACTION 18.400 €
  2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP 7.900 €
  2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65 6.600 €
  2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC 3.900 €
  2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- Audi A4 2.0 TDI E 136BHP DPF 26.900 €
  2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE 10.500 €
  2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPF REFERENCE ST 20.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Seat Altea Xl 1.6 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE 19.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Skoda Scout 2.0 TDI Quattro 25.500 €
  2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- Seat Leon 1.6 TDI 105 16.500 €
  2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70



24.350 €

> Citroen Ds4 eHdi Stop&Start Style 110
2011 | Diesela | Hickory | 800 Km

CHAPIME
San Andres auzoa 5.
ARRASATE
Tel.: 943 79 45 22.

CITROËN
Debagoieneko Kontzesionario ofiziala

- Peugeot 308 16Hdi Sport 110 11.850 €
  2008 | Diesela | Beltza | 59.000 km
- Citroen C5 22Hdi EXCL 200CAS 29.900 €
  2010 | Diesela | Gris iluna | 2500 km
- Citroen Grand C4 Picasso SX CMP 138 13.850 €
  2007 | Diesela | Gris argia | 53500 km
- Citroen Xsara 16i 16V Premier Cp 110 3.800 €
  2003 | Gasolina | Gris argia | 142.760 km
- Citroen DS3 Hdi Style 90 16.500 €
  2011 | Diesela | Gorria/Beltza | 600 km
- Citroen C5 20Hdi Seduction 140 22.750 €
  2011 | Diesela | Gris iluna | 250 km
- Hyundai i30 16CRDi Confort GLS 90 12.950 €
  2010 | Diesela | Txuria | 10500 km
- Hyundai Getz 11i 3 ate 3000 €
  2003 | Gasolina | Txuria | 70500 km
- Opel Astra 20TD 80 2000 €
  1998 | Diesela | Berde argia | 188365 km

Iragarkia jartzeko: 943 25 05 05

Ikus itzazu argazkiak, astero, asteleheneko Goiena paperean

# UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

## Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: *goiena.net/blogak/argazkiak*


LARA GONZALEZ


IDOIA ITURRALDE


MIGUEL DE GANESHA

**Har ezazu parte!**

## Oinarriak

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
  - **Egilearen izen-abizenak eta herria.**
  - **Harremanetarako telefonoa.**
  - **Argazkia noiz eta non ateratakoa den.**
  - **Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**
- **Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 1etik irailaren 16ra arte.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- **Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.**

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: *argazkiak@goiena.com* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05 edo Durana 11-2 solairura, 20550 Aretxabaleta.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta, CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 3an jakingo dugu asteleheneko Goiena paperean.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkia guztiak Goienako artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

## Sariak



**1. saria**

Panasonic LUMIX DMC G10 argazki kamera digitala eta KB Photoestudiok eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 12 megapixel.
- LUMIX G VARIO 14-42mm / F3.5-5.6 objektiboa.
- 3 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View Dual denbora osoan.
- Flash eta guzti.



**2. saria:** Cantabrian bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiak-en eskutik.



**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

ANTOLATZAILEA: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK: kb photoestudio www.kbphotoestudio.com — Panasonic LUMIX — GURE AMETSA JATETXEA — ARRASATE BIDAIAK

# Antzuolako inspirazioa, Parisera

▸ Parisko goi mailako joskintzak begiz jo du Jaizki Bakaikoa diseinatzaile gaztea
▸ Irailean aurkeztu behar duen bilduma prestatzen buru-belarri dabil orain



Jaizki Bakaikoa, Bergaran daukan ile-apaindegian, aurtengo bildumako bi diseinuren artean. | MAIDER ARREGI

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Jaizki Bakaikoa antzuolarrak badaki zortea bilatu egin behar dela eta horretarako gogor egin behar dela lan. Hala, bere 15 *loock book*-ak esku artean, Parisko moda etxe garrantzitsuenetako ateak jo berri ditu.

"Hermes moda etxean nire lana aurkeztu nuen. Gustatu egin zitzaien eta talentu berrien bila dabilen agentzia batekin hitzordua lotzea lortu nuen", kontatu digu Bakaikoak, ilusioz. Agentzia horiek elkarrizketak egiten espezialistak dira eta euren lana talentu berriei ihes egiten ez uztea da. Hermes etxearendako lan egiten duen Agnes Barretek egin zidan elkarrizketa. Oso inpresio onarekin atera nintzen elkarrizketa hartatik. Nire lana gustatu egin zitzaion eta jarraipena egin nahi didatela esan zidan; euren filosofiarekin bat egiten zutela nire diseinuek". Benetako lana eta apustua, baina, orain dator Jaizki Bakaikoarendako. "Irailean, soineko bakoitzaren prozesua osorik erakutsi behar diet. Patroiak atera behar ditut eta nola josi dudan azaldu; fitxa teknikoa erakutsi behar diet nik egin dudala demostratzeko eta inspirazioa nondik datorkidan erakusteko". Horretarako, bilduma txiki bat dauka buruan eta prozesu guztia bideoan erakutsi nahi die Hermeskoei.

Oso jende gutxik du horrelako aukera eta Bakaikoak ondo aprobetxatuko du. "Horrelako agentzia batek ez ditu aukerak horren erraz ematen. Nik aurkeztutako liburua teknikoki oso indartsua dela esan didate eta arropa eginda erakustea pauso handia dela". Egiten duena oso pertsonala da, eta berezia. "Barrutik irteten zait egiten dudana, zaila da azaltzea. Arropa erosoa da, eta pertsonalitateduna. Nik defendatu eta sinisten dudana da. Autodidakta naiz eta irailean nire teknikarekin gauza naizela edozer egiteko erakutsi nahi diet". Oraingoz, emakumeendako arropa egiten du, baina aurrerago bi sexuendako zerbait bateragarria egitea ere ez du baztertzen. Bakaikoak Parisen beste modu batean ulertzen dutela moda kontatu digu. "Industria handi bat da eta bizi izateko era dute. Moda munduko oso jende garrantzitsua dago. Haiek zure ibilbidea arrakastara bideratu edo ondoratzeko boterea dute, argi ibili behar duzu". "Niri oso harrera ona egin didate; talentu berriak jarraitu nahi dituzte eta haien lanaren eboluzioa ikusi. Hermes etxearen inspirazioa ikusi dute nigan eta aukera bat eman didate".

Lehiaketa bakarrean parte hartu duela eta esperientzia nahiko kaxkarra izan duela ere azaldu digu: "Ni tendentzietatik kanpo nago eta lehiaketetan tendentziak jarraitzen dituzte. Niri gauza minimalistak gustatzen zaizkit eta jende askok ez du ulertzen. Gainera, lehiaketetan ibiltzeak badauka bere arriskua, zeren moda etxe askok ez baitute nahi izaten bertan dabiltzan diseinugileekin lan egin".

**Ile-apaintzailea, Bergaran**

Eskarmentudun ile-apaintzailea ere bada Bakaikoa. Cibeles, Londres eta Parisen izan da eta ospetsu eta modelo ezagun asko orraztu ditu: Martina Klein, Nieves Alvarez eta Madelein nazioarteko modeloa, besteak beste. Hala ere, Bergaran bezeroekin izandako esperientzia dela onena kontatu digu: "Konplexu eta konpetentzia handia dago ile-apaintzaileen artean; gusturen eta esperientzia onena nire bezeroekin dudana da". Exoterismoaren eta psikologiaren mundua asko gustatzen zaiola esan digu. Tarota egiten du eta zalea da. "Nire burua ordenatzeko daukadan teknika. Hermesera joan aurretik meditazioa egin nuen lasai egoteko. Bibrazio onak jaso ditut, eta ateak zabalik ditudala. Orain, gogor egin behar dut lan; ez da zori kontua, lan egin behar da".

**"Nire arropa nik sinesten eta defendatzen dudan guztia da"**



2011ko kolekzioko diseinuek urdin alderako tonu ilunak eta zuria izan dute ardatz. | JAIZKI




*Senegal* izenburuko argazkiari esker Argizaiola lehiaketako lehen saria eskuratu du Garaik. | JOSU GARAI

**Josu Garai** | Argizaiola lehiaketako irabazlea

# "Saritutako argazkian mutikoaren begiradak du indar handien; zortea ere behar da halako momentuetan"

- Euskal Herriko argazkizale onenek hartzen dute parte Argizaiola lehiaketan
- Gaztetan hasi zen argazkilaritzan eta Legazpiko Ikatza taldean dihardu gaur

**EDU MENDIBIL** | ARRASATE

Aspaldian Legazpin bizi den Josu Garaik (Arrasate, 1958) irabazi du Argizaiola saria aurten. Legazpiko Ikatza argazkizale taldeko kidea da eta hauxe da orain arte eskuratutako saririk potoloena. Lehen saria berarendako zela esan ziotenean, sorpresa galanta hartu zuela diosku Josuk.

**Noiz eta zelan atera zenuen saritutako argazkia, *Senegal*?**

2009ko Gabonetan atera nuen; Senegalera bidaia egin genuen eta Euskal Herrian bizi den senegaldar bat etorri zen gurekin. Auto barrutik atera nuen, mutiko bat gure lagun senegaldarrari laguntza eske ari zenean. Hara joandakoan beste maila baten daude atzerrian bizi diren senegaldarrak, elkar ezagutzen dute guztiek, eta mutikoa haren herrikideari zuzendu zitzaion. Jeneralean, bidaietan batez ere, kamera aldean eramaten dut eta momentu hori harrapatzea tokatu zitzaidan, zortea ere izan nuen... Argazki horretan indar handia duena mutikoaren begirada da, nik uste.

**Zuri-beltzean atera zenuen?**

Ez, kamera digitala erabiltzen dut gaur eta koloretan atera nuen. Tratamendu bitartez zuri-beltzera pasatu nuen gero. Argazkiak digitalki asko ukitzen ditudan? Ez dut uste, argazkiak berak eskatzen duena bakarrik.

**Ilusioa egingo zizun halako lehiaketa garrantzitsu bat irabazteak, ala?**

Dudarik ez. Euskal Herriko argazkilari onenek hartzen dute parte eta tartean izaten dira han eta hemen saritutako argazkiak. Urte askotan parte hartu izan dut eta ez nuen espero inondik inora sari nagusia irabaztea. Egia esateko, sekulako sorpresa hartu nuen.



Josu Garai. | JULIAN GIL

**Noiz hasi zinen argazkilaritzan?**

Betidanik gustatu izan zait argazkilaritza baina batez ere 1990eko hamarkadatik aurrera hasi nintzen serioagoa hartzen. Azken urteotan Legazpiko Ikatza argazkizale elkartean nabil, aspaldian han bizi naiz-eta.

> **"Gehien, naturako argazkiak eta bidaietan erretratua lantzen ditut"**

> **"Erretratu onarekin pentsatzean, amonatxo bat datorkit burura"**

**Mendian asko ibilitakoa zara...**

Bai, gustatzen zait, eta oraindik ere banabil... Nagusiki mendiko eta naturako argazkiak eta bidaietakoak atera ditut. Bidaietan erretratua lantzea da gehien atsegin dudana.

**Hurrengo bidaia, nora?**

Udan, datozen egunotan, Nepalera joango gara. Ilusio ikaragarria egiten dit hara joateak.

**Urteko zein sasoitan ateratzen duzu argazki gehien?**

Naturako argazkietarako udazkena da sasoirik onena. Negua ere bai... Beste edozein garaitan berdin ibiltzen naiz bestelako gaiekin, baina naturakoak gutxiago ateratzen ditut udan eta udaberrian.

**Erretratua lantzea atsegin duzula diozu. Nori egingo zenioke erretratu bat gustura?**

Ez daukat pertsona jakin bati erretratua ateratzeko aparteko ilusio edo gogorik. Jeneralean pertsona nagusi bat, amonatxo bat daukat buruan erretratu on batekin pentsatzen dudanean... Modelo aproposak izaten dira halako emakumeak.

**Zer behar du erretratu on batek?**

Begirada klabea izaten da beti. Hortxe dago erretratuaren arrakastarik handiena, duda barik.

**Zenbat kamera dituzu etxean?**

Batzuk badaude, bai... Analogikoan ibilitakoa naiz eta bizpahiru gordetzen ditut. Eta digitalak, pare bat.

**Hurrengo erakusketa, noiz?**

Iaz hiru bat egin nituen: Oñatin, Beasainen, Urretxun... Aurten atsedena hartuko dut alde horretatik.

# Mendebala eta ekialdea elkarrekin, Espoloian

Nao taldeak kontzertua eskainiko du Bergaran, Bermuga egitarauaren barruan, 22:00etan

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Joan den egubakoitzeko arrakasta ikusita, gaur ere ikusle asko batzea espero dute Espoloian. Bermuga musika egitarauak hirugarren jardunaldia izango du. Bergarako espoloian Nao taldeak joko du. Badajoz eta Portugalgo musikariek osatzen dute Nao.

Herri sustraietatik abiatutako proposamena eskainiko dute. Hiru musika estilo eskainiko dituzte: jazza, soula eta kantagintza.

**Hiru musika estilo**

Cira abeslariaren inguruan sortutako egitasmo musikala da Nao. Aipatutako hiru musika estiloak uztartzen dituzte, modu sinplean, baina, era berean, indar handiarekin.

Mendebaleko eta ekialdeko soinuak elkartzen dira proposamenean, modu horretan Europa eta Amerika uztartuta. Hiru kidek osatzen dute taldea: Cira (ahotsa, gitarra eta akustikoa), Raul Marquez (tronpeta, gitarra portugaldarra, esku soinua, gitarra eta ahotsa) eta David Gonzalezek (kontrabaxua eta koruak).

Beirut, Zeca Alfonso eta Depedro artistekin lan egin izan dute Nao taldeko musikariek.

**Berriro errepikatuko dute**

Bermuga egitarauaren aurkezpen ekitaldian Ubane Uzin Gaztelupeko Hotsak musika promotoreko ordezkariak esan zuen Bergaran aurrez izandakoak direla Nao taldekoak. "Lehen etorritakoak dira, gustura geratu ziren eta berriro errepikatuko dute", esan zuen.



Nao taldeko Cira abeslaria. | GAZTELUPEKO HOTSAK

## Argentinan abesbatzen nazioarteko sinposioan parte hartuko du Marije Ugalde bergararrak

Kea ahots taldeak abuztuaren 3tik 10era Argentinan jokatuko den abesbatzen nazioarteko sinposioan parte hartuko du. Kea orain dela 14 urte sortu zuten, eta hasieratik parte hartu du taldean Bergarako Musika eskolako zuzendari Marije Ugaldek. XX. eta XXI. mendeko musika egiten dute eta taldeko partaideak 12 musikari profesional dira.

## Uztaileko hiru azken asteburuetan 'clown' ikastaroak Bergaran, Oihulari Klown taldearen eskutik

Oihulari Klown taldeak hainbat ikastaro iragarri ditu datozen egunotarako: oraingo asteburuan *clown* hastapeneko ikastaroa egingo dute; hurrengo hilaren 23an eta 24an, *Clown y mitomanías* izenburukoa: eta, azkenik, uztaileko azken asteburuan *Estructura de juego clown a dos* ikastaroa egiteko aukera izango da. Hiru ikastarook Bergaran egingo dituzte. Argibideak 607 20 45 03 telefonoan edo *oihulariklown@oihulariklown.org* helbidean.

## Xabier Lete euskarazko nazioarteko I. poesia saria antolatu du Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak

Xabier Lete poetaren memoria denboran manten dadin antolatu du Foru Aldundiak sariketa. Lehenengo poesia saria izango da, eta edonork parte har dezake. Euskaraz idatzitako lan originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Lanak gai librekoak izango dira eta 800 lerro izan beharko dute, gutxienez. Obrak aurkezteko epea 2011ko irailaren 15era arte izango da. Lanak bidaltzeko: Koldo Mitxelena, Urdaneta Kalea 9, 20006, Donostia.

# Soul doinuek girotuko dute Monterron parkea gaur

## Udazabal programaren barruan, Bartzelonako The Excitements taldeak joko du, 22:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Soula, edo bestela esanda musika beltza. Hori izango da gaur gauean Monterron parkera joango direnek izango dutena. Bartzelonatik etorrita, The Excitements taldeak musika beltzaren aldeko apustua egingo du.

Bartzelonak beti izan du musika beltzaren aldeko joera. Horregatik, ez da kasualitatea han sortu izana The Excitaments taldea. Koko Jean Davis da taldeko liderra eta abeslaria.


The Excitements taldea Arrasateko Monterronen izango da gaur. | DENAFLOWS.COM

### Arima zaildua duen taldea

Gainerako soul taldeetatik bereizten duena taldeak duen arima zaildua eta birtuosismo harrigarria da.

The Excitaments taldeak hainbat iturritatik edan du. Ike&Tina Turner, Etta Jamen, Otis Redding, James Brown... artisten eragina nabarmena da euren musikan. Hala ere, Bartzelonako taldea ez da kopia hutsa, euren bidea egin dute imitatzaile hutsak izan barik.

### Abeslariaren ahots zoragarria

2010ean sortutako taldea da. Rhythm-and-blues eta soul-and-rock doinuak egiten dituzte. 50eko eta 60ko hamarkadako soinuak dituzte oinarri, betiere Koko Jean Davis taldeko abeslariaren ahots izugarriak lagunduta. Adituek diote azkenaldian entzun den ahotsik apartena dela Jean Davisena.

### Hurrengoa, balleta

Udazabal programaren barruan, datorren eguenean izango da hurrengo ekitaldia Monterronen. Martikako Ballet Folklorique Tifermasc taldeak eskainiko du ikuskizuna. 1991ean sortutakoa, balletak beti izan ditu gazteak haren proiektuan. Gaur egun 9 eta 20 urte arteko 25 gaztek osatzen dute taldea.



## Belcebluesen arrakasta aparta!

BELCEBLUES

**Belceblues bergararrak gustura itzuli dira Hondarribia Blues jaialditik. Haien emanaldietako kronikek ere gustura utzi dute hirukote bergararra, denek nabarmendu dute–eta haien *ofizioa*. Bi emanaldi egin zituzten blues jaialdian. Nazioarteko jaialdia izanik, lagunekin eta bertako musikariekin ez ezik, kanpoko hainbat artistarekin elkartu, iritziak trukatu eta argazkiak ateratzeko aukera izan zuten. Esaterako, Jean Mari Ecay Iparraldeko musikari handiarekin. Gainera, kontatu digutenez, Belcebluesen hurrengo diskoan parte hartuko du.**

## Jingo de Lunch eta Fly Shit taldeek Oñatiko gaztelekuan joko dute bihar, zapatua

A.E. | OÑATI

Egitarau zabala prestatu dute Oñatiko gaztelekuan datozen egunetarako. Alde batetik, bihar, zapatua, Jingo de Lunch talde alemaniarrak kontzertua eskainiko du. 1987an sortutako taldeak punk rocka egiten du. Urteak daramatzate taula gainean alemaniarrek; hala, euren esperientziaz baliatuko dira gaztelekura joandakoei gorputza mugiarazteko. Jingo de Lunch taldeaz gain, Fly Shit bergararrek ere joko dute. 22:00etan izango da kontzertua eta sarrera 10 euro kostako da.

Datorren domekan, hilaren 24an, The Dickies, La Urss eta Achting! taldeek joko dute.





Imanol Ramos, kamera eskuetan duela, grabaziorako prest.

**Imanol Ramos** | 'Aguila Roja' telesaileko zuzendariaren laguntzailea

ASIER ALKORTA

# "Aktoreak tratatzen jakin egin behar dela ikasi dut 'Aguila Roja'-n lan egin dudan denboraldian"

**ASIER ALKORTA** | ARETXABALETA

Bizitza honetan zer egin nahi duen argi dauka eta helburuak ere ondo finkatuta ditu. Ikus-entzunezko ikasketak egin eta gero, Madrilera salto egin zuen iaz, fikziozko telesailen errealizazio eta edizioan oinarritutako masterra egiteko. Han eta hemen burua sartuz, azkenean, *Aguila Roja* telesailean egin ditu praktikak. Zuzendariaren aldamenean jarrita, Imanol Ramosek (Aretxabaleta, 1988) telesaileko xehetasun guztiak gertutik ezagutu ditu.

**Nola amaitu duzu *Aguila Roja* telesailean lan egiten?**

Nik egin dudan masterrak Globomedia produkzio etxearekin zuen hitzarmena eta niri Globomendian muturra sartzea interesatzen zitzaidan, telesailen munduan Madrilen dagoen enpresarik handiena delako. E-postaz bidali ziguten lan eskaintza zegoela bertan eta aurkeztu egin nintzen. Hasiera baten, *El barco* telesailean lan egitea tokatu zitzaidan eta niri ez zitzaidan gustatzen telesail hori. Beste kide bati *Aguila Roja*-n lan egitea tokatu zitzaion eta harekin aldatu nuen.

**Behin barrura sartuta, zer lan egitea egokitu zaizu?**

Denbora osoan zuzendariarekin egon naiz. Egun osoan haren aldamenean egon eta harekin ikastea zen nire egitekoa. Miguel Alcantud da hura, eta oso jatorra izan da. Ospe handiko zuzendaria da, eta, proiektu askotan sartuta egoteaz gain, jende ospetsu askorekin lan egin izan du. Orokorrean, asko ikasi dut harekin. Besteak beste, aktoreekin komunikazio eta harreman ona izaten irakatsi dit hark.

**Zaila al da, ba?**

Bai. Aktoreak tratatzen jakin egin behar dela ikasi dut. Motibaziorik eza gertatzen zaie askotan eta horren guztiaren zama zuzendariarengan dago.

**Aurretik telesaila jarraitzen zenuen?**

Egia esan, ez nuen askorik ikusten, baina banekien zeri buruz zen. Gainera, banekien platotik kanpoko grabazio asko egiten zituztela, eta hori interesatzen zitzaidan. *El barco* telesailean, aldiz, grabazio gehienak, guztiak ez esatearren, barruan egiten ziren, eta arrazoi horregatik nahiago nuen *Aguila Roja*.

**Lantaldea handia izango zen, ezta?**

Oso handia. Kategoria handiko espezialistak ere bazeuden.

**Gustura ibili zara eurekin lanean?**

Oso gustura. Oso gazteak ziren denak eta horrek harritu egin ninduen. Gainera, ni bezala praktiketan zeuden beste gazte asko zeuden, nor bere alorrean, noski.

**Telesail baten atzean lan eginda, telesailak berak duen misterioa galdu egiten da?**

Egia esan, bai. Adibidez, *Aguila Roja*-ren kasuan, oraingoz, hirugarren denboraldiaren erdia emititu da eta nik badakit bosgarren denboraldira arte zer gertatzen den. Gidoi aldetik misterio hori galdu egiten da, baina beste misterio bat dago hor: zuk lan egin duzun lekua telebistan ikustea. Horrek beste misterio bat dauka eta telebistan emititu arte ez duzu ikusten.

**Lanean zorrotza zara?**

Bai. Eta gustatzen ez zitzaidan zer edo zer egiten bazuten, esan egiten nion zuzendariari. Zuzendariak ere kasu egiten zidan.

**Beraz, askatasuna eta parte hartzeko aukera eman dizute.**

Bai, erabat. Zuzendaria irekia zen eta hark hasieratik esan zidan gauzak esateko eta nituen galderak egiteko.

**Zein izan da esperientzia horretako ondorio positiboena?**

Dena izan da ona. Mundu honetan lan egin nahi baduzu, horrelako lan batetik pasatu behar duzu aurretik, ezinbestean. Soinua, argazkilaritza, errealizazioa... alor guztietatik ikasi dut; denei galdetzen nien. Eta kontaktu asko egin ditut.

**Orain *Aguila Roja*-n amaitu duzula, ze plan duzu?**

Proiektu asko ditut. Tartean, produkzio etxe berri bat sortzea.

## PERTSONALA

**Kolore bat:** Urdina.

**Telesail bat:** *Missfits*.

**Telebistako pertsonaia bat:** Barny Stinson, *Como conocí a vuestra madre* telesailekoa.

**Janari gustukoena:** Espagetiak.

**Film bat:** *Días de fútbol*.

**Beti zurekin daramazun zerbait:** Eskuko telefonoa.

**Herri bat:** Aretxabaleta.

**Musika talde bat:** Rise Against.

**Oporretarako leku bat:** Peñiscola.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** San Antonen etxebizitza salgai. 65 metro koadro. Hiru logela, sukalde hornitua, komuna, balkoia, hall-a, miradorea. Bi aparkaleku eta trastelekua terrazarekin. Urbanizazio pribatuan. 138.200 €. 629 45 58 51

**Oñati.** 90 metro koadroko duplexa salgai Atzekokalen. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela dauzka. Igogailua dauka. Eraikuntza berriko etxea da. Garagea aukeran. 607 58 00 99 edo 625 70 54 44

**Oñati.** Kalebarria 32an 80 metro koadroko etxebizitza ederra salgai. 9 urteko aintzinatasuna. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi bat. Igogailua eraikin berean garajeraino dauka. Kalitate handiko etxebizitza, diseinuzko altzariz hornitua. Prezio negoziagarria. Garaje itxia aukeran. 622 42 83 18

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitate ondoan. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Garajea aukeran. Familia, langile edota ikasleentzako egokia. 622 25 13 94

**Arrasate.** Hilean 600 eurogatik guztiz jantzitako apartamentua ematen da errentan Bizkaia etorbideko 2an. Pertsona bat edo birendako egokia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 68 28 26

**Conil.** Apartamentua ematen da errentan udarako. 2-4 pertsonentzat egokia. Deitu 622 25 13 94 zenbakira.

**Donostia.** Antiguo auzoan, irailetik ekainera arte, bi gelako etxebizitza ematen da errentan, Escolta Real 47an. Deitu 626 84 45 91 telefonora.

**Eskoriatza.** Ikasleentzat etxebizitza ematen da errentan. 4 logela. Unibertsitatetik 15 metrora. Guztiz ekipatuta eta berogailuarekin. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 655 72 44 10 edo 656 71 65 11

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da Oñatiko erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta igogailua ditu. Interesatuak arratsaldez deitu zenbaki honetara: 652 77 87 15

**Ribadesella (Asturias).** Etxebizitza ematen da errentan udarako. Hiru logela. Erdigunetik gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 78 22 47

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Etxebizitza errentan hartuko nuke, 2-3 hilabeterako (obren arabera). Deitu 677 35 04 49 zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 661 88 77 54 telefonora.

**Aretxabaleta edo Arrasate.** Logela behar dut errentan. Ikaslea naiz. 689 18 04 19

**Arrasate.** Hiru pertsona behar dira Erdiko plazan pisu merkea osatzeko. Eneko. Deitu 658 74 48 24 zenbakira.

**Arrasate.** Gizon pakistandarra naiz eta alokatzeko logela baten bila nabil. Hobeto bertakoa bazara edo bazarete hizkuntza ikasten nabil-eta. Deitu 600 07 01 95 telefonora.

**Debagoiena.** Bizi izateko gela errentan hartuko nuke. Kontratuz bada, hobe. Erroldatzeko gertu. 634 40 66 47

**Pisua osatzeko Bilbon.** Bi langile gazte gara. Uztailaren 1etik aurrera pisuan logela bat libre geratuko zaigu eta errentan hartuko lukeen norbaiten bila ari gara. Deitu 661 30 97 7 edo 609 25 41 72 telefonoetara.

## 2. GARAJEAK

### 202. EROSI

**Oñati.** Garajea erosi edo errentan hartuko nuke Kalegoiena inguruan. 617 80 26 20

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Burdinaten. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: Deitu 689 36 86 42 edo 943 76 06 60 zenbakietara.

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da irailetik aurrera bi ume zaintzeko. 637 77 45 57

**ARETXABALETA**
Zerbitzaria behar da.
Eskarmentuduna.
Artano taberna.
619 91 49 13

**ARAMAIO**
Zerbitzari euskalduna behar da, barran eskarmentua duena.
945 44 59 88
(astelehenetan ez deitu)

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko prest. Esperientzia handikoa. 618 41 24 79

**Arrasate.** Hemengo emakume arduratsua prest edozein lanerako. 615 75 41 44

**Arrasate.** Neska eskarmentuduna gertu nagusiak zaintzeko. 618 00 08 28

**Bergara edo Arrasate.** Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. 646 28 55 02

**Bergara edo Debagoiena.** Emakumea gertu tabernetan sukaldari laguntzaile edo zerbitzari lanetan aritzeko, baita garbitasun lanak egiteko, umeak zaintzeko eta nagusiak zaintzeko ere. 645 67 82 24

**Bergara eta Arrasate.** Bertako neska eskarmentuduna gertu nagusiak zaintzeko. Deitu 637 18 07 23 telefonora.

**Bergara.** Emakume eskarmentuduna gertu nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 650 17 74 87

**Debagoiena.** 18 urteko neska euskalduna, tabernari lanetan aritzeko prest. Fina eta langilea. 679 74 00 61

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu, garbiketa lanak zein etxeko lanetan jardungo nuke. Eskarmentuduna. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. Deitu 618 14 71 34 telefono zenbakira eta Cintyarengatik galdetu.

**Debagoiena.** Bi gizonezko lan bila gabiltza. Edozein motatako lana egiteko gertu gaude. 632 26 22 09

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbiketak egin, edo nagusiak zaindu eta laguntzeko. Deitu 943 71 53 74 edo 695 73 87 95 telefonoetara.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko, pertsona nagusiak zaintzeko edota sukaldaritza lanak egiteko (elikagaien manipulatze karnetarekin). Gloria. 630 26 13 28 edo 943 79 13 88

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita garbiketa lanetan jarduteko ere. Urtetako eskarmentua eta legezko paperak eguneratuta dauzkat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 59 04 71

**Debagoiena.** Eskarmentudun mutila nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Carmelo. 659 77 66 22

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 678 22 71 59

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa lanak egiteko edo ostalaritzan jarduteko. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa lanak egiteko edo tabernetan lan egiteko. Deitu 662 08 22 03 telefonora.

**Debagoiena.** Mutila gertu tabernan, nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan jarduteko. Gidabaimena daukat. Deitu 616 32 90 12 telefono zenbakria.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Erizaintza laguntzaile ikasketak bukatzear nago. 689 18 04 19

**Debagoiena.** Sukaldari edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Euskal sukaldaritza ezagutzen dut. Miguel. Deitu 634 40 66 47 telefonora.

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaile, etxez-etxeko laguntza (nagusi zein umeekin) edo garbiketak egiten egingo nuke lan. 630 20 12 03

**Nagusiak zaintzeko.** Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta familia kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskeintzen da. Interna ere. Idoia. 697 24 51 86

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Debagoiena.** Kontabilitateko eskola partikularrak emango dizkidan behar dut, uztailean zehar. 670 45 47 99

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Udan 2.batxilergoko mailararteko eskolak ematen dira edota etxekolanak egiten laguntzen dut. Matematika, kimika eta abar. 653 01 76 67

**Arrasate.** Arrasateko irakaslea eskola partikularrak udan emateko prest, 6-12 urte bitarteko umeak. Esperientzia handikoa. 635 75 05 26

**Debagoiena.** Ingeleseko eskolak ematen ditut: azterketak gertatu zein ahozko praktika lantzeko. Maila guztiak. 610 97 49 68

**Ingelesa edo alemaniera.** Banakako zein taldekako klaseak. Ordutegi malgua. Udan edo udazkenean hasteko. Esperientzia handiko profesionala. Eskoriatza, Arrasate edo inguruak. Euskara eta gaztelaniako klaseak ere ematen dira atzerritarrentzat. Deitu 943 25 05 79 edo 635 12 87 82 telefono zenbakietara.

**Oñati.** Urte askotako esperientziadun irakasleak (Jaione) klase partikularrak ematen ditu udan eta ikasturte osoan zehar. Ordutegi malgua.Deitu 943 78 28 43 zenbakira.

**Oñati.** Irakaslea eta psikologoa naiz eta eskola partikularrak emango nituzke udan, maila guztietan. Esperientzia handia daukat. 666 21 73 48

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW Serie 1.** Beltza, bost ate, 118D, 2005eko irailekoa, 50.400 Km, garajean gordea, gurpil berriak. 14.000 €. 645 72 77 84

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Katakumeak.** Debagoienean, katakumeak dohainik ematen dira. 943 79 20 40

### 704. BESTELAKOAK

**Katua galdu da Bergaran.** Katu laranja da, hiru urtekoa, arra. Ekain bukaeran galdu zen Bergarako Poligono inguruan. Bolito izenari erantzuten dio. Txipa dauka. 663 65 76 06

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

